

Zu hemen zaude. goiena



ESPAINIAKO ESKI TXAPELKETARAKO GERTU

Aitor Ugarte eta Axier Alonso eskiatzaileak, eguaztenean, Oñatiko Urtiagain inguruan.

Aitor Ugarte aramaioarra eta Axier Alonso oñatiarra euskal selekzioarekin lehiatuko dira Espainiako Eski Txapelketan, domekan, Boi Taull-en (Herrialde Katalanak) / 38

XABIER URZELAI

SINADURAK



Otsail hasieran ireki nahi dute sagardo denboraldia Iturrietan

Kupeleko sagardoa pitxerretan eta mahaian zerbitzatuko dute, osasun egoera dela eta / 3



Maria Jesus Zabaleta, GSR egoitzei buruz

Elurra, bere berbak, kultura, urtu ez daitezten



ELURRETAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA 2021

Hartu parte!

Elurraz gozatzeko aukera bikaina izan dugu egunotan. Paisaia zoragarriak, mendi bueltak, elur pilotekin jolasak... Zure argazkiak ikusi gura ditugu!

Parte hartzaileen artean bi sari banatuko ditugu:

1. Sari Nagusia. Oñatiko Soraluze jatebaxaren eskutik bi lagunendako otordua.
2. Publikoaren Saria. Intersport Loramendik emandako mobilak eta mendirako makilak.

688 69 00 07 • argazkiak@goiena.eus

Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 23

INTERSPORT
LORAMENDI

LAGUNTZAILEAK:



Oñatiko Soraluze jatebaxa eta Intersport.

goiena
Zu hemen zaude.

Maialen Santos ARRASATE

LABIren Batzorde Teknikoak emandako gomendioak onartu zituen Jaurlearitzak astelehenean.

Batetik, lurralde historikoaren konfinamendua ezarri du Jaurlearitzak, eta 100.000 biztanleko 500etik gorako intzidentzia-tasa duten udalerrietan udal-konfinamendua aplikatuko da; gainera, oraingoan, alboko udalerriarako igarobidea salbuetsita geratzen da kasu guztietan. Konfinamendu perimetrala bete beharko duten herriak astelehen eta eguenetan zehaztuko dituzte –orain arte ostalaritzako establezimenduekin egin bezala–. Bestetik, intzidentzia-tasa altuak erregistratzen diren udalerrietan, 150 m²-tik gorako merkataritza-establezimenduetako edukierak %40ra murriztuko dira eta azalera txikiagoa dutenen kasuan, %60ra. Horrez gain, udalerririk horietan, taldeko kirol-jarduerak ere etenda geratu beharko du.

500etik beherako intzidentzia-tasa duten herriek eskola-kiroleko entrenamenduak egiteko baimena izango dute; betiere, sei pertsonako taldeetan egiten bada, eta aldagelak erabili gabe.

Bestalde, profesionalak ez diren dantza taldeen entseguak ere baimentzea erabaki du Jaurlearitzak, baita jokoen eta apustuen sektorearen irekiera ere.

Jaurlearitzak orain arte indarrean zauden neurriak ere mantenduko ditu: gehienez sei lagunekoko taldeetan batzea, EAE perimetralki ixtea, mugigarritasuna 06:00etatik 22:00etara mugatzea, merkataritza eta kultur jarduerak 21:00etan amaitzea, tabernak 20:00etan itxi eta 06:00etan zabaltzea eta profesionalak ez diren kontzertu eta entseguak debekatzeko.

LABIren Batzorde Teknikoak uste du intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 60ra murriztea komeni dela eta herritarrek hori lortzeko konpromisoa hartu behar dutela.


KUTSATZE BERRIAK

AZKEN ASTEAN 73 POSITIBO BERRI BAIETZATU DITUZTE DEBAGOIENEAN

Joan den eguenetik eguazten honetara arte, 73 debagoiendar kutsatu ditu koronabirusak, aurreko astean baino hemeretzi gutxiago –92 izan ziren–. Arra-

Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



Neurri berriak indarrean, eta laugarren astez positibo berriek behera

LABIren Aholku Batzordeak proposatutako neurriak indarrean dira eguaztena ezker. Eskoriatzako intzidentzia-tasa 500etik jaitsi zen atzo, eta tabernak eta jatetxeak ireki ahal izango dituzte gaur. Egunotan jarriko dituzte azken txertoak adinekoen egoitzetan

satek erregistratu ditu positibo berri gehien, 27, eta atzetik daude Aretxabaleta (13), Oñati (12) eta Bergara (11). Gauzak horrela, azken lau asteetan jarraian beherantz joera hartu dute bailaran kasu positibo berriek.

Azpimarratzekoa da 500etik beherako intzidentzia-tasa erregistratu zuela Eskoriatzak atzo, eta, beraz, Osasun Sailaren bulletinaren arabera, tabernak ireki ahal izango dituzte gaurtik aurrera. Herri hori zen eskualdean 500etik gorako tasa zuen herri bakarra, eta 5.000 biztanletik gorako herrien artean gorriaz markatutako herririk ez dago. Aretxabaleta da laranja dagoen bakarra, eta Oñati, Bergara eta Arrasate horiz daude; azken herri hori azken egunetan aldatu da kolorez; hain zuzen, laranjaetik horira igaro da.

"Egoera hobera doa"

GSR egoitzetako zuzendari orokor Maria Jesus Zabaletak azaldu du Aretxabaletako GSR egoitzako egoera hobera doala, pixkanaka, kutsatuak sendatuz doazelako. Azaldu du hildakoen kopurua "handia" izan dela: "Hala ere, 2020an ez da beste urte batzuetan baino jende gehiago hil; are gehiago, hildakoak gutxiago izan dira".

Zuzendari orokorrari egindako elkarrizketa osoa irakurgai dago gaurko *Puntua* aldizkarian.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, atzora arte bost ingresu zeuden koronabirusak jota.

ADINEKOEN EGOITZAK

34 EGOILIARREK DUTE GAITZA BAILARAN; GIPUZKOAKO SARE OSOKO %64,15 DIRA

Debagoieneko bi egoitzetan daude positibo aktiboak une honetan, atzora arte 31 dira Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitzan kutsatuta daudenak, eta hiru Oñatiko San Martinen. Guztira, beraz, 34 egoiliar daude koronabirusarekin eskualdean; Gipuzkoako sarean kutsatuta dauden %64,15 dira.

Nabarmentzekoa da, gainera, joan den eguenetik atzora arte pertsona bat hil dela Aretxaba-

letako egoitzan, eta hamalau lagun izan dira gaitza gaudituz dutenak azken egunetan.

BIRUSAREN AURKAKO TXERTOAK GAUR ETA DATORREN ASTEA BITARTEAN JARRIKO DITUZTE AZKEN TXERTOAK

Oñatiko San Martin egoitzatik azaldu dute gaur eta datorren astean jarriko dietela txertoa egoiliarrei eta langileei. Zehazki, egoitza horretan dauden 76 egoiliarretatik 70 ziztatuko dituzte; horietako 42, gaur. Bertan lan egiten duten 93 langileetatik 73k hartuko dute txertoa; 21ek, gaur.

Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitzako egoiliarrek eta langileak, bestalde, astelehenean ziztatuko dituzte. 132 egoiliarretatik 125ek hartuko dute txertoa, eta 120 langileetatik 117k.

Eskualdeko gainontzeko egoitzetan –Jose Arana, Iturbide eta Mizpurualede–txertoaren lehen dosia hartuta daude dagoeneko. Hori horrela, bailarako adinekoen egoitzetan dauden 407 egoiliarretatik 384k hartuko dute txertoa, orotara; eta horietako 189k hartu dute dagoeneko –gaurkoak aintzat hartu barik–.

Moderna konpainiaren txertoa gaur hasiko zaizkie jartzen Gurutzetako ESiko osasun langileei, baina Debagoieneko ESIn galdetuta, oraindik ez dakite noiz helduko zaizen txanda.

Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	27	37	2121	96,05
Aretxabaleta	13	16	449	63,42
Oñati	12	12	610	53,19
Bergara	11	14	1069	71,10
Eskoriatza	8	12	255	62,15
Aramaio	1	0	76	51,35
Gatzaga	1	0	8	32,00
Elgeta	0	0	51	45,09
Antzuola	0	1	148	67,92
GUZTIRA	73	92	4.787	73,86

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA



Juanan Aretxaga eta Juanjo Peciña, Aramaioko Iturrieta sagardotegian, oraingo astean. MAIALEN SANTOS

Kupelak prest Iturrietan, baina sagardoa mahaian izango da dastagarri

Osasun egoerak hala baimentzen badu, otsail hasieran irekiko dituzte kupelak euskal sagardotegietan; baina Aramaioko Iturrieta sagardotegian ere. 12.000 litro sagardo eta zuku egin dituzte. Aurten, baina, pitxer edo botilan zerbitzatu beharko dituzte

Maialen Santos ARAMAIO

Euskal sagardotegien irekiera iragartzeko txotx ofizialik ez dute egingo aurten, eta, beraz, txotx denboraldia baino gehiago, sagardo denboraldia izena hobetsi dute aurtengorako. Dena ondo bidean, otsail hasieran irekiko dituzte kupelak, eta horrekin batera irekiko dituzte Aramaioko Iturrieta sagardotegiko atea horiek dira Debagoieneko sagardo ekoizle bakarrak. Bertako sagardogile Juanjo Peciña eta Juanan Aretxaga lanera itzultzeko "gogoz" daude, eta dena prestatzen ari dira ordurako.

"Ziurgabetasun" egoeran

Iazko denboraldia "berezia" izan zen sagardogileentzat; izan ere, martxo erdialdean sagardotegiak ixtera behartu zituzten, eta botilaratutako sagardoa saltzearekin konformatu behar izan zuten.

Webgunearen bitartez, dendetan eta ostalaritza-establezimenduetan topatu zituzten horretarako bideak, "baina azken horiek itxita egon ziren denbora luzez, eta, beraz, salmentak ez ziren handiak izan". Gauzak horrela, iazko denboraldia "erabat galdutzat" eman dute Peciñak eta Aretxagak, eta aurtengoa ere ildo beretik joango den beldur dira. "Espero dugu gauzak hobeto joatea, baina egia da egoera epidemiologikoaren eboluzioaren arabera hartzen diren neurriak asko baldintzatzen gaituztela", azaldu dute.

DENA ONDO BIDEAN, OTSAIL HASIERAN ABIARAZIKO DUTE AURTENGO SAGARDO DENBORALDIA

12.000 litro zuku eta sagardo

Denboraldi berriari buruz galdetuta, aitortu dute beste urte batzuetan baino "sagardo gutxiago" egin dutela, eta zukua, aldiz, iazko "kopuru antzekoa"; bi edarien batura, 12.000 litro inguru. Horiek egiteko, baina, aurreko denboraldiarekin alderatuta sagar guztien %35 inguru soilik erabili dituzte. "Iaz, sagar gutxi batu genituen Aramaioko, 4.000 kilo inguru, negua oso epela izan zelako eta egondako ekaitzak zuhaitzetakoak bota zituelako", azaldu du Aretxagak. Gainontzekoak, 15.000 kilo inguru, Arabako sagastietatik ekarri dituzte; horiek ere Euskal Sagardoa jatorri izenekoak.

Sagardoaren ezaugarriei dagokienez, itxura ona duela aitortu du Aretxagak: "Gorputza duen sagardoa da, koloretsua,

Bailarako txakolina ere ia prest

Domekan izango da San Anton eguna, Getariako Txakolina jatorri izenaren txakolin uzta berria aurkezteko eguna. Aurten, baina, ohiko ekitaldi berezirik ez dute egingo, osasun krisiaren eraginez.

Bailarara etorrita, Oñatiko hiru baserrietan eta Arrasateko batean egin dute sor-marka horretako txakolina. Oñatin, Upaingoan prestatzen ari dira aurtengoa. Murgialdai baserrikoek izen bereko txakolina merkaturatuko dute eta Zañartu auzoko Belaskuan, etxearen izen berekoa. Azken bi baserrietako txakolingileek adierazi dute aurtengo uzta oro har "txarra" izan dela, maiatz inguruan izandako txingorrek "kaltetu" egin zuelako. Arrasaten, Egihandi baserrian Kataide txakolina ari dira prestatzen, eta Otxiakoa, aldiz, aurten ez dute egin.

eta oso aromatikoa. Txinparta aldetik, gainera, "puntuan" egongo dela uste du.

Mahaietan zerbitzatu

Sagardotegian jarduteko modua ere aldatu egin beharko dute aurten, Osasun Sailak ezarritako neurriei jarraiki. Hala, bezeroak ezingo dira sagardo bila kupeletara hurbildu, eta, horren ordez, mahaietan zerbitzatu dituzte pitxerrak. Nahiago duenak botilan ere eskatu ahal izango du sagardoa: "Botila gardenak izango ditugu bezeroen eskura, era horretan, sagardoaren kolorea ere apreziatu dezaten", azaldu du Peciñak. Horretaz gain, kupela bakoitzaren alboan panel informatiboak jarriko dituzte, barruan dagoen sagardoaren ezaugarriak azalduz.

Berrikuntza horiek inflexio-puntu bat izango direla sinetsita dago Juanjo Peciña, eta uste du aurtengo denboraldiak "aukera" eskainiko diela bezeroekin inoiz baino tratatu gertukoena izateko: "Tartea izango dugu mahaietara hurbildu eta bezeroekin hartu-eman izateko, sagardoaren ezaugarrien berri emateko... Oro har, Euskal Sagardoaren kultura hedatzeko".

Sagardo aparduna dastagarri

Mendibitxu eta Iturrieta sagardoa, sagar-zukua, ozpina eta etxeko irasagarria (membrilloa) eskaintzen dituzte Iturrietan, eta aurten, estreinakoz, sagardo aparduna izango dute eskaintzan. "Hori egiteko, xanpainaren an-

tzeko prozesua jarraitzen du sagarrak", zehaztu du Juanan Aretxaga sagardogileak. Horretaz gain, "ardo onduaren gisako" sagardo bat egin gurako lukete etorkizunari begira, eta horretan "lanean" ari dira biak.

Eskaintzen dituzten produktu horiek guztiak sagardotegian bertan erosteko aukera izango da aurten, horretarako egokitu baitute sagardotegian txoko bat. www.iturrieta.eus webgunean ere eros daitezke, bestela.

Sagardotegiko otorduaz gain, inguruaz gozatu ahal izateko oinez egiteko ibilbideak prestatu dituzte sagardogileek. "Asmoa da gura duenak mendi ibilbide-txo bat egitea, eta Iturrietan otordu eder batekin ematea horri amaiera", diote.

1,2 milioi litro Euskal Sagardo

Euskal Sagardoa jatorri izen elkarteak adierazi du ia bi milioi kilo sagar bildu dituztela Euskal Sagardora bideratutako sagastietan eta 1,2 milioi litro egin direla horiei esker. "Iazko uzta handiari aurten txikiagoa zetorkiola jakinekoea zen, baina Euskal Sagardoa jatorri izenak ez zuen hain uzta txikia espero", aitortu dute. Horri lotuta, sagardo sektoreak osasun krisiaren eraginez 15 milioi eurotik gorako galerak izan dituela azaldu dute, eta egoerari "buelta" emateko ahaleginetan ari direla. Horretarako, Euskal Sagardoa online erosteko plataforma berria ahalbidetu dute www.euskalsagardoa.eus webgunean, eta bertan 53 Euskal Sagardo eros daitezke -tartean, Iturrietakoa-. Ildo horretatik, produktua erosi eta sagardotegietara joateko gonbita egin diete Aretxagak eta Peciñak herritarrei, "neurri guztiak hartuta, sagardotegiak toki seguruak direlako".

NOBEDADE GISA, ESKAINTZA BARRUAN SAGARDO APARDUNA IZANGO DUTE AURTEN ITURRIETAN



Oñatiko pentsiodunak, astelehenean, 2021eko lehen elkarretaratzea egiten. OIHANA ELORTZA

Hirugarren urtea "pentsio duinak" aldarrikatzen

Askotariko ideologietako pentsiodunak indarrak batzen hasi ziren, 2018an, helburu partekatu baten alde egiteko. Astelehenetako elkarretaratzeak, manifestazioak eta bestelako ekimenak antolatu izan dituzte, eta "antolatzen jarraitzeko gogoz" daude

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

"Pentsio duinak" eskatzeko kale agerraldiak egiten hasi ziren pentsiodunak, herrika, duela hiru urte. Eta oraindik jarraitzen dute. Aste honetan egin dituzte urteko lehenak, eta hirugarren urteurrena aipatuz hasi dituzte. Horrela izan da Oñatin, Arrasaten, Bergaran eta Antzuolan, adibidez.

Duela hiru urte –urtarrilaren 15ean beteko da hirugarren urteurrena– hasi zituzten mobilizazio horiek pentsiodunek, herrika. PP zegoen Espainiako Gobernuan orduan, eta Fatima Bañez, Lan eta Gizarte-segurantzako ministro. Pentsioak %0,25 igotzea proposatu zuten. Ez zitzaizen batere ondo iruditu, eta orduan hasi ziren elkarre-

taratzeak egiten. Igoera KPIaren bestekoa izatea eskatu zuten. Harrezkero, gauza batzuk lortu dituzte, KPI erreala onartzea, adibidez, nahiz eta oraindik lege barruan sartzea falta den. "Egin behar dena da legez blindatzea pentsioen igoera. Gobernu prest egoten da horiek igotzeko, betiere, aldagai batzuen arabera. Baina guk KPI erre-

laren araberrako igoera aplikatzea nahi dugu, legez blindatua; ez unean-unean Gobernuak duen borondatearen araberrakoa", azaldu zuen astelehenean Oñatiko pentsiodunen taldeko Xabier Oregik.

Duela hiru urte hasitako elkarretaratzeekin, "pentsio duinak" eskatzea izan da aldarri nagusia; gutxienerako pentsioa 1.080 eurokoa izatea, Eskubide Sozialen Kartak jasotzen duen moduan, baina oraindik ez dute lortu. Eta aldarrikapen horrekin jarraituko dute aurrerantzean ere, astelehenero, kale agerraldietan. Diote Espainiako Gobernuaren eskumena izan arren Eusko Jaurlaritzak ere egin dezakeela ahalegina pentsioak osatzeko. Alargunen pentsioak, genero arrakala eta zahar egoitzen egoera dira dituzten beste kezketako batzuk. Horri, argindarraren prezioa igotzeko Espainiako Gobernuak duen asmoa gehitu zaio; igoera hori ere salatu dute. "Oraindik badago jendea etxean hotza pasatzen ari dena neguan. Egun hauetan, are gehiago. Ez dute berogailua pizten ez dutelako hura ordaintzeko modurik. Hain zuzen, alargunen %50 ez dira heltzen hilean 600 euroko pentsioa jasotzera. Hala, hainbat aldarrikapen betetzea derrigorrezkoa da guretzako, egunero bizitza duina izateko ezinbestekoak direlako".

Urteko lehen elkarretaratzeak

74 lagun batu ziren astelehenean Oñatiko Herriko plazan egindako elkarretaratzean. Arrasaten, Antzuolan eta Bergaran ere egin zituzten. Bergarakoan, esaterako, goraipatu egin zuten euren "meritua eta indarra" asterikaste euren aldarrikapenak egiten ibiltzeagatik; 90 lagun elkartu

ziren San Martin plazan. Aurrerantzean ere horrela jarraituko dutela esan du bertan izan zen Itziar Usandizagak. Mobilizazioen egutegia prest dutela dio; adibidez, otsailaren 13an herrialdeka egingo den kale agerraldia. Mobilizazio horiek nola egin pentsatzen eta antolatzen hasiko dira, atzo LABik emandako azken neurriak kontuan hartuta.

"Jarraitzeko gogoz"

Hiru urteko epea igaro dute aldarrikapenak egiten, baina bailarako pentsiodunen talde nagusiak ez daude erlaxatzeko gogoz. "Inoiz baino indartsuago gaude, eta inoiz baino behar handiagoak ditugu kaleak aldarrikapenez betetzeko: Toledoko Ituneko 22 gomendioak ez dira indarrean jarri, emakume eta gizonezko pentsiodunen artean sekulako arrakala dago eta ez da ezer egiten hori konpontzeko, Espainiako Gobernuak ez du ezer egiten 1.080 euroko pentsioa bermatzeko, ezta Jaurlaritzak ere... Beraz, Gobernuan dagoena dagoela, pentsio duinak aldarrikatzen jarraituko dugu", adierazi du Bergarako pentsiodunen bozeramaile Itziar Usandizagak.

"Arrasaten ere jarraitzeko gogoz gaude. COVID-19a agertu zenetik jende gutxiago elkartzen gara, normala den legez, baina, hala ere, gure aldarrikapenak egiteko beharrak hor jarraitzen du", adierazi du Arrasateko pentsiodunen elkarteko Alberto Kabiketak.

HIRU URTE PASA DIREN ARREN ALDARRIKAPEN GEHIENAK BETE GABE DAUDELA DIOTE

Ez aspertzeko moduko egitaraua lotu du Goienagusi elkarteak

20 hitzorduko egitaraua da; oraingo astelehenean, Andoni Egaña bertsolariak hitzaldia egingo du

X.G. DEBAGOIENA

Kulturarekin lotutakoak, hizkuntzei buruzkoak, zientzia ardatz dutenak... Gustu guztiak asetzeko egitaraua antolatu du Goienagusik. Guztira, hoge hitzordu prestatu dituzte: aste-

lehenetan eta asteazkenetan egingo dituzte, 10:00etatik 11:30era. Batzuk, Arrasateko Kulturaten; eta beste batzuk, Bergarako Seminarixoan. Astelehenean izan zen lehena, Juan Jose Iruin kimikan adituak

perfumeei buruz egindako solasaldia. Asteazkenean, Zarauzko Musika Eskolako zuzendari Marina Lertxundik orkestra sinfonikoei buruzko lehen hitzaldia egin zuen –hiru egingo ditu, guztira–. Datozen asteetarako hau da menua: urtarrilaren 18an, astelehena, Andoni Egañak *Bertsolaritza: bizitzeko beste modu bat* izeneko hitzaldia egingo du, Kulturaten; urtarrilaren 20an eta otsailaren 3an, orkestrei buruzko bigarren eta hirugarren saioak egingo ditu Marina Ler-



Andoni Egaña bertsotan. GOIENA

txundik, Kulturaten; urtarrilaren 25ean, pandemiatik atera beharreko irakasgaiei buruz mintzatuko da Deustuko Unibertsitateko irakasle Xabier Barandiaran, Kulturaten; eta urtarrilaren 27an, Bong Joon-ho zine zuzendariaren *Parásitos* filma aztertuko du Pedro Saldaña zine aditu katalanak, Seminarixoan. Hitzaldi guztiak Goienagusiren Youtube kanaletik jarraitu daitezke zuzenean, eta euskarazkoak Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en ikus daitezke.

ikastolak

HEZKUNTZA ERALDATZEN



Urtarrilak 18 - 29
Matrikula zabalik



Prekariatatea gaztelekuan

AINHUA AZAROLA, JOSU IRURE, ALAITZ MENDIETA ETA JON CANO

ARETXABAETA

Aretxabaletako gaztelekuko langile-hezitzaile gara, eta gure lanpostuekin eta zerbitzuarekin Udalak hartu duen erabakia salatzeraz gatz.

Gozamenetik, 13-17 urte bitarteko nerabeei hezkuntza ez-formala eskaintzen diegu 2005etik. Egun, 200 gazte daude gurean astebururo.

Martxoko itxialdiarekin, zerbitzua eten egin zuen herriko Udalak. Ez zuen beharrezko ikusten, Eskoriatzako eta Oñatiko kasuetan ez bezala. Gu, horren aurrean, hautu pertsonal moduan gazteen alboan egon ginen, digitalki, sinesten dugun horri eutsiz.

Kanpo faktoreen ondorioz izan zenez, Udalarari indemnezioa eskatu ahal izan genion.

Ekainean eta uztailean kontratua aktibatu egin zen; nahiz eta gaztelekua ez ireki, kalean egin genuen lan hezitzailea. Ordutik, lan digitala areagotu egin dugu, posible dela erakutsiz.

Udalak udalekuekiko, lan hezitzailearekiko izandako apusturik eza eta utzikeria ikusita, eskerrak eman nahi dizkiogu Loratu egitasmoari, bere lan eta herri antolamenduari esker Udala presionatu eta uztailean udalekuak gauzatzeagatik.

Udala parte den Foru Aldundiaren Gaztematika Sailak zerbitzu digitalaren gaineko apustua egiten du, eta honen baitan formatzen gabiltza, plan digital bat eratzen, modu kontziente eta jasangarrian. Aldiz, Udalak, kontraesankor, ez du honetarako aukerarik uzten.

Abenduan zerbitzua lehiaketara irten, eta baldintzak guztiz aldatu ziren. Orduka fakturatuko da, eta dekretuz gaztelekua itxiz gero lau langile kalean geratuko dira. Zein mailatako langileak gara Udalarentzat? Gazteak espazio gabe

gelditzen dira. Zer leku ematen zaie? Zein mailatako herritarrak dira?

Haurren eta nerabeen eskubideen alde egotea oso modan dagoen garaian, Udalak horrelako lehiaketa prekarioak ateratzen ditu. Ez dugu ezer ulertzen!

Arrazoi ekonomikoaren argudioak ez digu balio; ez gara gastua, inbertsioa baizik. Gastua Gabonetako argiak dira: 8.000 euro = gazteleku zerbitzua hilabete eta erdi martxan = lau langile –gazte– lanean = 200 gazte hezkuntza ez-formal bideratua jasotzen.

Pandemiak ez du dena baimentzen. Aldatzeko prest gaude; adi mobilizazioei!

Eskerrrik asko!

IBON GEZALAGA

ANTZUOLA KIROL ELKARTEAREN IZENEAN ANTZUOLA

Eztala futbol zelaiaren eraldaketa esanguratsuenetako bat 2016an suertatu zen, futbol eskolaren sorrerarekin. Honekin batera, 300 pertsonaren joan-etorriak pairatu behar izan ditugun aste bukaerak izan ditugu; hasieran, propio geneuzkan bi aldagelekin –pilaketak eginez, biltegian arropa aldaketak eginez...-. 2017an, pitzadurak hasi ziren; ardura handia izan genuen garaia izan zen, betiere, zer edo zer gerta zitekeelakoan. Itxura ere ematen ez genuen ardura ere bagenuen; zer esango ote zuten kanpotik etortzen zirenek? Hala ere, dena irteteko konpromisoarekin, geneuzkan baliabide guztiak –juntakide, guraso, gazte eta ume– dantzan jartzen genituen, eta nik uste dut egoera guztiak gainditu genituela.

Horren lekuko, horra hor gaur egun dauzkagun aldagelak.

Horregatik, eskerrak eman nahi dizuet:

-Pazientziak egoera hau ulertu eta onartu duten erabiltzaile guztiei; ume, gazte, guraso, bertako eta

kanpoko erabiltzaile guzti-guztiei.

-Eskerrak aldagela berri hauek lortzeko bertan lanean fisikoki murgildu zaretan langileei eta profesionali.

-Parte hartu duten erakunde guztiei.

-Eta, nola ez, ordaindu ezin den eta jardunean momentu oro AKERen ametsak aurrera jarrai dezan lanean dabilten pertsonen, honen guztiaren arrazoa zaretelako.

Eskerrrik asko, eta gora AKE!

Txalo bero bat GSR Debagoiena egoitzako langileentzat

AITOR ALBERDI

BASOTXOKO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN IZENEAN ARETXABAETA

GSR Debagoiena egoitza, gure herrian dagoena, sarritan agertu da azken egunotan kutsaduretan eta heriotzetan nabarmentzen den egoitza bezala, bizitza zailtzen ari zaigun birus ospetsuaren ondorioz. Gure *normaltasunean* sartu zen birusa, gure errutinak aldatu zituen, eta gure harreman sozialen arlo guztiak zaildu. Gure elkartasuna adierazi nahi diegu egoitzako langile guztiei eta, jakina, egoiliarrei eta haien senideei. Izan ere, oso egoera delikatu gaude, konpromiso handiko egoeran: *zomorroaren* gune hartzaile izan da egoitza; indartsu sartu da bertan; egoera benetan zaila eragin du.

Pandemia garai honetan sartu baino askoz lehenago, aukera izan genuen egoitzaren funtzionamendua ezagutzeko, egoiliarren eta haien senideen sentimenduen berri izateko, eta herriari zerbitzu ematen dion egoitzaren funtzionamendua ere ezagutzeko. Haren abantaila asko eta lan ona ezagutu genituen, eta zenbait ahulezia hauteman genituen; gure sentitzeko moduaren berri eman genien. Aretxabaleta Lagunkoia bere koordinazio-taldearekin harremanetan

dago, eta saiatzen ari gara erakunde horren etorkizun hurbilari eta bere abantailen buruz eztabaidatzeko batzar ireki bat hitzartzen.

Ohar honen bidez, basotxoko Zuzendaritza Batzorde honek elkartasuna adierazi nahi die, bereziki, arazoa gainditzeko egoitzan bertan borrokan ari diren langileei.

Zubitxako eskolako orubea dela eta...

JOXE SANCHEZ

ZUZENDARITZA TALDEAREN IZENEAN BERGARA

ZubietaBerri elkarteak bultzatzaileok honako hau adierazi nahi dugu:

-Gure elkartearen lehen helburua Zubieta kaleak bizi duen degradazio urbanistikoari bere osotasunean buelta eman eta irisgarritasuna bermatzea dela. Eta, bide horretan, kalea konpontzeko obrak 2021an hasteaz gain Udalarekin prozesu bat adostuta daukagula. Lanak hasi aurretik ekarpenak egiteko aukera emango diguna eta, ahal den neurrian, kontuan hartuak izango direnak.

-Eskola zaharraren orubeari dagokionez, irisgarritasun parametroak betetzen ez

dituen heinean, hau da, erabili eta gozatzeko herritar guztion eskubidea bermatzen ez den bitartean, guk ez daukagula bertan inongo ekintzarik abiarazteko asmorik. Eta kalea berritzeko ikuspegi integral batetik, orube horren berrantolaketa baten aldeko apustua egiten dugula. Irisgarritasuna ziurtatu eta aisialdia lehenetsiz, horretarako kale osoan daukagun gune bakarra dela sinetsita gaudelako. Eta hala azaldu genuela jadanik 2019an hedabide honetan bertan eta udal osoko bilkuran, orubean etxe berriak egiteko proposamenaren aurrean.

-Bertan aurrera eraman ahaliko diren dinamika desberdinen inguruan, udal orube eta eraikinen kudeaketaren arduraduna Bergarako Udala denez, dinamika horiek zehazteko prozesu parte-hartzaile bat martxan ipintzea proposatzen diogula. Ahalik eta irekiena. Inguruko bizilagunak – Zubieta, Mugertza eta San Lorentzo–, interesa duten herriko eragile guztiak eta Udala bera aintzat hartuta. Ahalik eta adostasun zabalena lortzera bideratuta eta interes orokorra aurretik ipinita.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Ildatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

Konfiantzaz

ZATOZ IKASTOLARA!

Ate irekiak talde txikietan egingo dira.
Txanda hartzeko eman izena webgunean
edo 943 77 20 25 telefonora deituta.

www.arizmendi.eus

**MATRIKULAZIO
EPEA
ZABALIK**

URTARRILAREN
18tik 29ra



Ametsak
Betetzeko
Dandelako!

KONFIANTZAREN
PEDAGOGIA

HAUR HEZKUNTZA

erdu
PROIEKTUA
0-4 urte

ATE IREKIAK

URIBARRI ☉	urtarrilak	20 (asteazkena)	17:30	Arrasate
		27 (asteazkena)	17:30	
OLARTE	urtarrilak	21 (osteguna)	17:30	Arrasate
		26 (astearte)	17:30	
		27 (asteazkena)	17:30	
SANTA TERESA (2-6 URTE)	urtarrilak	19 (astearte)	17:30	Arrasate
		20 (asteazkena)	10:00-11:00 11:30-12:30	
		21 (osteguna)	14:30-15:30 15:30-16:30	
		24 (astearte)	17:30	
		26 (astearte)	11:30-12:30	
UMEZAINZA ☉	urtarrilak	19 (astearte)	17:30	Arrasate
		21 (osteguna)	17:30	
		25 (astelehena)	17:30	
		26 (astearte)	17:30	
BASABEAZPI (2-6 URTE)	urtarrilak	15 (ostikala)	17:30	Arexabaleta
		18 (astelehena)	17:30	
		19 (astearte)	17:30	
		25 (astelehena)	17:30	
JOSE ARANA ☉	urtarrilak	19 (astearte)	17:30	Eskoriatza
		21 (osteguna)	17:30	
		24 (astearte)	17:30	
		25 (astelehena)	17:30	



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Arizmendi Ikastola ikastetako Udai Zerbitzu
(0-3 URTE)



ESKORIATZAKO
UDALA

Arizmendi Ikastola ikastetako Udai Zerbitzu
(0-3 URTE)

LEHEN HEZKUNTZA

gura batu
PROIEKTUA
6-10 urte

ATE IREKIAK

SANTA TERESA	urtarrilak	25 (astelehena)	09:15-11:15 / 15:00	Arrasate
ALMEN	urtarrilak	20 (asteazkena)	10:00 / 15:00 / 18:00	Eskoriatza
ARIMAZUBI + GAZTELUONDO	urtarrilak	25 (astelehena)	15:00 / 17:30	Arrasate (Arimazubi)
		27 (asteazkena)	10:00 / 15:00 / 17:30	

★ Gai nontzeko kursoetarako jarri harremanetan bilera eskatzeko:

S. Teresa (Iban Roa: iroa@arizmendi.eus)
Almen (Aritz Oianguren: aroianguren@arizmendi.eus)
Arimazubi (Dorleta Arana: daranao@arizmendi.eus)
Gazteluondo (Wigo Alzola: lalzola@arizmendi.eus)

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

batu izen
PROIEKTUA
10-14 urte

ATE IREKIAK

GAZTELUPE	urtarrilak	20 (asteazkena)	17:30	Arrasate
------------------	------------	-----------------	-------	----------

BILERA INFORMATIBOAK DBH 1

ALMEN	urtarrilak	26 (astearte)	18:00	Online
GAZTELUPE	urtarrilak	18 (astelehena)	17:30	Online

★ DBH 2-3-4 kursoetarako jarri harremanetan bilera eskatzeko:

Almen (Unai Busturia: ubusturia@arizmendi.eus)
Gaztelupe (Elena Erasti: erasti@arizmendi.eus)



ZABALIK

AMAGOIA LASAGABASTER

Ez da pandemia, sindemia da

Urte berri, zaharrak berri. Ondo borobiltzen du esaldi horrek egungo panorama tristea. Gure agintariak koronabirusa bukatu baino gehiago izurritearekin *elkarbizitza* erabaki zuten momentutik bagenekien hau luzerako joango zela, eta halaxe doa. Txertoak ematen du ilusio apur bat, baina ikusi egin behar noiz, zenbat, norentzako, ze efikazia...

Irakurri dut nonbait hau ez dela pandemia, sindemia baizik. Hau da, krisi ezberdinen sinergia dela. Hezkuntzak, elikadurak, lanak, etxebizitzak eta horrelako eragileek eta faktoreek bat egiten dutela. Beharbada, gure agintariak hori guztia kontuan hartuko balute, hobeto asmatuko genuke krisiaren irteeran. Adibidez, langile prekarioak ez du langabezian gelditu nahi eta horregatik ez du bere lana utziko, kutsatuta egonik ere. Bestalde, beste erremediorik

HEZKUNTZAK, ELIKADURAK, LANAK, ETXEBIZITZAK ETA HALAKO ERAGILEEK BAT EGITEN DUTE

gabe beste zazpi lagunekin etxe berean bizi den emakume etorkinak arrisku gehiago izango du kutsatzeko. Norbaitek esan zuen birus honek guztiok berdintzen gintuela; bada, ez dut uste horrela denik, ezta

gutxiago ere. Agerian gelditu dira, beste behin, gizarte bereko klase sozialen eta ekonomikoen arteko desberdintasunak.

Kontuan hartzeko beste faktore bat da ingurumena eta *gizaki-termitok* egiten dugun naturaren ustiaketa basatia. Horrek ere zerikusi zuzena izan du sindemia honetan. Hegaztien eta txerrien gripeak, *behi zoroak*... ahaztuta izango ditugu gehienok, baina horiek eman ziguten lehenengo abisua... eta, zer esanik ez, berotegi efektuaren ondorioez... Oraindik asko daukagula ikusteko iruditzen zait. Ez naiz zientzialaria, baina argi daukat, gauden puntuan, agintariei baino fede handiagoa diedala horiei. Gehiago entzun eta gehiagotan kasu egin beharko genieke.

Aspaldi idatzi barik neukan zutabe hau, eta ez nuke lehenengoa mezua katastrofista eta tristea izaterik nahi. Plan handiak ditut 2021erako: lehen, optimismoa galdu barik zoriontsu izatea! Ahalegindu gaitezen denok.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Erraldoi-ehizan

ANDER IZAGIRRE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Mantxako gidari turistiko batek irratian kontatu zuenez, bisitari japoniar batek galdera hau botu zion: zehazki zein errotaren kontra abiatu zen Kixote, aurrean erraldoi bat zuelakoan? Gidariak, harrিতuta, Kixoteren istorioa fikziozkoa zela azaldu zion. [...] Baina japoniarrak hezur-haragizko zaldun zoro batek kolpatutako harrizko errota zehatz bat behar zuen, errealitate fisiko, historiko eta ukigarri bat. Eta gidariaren erantzunak ilusio hori zapuztu zion. Orduetik, turistaren batek Kixotek eraso zuen errota zein

den galdetzen diorean –eta sarritan galdetzen omen diote–, gidariak edozein errota seinalatzen die. Bisitariak argazki-bonbardaketari ekiten diote orduan.

Antzeko erantzuna eman behar izan zuen Alacanteko nire lagun Antoniok. Bi lagun taiwandar ekarri zituen Donostiara bisitan, Haizearen Orrazitik hasi, Kontxako badia oinez inguratu, Alde Zaharra zeharkatu eta paseoa Zurriolako hondartzan amaitu arte. Taiwandarrek mesede bat eskatu zioten Antoniori: hiria oso polita zen, bai, baina *basque* bat ikusteko irrikaz zeuden. Nora joan behar zuten gida-liburuek aipatutako etnia misterioitsu horretako kideren

bat ikusteko? Antoniok Zurriolako zubira eraman zituen eta han, paseatzen ari zen jendetzaren artean, kanaberari heltzen zioten arrantzale txapeldunak erakutsi zizkien: horra, euskaldunak. Taiwandarrak arrantzaleei argazkiak jo eta su ateratzen hasi ziren, grina antropologikoz.

Agian, etxera itzuli zirenean, Kixotek eraso zuen errotaren argazkia erakusten duenaren ilusio berarekin erakutsiko zituzten taiwandar haiek arrantzale euskaldun exotikoen irudiak. Hori baita mundu osoko turistok berdintzen gaituena: errotak eta erraldoiak gogo biziz nahasten ditugula.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Gaztetxoak desiratzen daude eskola-kirola berriz hasteko"

SUSANA SANTOR LEINTZ ESKOLA KIROLEKO KOORDINATZAILEA

Xabi Gorostidi ARRASATE

Azaro hasieran aktibitatea etetera behartu zituen Jaurlaritzak onartutako dekretu batek. Aste honetan LABIk hartutako neurri berriei esker, berriz hasiko dira zerbitzua eskaintzen; 931 gazterekin egiten dute lan. **Nola hartu duzue LABiren erabaki berria?**

Bagenuen esperantza aktibitatea berrartzeko, eta, azkenean, heldu da. Asteazkenean hasi ginen gure eskaintzarekin; betiere, gorritz ez dauden herrietan. Gazteak desiratzen zeuden eskola-kirola berriz hasteko. Behar dute: sozializatzeko, jarduera fisikoa egiteko eta euskaraz jarduteko.

Zenbat langile zarete eta nola eragin dizue aktibitatea eteteak?

Bost koordinatzaile gara, eta 48 monitore. Koordinatzaileok lanean jarraitu dugu proposamen tekniko eta ludikoak egiten, baina monitoreek, tamalez, ERTEra jo behar izan dute.



Susana Santor, Musakolako Herri Eskolako patioan. S.S.

Irailetik hona, eskola-kirola segurua dela defendatzen aritu zarete. Hala ez dela uste duen bati, nola azalduko zenioke?

Hainbat arrazoiengatik. Baina pisutsuenetako bat da ikastetxeek ezarritako

protokolo berak ezartzen ditugula. Hala, neurri berberak aplikatzen ditugu, eta ikastetxean ezartzen diren bizikidetzat taldeak ere mantentzen ditugu gure saioetan. Materialak etengabe

desinfektatzen ditugu, seiko taldeak egiten ditugu, gehienez, kontaktu fisikorik gabeko jarduerak egiten ditugu, maskarak jarrita aritzen gara denok, monitoreek COVID-19ari aurre egiteko formakuntzak jasotzen dituzte... Aldundiak eta Jaurlaritzak ezarritako neurriak zorrotz aplikatzen ditugu, ahalik eta zerbitzu seguruen eskaintzeko.

Azarotik hona ez zarete geldiegon. Zertan aritu zarete Leintz eskola-kirolean?

Bigarren olatuko geldialdi hau ezberdina izan da lehen olatukoaren aldean. Oraingo honetan, haurrek eta gazteek kalera irteteko aukera izan dute, eta, hori baliatuz, kalean eskola-kirola euren kabuz egiteko ideiak eta proposamenak helarazten aritu gara; bai gazteei, eta baita gurasoei ere. Lehenik eta behin, neurri buruzko informazioa helarazi genien, ondo jakin zezaten zein aktibitate mota egin zezaketen eta zein ez. Ostean, adibidez, herririk herri erabilgarri dauden aterpeei buruzko informazioa bidali genien, ariketa fisikoa egiteko herriko zein gune erabili zezaketen jakiteko.

Aktibitateak eta jolasak proposatzen ere ibili zarete?

Bai. Herririk herri dauden aterpeak zehazteaz gain, horietan egin daitezkeen ariketak ere aipatzen genizkien: patinajea frontoietan, txapa-jolasak, *Lurra, Aire, Itsasoa, Kolore-kolore* eta estilo horretako jolasak... Gainera, guk proposamenak egin arren, gazteek sekulako gaitasuna dute jolas berriak asmatzeko, eta horiekin are gehiago gozatzen dute.

12 ikastetxe, 12 tontor izeneko ekimena ere jarri zenuten martxan, eta erantzun paregabea izaten ari da...

Hala da. 151 gazte dira orain arte parte hartu dutenak, eta oso pozik gaude. Guztira, 740 tontor egin dituzte orain arte. Tontorretara igotzean, Leintz eskola-kiroleko kamisetarekin argazkia atera eta guri bidaltzen digute. Bada dagoeneko hamabi tontor osatu dituenik ere. Hamabi tontor osatzen dituztenek saria jasoko dute, eta sei egiten dituztenek ere sorpresa bat jasotzea nahi dugu.

Erritmo honetan, opari zaku ederra beharko duzue...

Bai; kar, kar, kar. Asko izango dira saria lortuko dutenak, eta, horiek guztiak oparia izan dezaten, opari mota posibleak aztertzen ari gara une honetan.

ITURRI ONETIK

Angiozar, Toki Entitate Txiki izateko lanean

Angiozarko Bailarak Toki Entitate Txiki izendapena lortzeko lanean dihardu, Itziarrek (Deba) eta Ereñozuk (Hernani) duten moduko izaera edukitzeko. Horretarako, Foru Araua aldatu behar dute, besteak beste, baldintza delako 500 biztanle baino gehiago edukitzea, eta Angiozarrek 300 inguru dauka. PPrekin izan ezik, Batzar Nagusietako eta Bergarako udalbatzako alderdiekin batu dira, eta borondate ona ikusi dute. Gipuzkoako Batzar Nagusietan aztertuko dute gaia, 22an.

ALBISTE IZAN ZEN

2006-01-12

Autobideko azken zatiaren lehen harria jarri zuten

AP-1 autobideko azken zatiaren lehen harria jarri zuen Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak -Arrasate eta Eskoriatza artekoa-. Harekin izan ziren Arrasateko eta Aretxabaletako alkateak -Inazio Lakuntza eta Arritxu Oliden- eta Nestor Arana Bidegiko zuzendaria. 106 milioi euroko aurrekontuarekin, 6,3 kilometroko tartea izan zen, hiru zubidarekin eta bi tunelekin. 2009an amaitu zen azken zatia eta autobide osoa.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Sare sozialak ere, txuri-urdira jantzita

Penaltietan Bartzelonaren aurka galdu zuen Realak eguaztenean Superkopako finalerako txartela:

@erikgartzia: "Reala penaltietan. Inoiz iritsiko ez zela uste nuen momentua".

@benatmugika: "Futbolak itzuliko digu gaurkoa. Ziur naiz. Beti Reala".

@RealSociedadEUS: "Amestu genuen. Sinistu genuen. Gure taldea. Hau da Reala".

@maitaneurbieta: "Ze pena! Ur ertzean ito gara. Hala ere, beti bezala, Aupa Reala!".

@iraitzastarloo: "Ezin harroago egon! Garaipenean eta porrotean, beti Reala bihotzean".

Brigada txiki berri bat, "herritarrei laguntzeko"

Enplegu sustapen planaren baitan, 28 langabe kontratatu ditu Arrasateko Udalak, eta sortu duen brigadetako bat, eraikin garbitzaileekin batera, 'herritarren laguntzaileena' da, herritarren eta Udalaren arteko bitartekari lanak egingo dituen, besteak beste

Eneko Azurmendi ARRASATE

Zortzi langilek osatuko dute *herritarren laguntzaileen* brigada txikia, gizonezko batek eta zazpi emakumezkoak, eta haien zeregina izango da, Zigor Andino udaltzainburuaren esanetan, Udaltzaingoari laguntzea ikastetxeetako sarreretan eta irteeretan, herritarrek egin diezaizketen keak jasotzea eta udal kontuen gaineko informazioa ematea, baldin eta herritarrek eskatzen badiete. Horrez gain, bide publikoetan ikusten dituzten gabezien berri ere emango diote Udalari. "Azken batean, Udalak kalean izango dituen begi eta belarri batzuk bezala dira", gaineratu du Maria Ubarretxena alkateak. Jardun osora egingo dute lan, lau langileko bi txandatan, 07:00etatik 14:15era eta 13:00etatik 20:15era.

Bost langile, eraikinak garbitzen

Eraikin garbitzaileen brigada ere berria da. "Pandemiaren eraginez, eraikinak garbitzeko eta desinfektatzeko brigada bat ere sortu dugu", azaldu du alkateak. Hala, udal eraikinen garbiketa bereziak egingo ditu bost langilez osaturiko talde horrek, "COVID-19aren ondorioz sorturiko garbiketa behar puntual berriei" aurre egiteko.

Beste hiru brigada txiki ere bai

Baso eta erreketako langileen brigadak, bestalde, taldeko burua eta beste sei langile izango ditu eta hauek izango dira haien zereginak, besteak beste: "Errekan pilatutako zaborra atera, landare inbaditzaileen kontrola, zuhaitz landaketak eta inausketak, lursailen arteko mugarriak jarri, natura bideen sarearen mantentzea, eta abar".

Bestalde, lau langile arduratu dira lorezaintzaz. "Belarguneetan eta txorkoetan dauden zuhaitzetan eta zuhaixkak dauden gunetan lanak egingo di-



Brigada txikietako hainbat langile, astelehenean, Herriko Plazan. E.A.

28 KONTRATAZIO EGIN DITU UDALAK ETA HORIETATIK 26 BOST BRIGADA TXIKITAN BANATUTA DAUDE

tuzte, ondorengo mantentze-lanak errazteko".

Azkenik, bi pintore kontratatu ditu Udalak, eta herriko altzariak, seinalizazioak eta udal baliabideak margotzea izango da haien lana, nagusiki.

Bost brigada txikiez gain, halaber, turismoko teknikari bat eta Euskaltegiko Moodle plataformako kudeatzaile bat ere kontratatu ditu Udalak.

Hamaika kontratazio gehiago

COVID-19aren krisia dela-eta esfortzua "bikoiztu" egin dutela dio alkateak, eta kontratu kopurua handitu. Izan ere, 2020-2021 enplegu sustapen planean 28 kontratu egin ditu -2019-2020ko planean 17 kontratu egin zituen-. Bestalde, hainbat baldintza bete behar izan dituzte herritarrek lanpostua eskuratu ahal izateko, eta egoera zaurgarrian daudenek

lanpostu bat izateko aukera izatea lehenetsi du Udalak. "Lana sustatzeko kontratazioak dira eta Lanbidetik ere laguntza jasotzen dugu. Kontratazioen helburua da langileek esperientzia bat irabaztea eta lan-munduraztea erraztea, etorkizuneko lan baterako laguntza modura", adierazi du Ubarretxena.

Urtarrilaren 4an hasi ziren lanean langile guztiak, eta bost hilabeteko kontratua dute.

Enplegu planaren zati handi bat

Zortzi lerroz osatuta dago 2020-2021eko enplegu plana, 665.328 euroko aurrekontua duena, eta horietatik 417.828 euro bideratu ditu Udalak langabeen kontratazioetara: %62,8. Gainontzekoa beste arlo batzuetara bideratu du: Arrasateko enpresetan herriko langabeak kontratatzeke dirulaguntzak -87.500 euro-; titulatu berrien laneratzeko ekimenak -7.000 euro-; enpresa berrientzako dirulaguntzak -35.000 euro-; langabeentzako ikasteko laguntzak -30.000 euro-; ekonomia suspertzeko ekitaldiak -15.000 euro-; ekintzailetzaren sustapena -23.000 euro- eta lanerako prestakuntza -50.000 euro-.



NIRE USTEZ

IBON ARRUPE

Arrasateko abeltzainei, eskerrik asko!

"Kurtzetxikiko tontorra zoragarri dau!". Azkenaldi honetan Arrasateko kaleetan bor-bor entzuten den komentarioa da. Orainsu arte, batez ere, udaberriaren eta udazkenaren artean gozatu ahal izan dugu bertaraten ginen guztiok, eta poz handiz ikusi dugu urtetik urtera bertan gurutzatzen garen mendizale kopurua nabarmen handituz joan dala.

Baina, negu honetan, elurraz disfrutatzea joateko toki paregabea ere badela ohartu gara, eta hori festa! Gazte eta nagusi, tropelean jo dugu tontorrera. Eta hau guztia, gehienok ez ohartu arren, Arrasateko abeltzainek sorturiko Larragain Elkarteari zor diogu. Beraiek ekin zioten orain sei urte Kurtzetxikiko larreak berreskuratzeko lan gogorrari, galzorian aurkitzen baitziren; sail osoa goldatu, belarra erein eta mimo handiz ongarriz; urtero-urtero, neke gabe, aspertu gabe.

Eta hona hemen arrasatear guztion gozamenerako uzta. Zorionak eta eskerrik asko!



E.A.

Sinadurak, erreskatea exijitzeko

Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteari bat eginda, sinadura bilketa abiatu dute asteon Arrasateko ostalariek. "Milaka ostalaritza-lokalen biziraupena jokoan dago, eta, horrekin batera, langileen enplegua", diote. Hala, Arbolapetan, Eroskin eta herriko tabernetan jartzen dituzte sinatzeko postuak, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Jendetza batuzen zapatuan

"Jende asko eta askotarikoa" batuzen Sarek deitutako presoen aldeko mobilizazioan. "Kalera irten garenon eskariak betetzeko unea da orain, presoen etxeratzeko bidea azkartzeko. Herritarrei mobilizatzen jarraitzeko eskatzen diegu, funtsezkoa izango delako elkarbizitzaren, bakearen eta presoen etxeratzaren helburuak erdiesteko", azaldu du Sarek.



ARRASATEKO SARE

Zuhaitzak erosteko eta landatzeko aukera bihar

Zortzigarren Zuhaitz Eguna egingo dute Seber Altube plazan, baserritarren azokarekin batera, eta sei mintegi egongo dira: Arrasateko Udalatz, Zaldibarko Areitio eta Belar, Zarauzko Lurberry, Labaiengo Zubialde Beintza eta Gatikako Etxebarria

Eneko Azurmendi ARRASATE

Erosleek eskatuta, ordubete aurrreratu dute azokaren irekiera. "Asko inguruko herrietatik etortzen dira eta nahiago izaten dute jeneroa ondo begiratu, eta eguerdirako landaketekin hasi. Oso goiztiarrak dira", azaldu du Pello Garaik, Ingurumen Saileko teknikariak. Hala, 08:00etatik 14:00etara izango da zuhaitz azoka. Gaineratu du, halaber, horrelako azoka asko galtzen ari direla, baina Arrasatekoa bere izena hartzen ari dela. "Inguruko herrietan ere ezagutzen dute, eta etortzen dira". Hori dela eta, datozen urteetan mantentzearen garrantzia ere azpi-



lazo Zuhaitz Eguna. GOIENA

Enkarguak aurrez egiteko

- **Areitio.** Zaldibar. 608 87 93 52
- **Belar.** Zaldibar. 629 48 41 51
- **Lurberry.** Zarautz) 657 71 96 85
- **Udalatz.** Arrasate 690 61 08 22
- **Zubialde.** Labaien 646 63 55 24
- **Etxebarria.** Gatika 646 51 41 54

marratu du. "Oraindik badago jendea zuhaitz ezberdinak landatzeko zaletasuna daukana, eta azoka honek landare aukera zabala eskaintzen die horiei".

Oro har, fruta-arbolak, koniferoak eta basoko fruta txikiak ekarriko dituzte mintegiek. Baina izango da mintegi bitxi bat ere: Zubialde Beintza. "Antzina-ko sagarrondo barietatea ekartzen du, gaur egun lortzeko zaila dena. Hasiberrientzat barietate ona da, lan gutxi ematen dutelako eta hemengo lurrera egokituta daudelako", dio Garaik.

Landaketa Etxezarreta parkean Etxezarreta parkean egingo duten zuhaitz landaketak parte-hartze mugatua izango du eta bi talde egingo dituzte, ordutegi ezberdinetan. Lehen taldea 10:00etan hasiko da eta bigarrena, 11:00etan, Musakolako San Isidro elizan elkartuta. "Taldea bakoitzean gehienez 48 lagun joan ahal izango dira eta sei pertsonako burbuilak antolatuko dira landaketak egiteko". Beraz, ezinbestekoa izango da izena ematea, 943 25 20 18 zenbakira deituta. Telefonoz adie-

raziko diegu zenbat joango diren eta zein ordutegitan".

Landaketaren ostean, bisita gidatua egingo dute Etxezarreta parkean. "Bi biologo etorriko dira eta parke horretan aniztasunaren ikuspegitik dauden aberastasun guztiak erakutsiko dizkiete herritarrei".

Baserritarren azoka ere bai

Hileko hirugarren zapatua izanik, baserritarren azoka ere egingo da bihar, 09:00etan hasita. "Hamabost ekoizle inguru izango ditugu azokan, eta denetik egongo da: azak, porruak, kardua, espinakak, sendabellarrrak, ogia, gazta, haragi ekologikoa, egurrezko tresnak, euskal pastela, glutenik gabeko postreak, ezti, eta abar", azaldu du Nerea Lazpiur udal teknikariak.

Bi zozketa egongo dira

Hileroko zozketa, ohiko otarra, baserriko produktuen postuetan erosten dutenen artean egingo dute, eta Zuhaitz Egunaren baitako beste bat ere egingo da. Hala, mintegien postuetan erosten dutenen artean bi zuhaitz sorta zozketatuko dituzte.



MATRIKULA EPEA ZABALIK:
URTARRILAREN
18TIK 29RA.






arizmendi
ikastola



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA

<p>URIBARRI</p> <p style="background-color: #76b82a; color: white; padding: 2px;">0-3 URTE</p> <p>Uribarri etorbidea z/g.a</p>	<p>UMEZAINTZA</p> <p style="background-color: #76b82a; color: white; padding: 2px;">0-3 URTE</p> <p>San Andres, 8</p>
<p style="color: #76b82a;">ATE IREKIAK</p> <p style="color: #76b82a;">URTARRILAK</p> <p style="color: #76b82a;">20 / 27</p> <p style="color: #76b82a;">17:30</p>	<p style="color: #76b82a;">ATE IREKIAK</p> <p style="color: #76b82a;">URTARRILAK</p> <p style="color: #76b82a;">19 / 21 / 25</p> <p style="color: #76b82a;">17:30</p>

Ate irekiak talde txikietan egingo dira. Txanda hartzeko eman izena webgunean edo 943 77 20 25 telefonora deituta.

www.arizmendi.eus



Joseba Garitaonandia arrasatearra, ekimenaren sustatzailea, Malagztaina kartelaren ondoan. E.A.



Hondakinak basoan botata, Lakre inguruan. E.A.

Sentsibilizatzeko kartelak ere bai

Garitaonandiaren esanetan, Udalak jarri beharko lituzke kartel batzuk auzuneetan nola jokatu azaltzen dutenak, ingurunea "errespetuz" tratatzeko eta hondakinak basoan ez botatzeko. "Euskal Herriko hainbat txokotan badaude. Hemen zergatik ez?"

Zaldibarko toponimia gal ez dadin lanean ari dira

Joseba Garitaonandia arrasatearrarena da ekimena eta Josu Uriarte 'Polvora'-rena, berriz, kartelak egiteko ardura; Zaldibar guneko lekuen izenak ezagutarazteko asmoz, lau kartel jarri dituzte jada, eta epe motzean beste lau jartzea ere aurreikusten dute

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Beti pentsatu izan dut oso garrantzitsua dela herritarrei jakinaraztea lekuek ze izen daukaten. Hori dela eta, ekimen hau martxan jartzea erabaki nuen, iazko uda inguruan. Zorte handia izan dut; izan ere, nire lankide batek, Josu Uriarte *Polvora*-k, egin dizkit kartelak. Beraz, hemendik eskerrak eman

gurako nizkioke, azken batean, elkarlanean egindako lan bat delako", dio Garitaonandiak.

Lehenik eta behin, izenak jaso eta nola idazten diren jakitea ezinbestekoa dela azaldu du, eskritoretan eta bestelakoetan begiratuta. "Behin izenak jartzen hasita, ondo jartzea komeni da, ahozkotik idatzira aldatu egiten baita batzuetan. Ondoren, aha-

lik eta txukunen idatzi, eta gero, leku aproposal jarri, herritarrek jakiteko lekuek bere izena daukatela", gaineratu du.

Oraingoz, lau kartel jarri dituzte

Lau dira jarri dituzten kartelak: Malagztaina, Asuela, Oñetibaso eta Lakre. Baina gehiago jartzeko asmoa du Garitaonandiak. "Lankideak gogorik baldin

badauka, behintzat, oraindik baditugu izen batzuk jartzeko". Hala, Bakue, Axpe, Txindurripilla eta Ametzauendi izenak jartzeko asmoa dute, eta beste hainbat izen ere badaudela dio Garitaonandiak. "Guk, ordea, ez dakigu jarraituko dugun. Gure borondate onenarekin ari gara, baina, agian, beste batzuek egin beharko lituzkete lan hauek".

Asuelari, esaterako, beste hainbat modutara deitu izan diotela adierazi du arrasatearrak: Cuatrocaminos eta Sietecaminos. "Baina herritarrek jakin behar dute leku horrek jatorrizko izen bat badaukala eta nolabaiteko errespetu falta ere badela jatorrizko izen hori ez erabiltzea".

Zergatik ez herri mailan?

Nabarmendu du aukera polita izan daitekeela hau, gune baka-

rrekoa ez ezik, Arrasate osoko toponimia berreskuratzeko. "Nik nire auzoko izenak badakizkit, baina beste auzo asko daude herrian, eta seguru nago galtzeko zorian dauden beste hainbat izen ere egongo direla. Beraz, iruditzen zait Arrasateko Udalaren partetik ekimen polita izan daitekeela izen horiek berreskuratzeko eta dagokion moduan adieraztea. Lehenik eta behin, izen horiek guztiak zerrendatu beharko lirarteke, eta, behin jasota eduki ostean, errazagoa izango litzateke kartelak jartzea", zehaztu du.

MALAGAZTAINA, ASUELA, OÑETIBASO ETA LAKRE DIRA ORAIN ARTE JARRI DITUZTEN KARTELAK

OHARRAK

Batzar irekia Kulturaten

Ahal Dugu Arrasatek batzar irekia egingo du gaur, egubakoitza, Kulturateko Loramendi gelan, 18:00etan hasita, barne antolaketari buruzko gaiak lantzeko.

Kalejira eta elkarretaratzea bihar, zapatua

Hainbat gaztetxe eta gune autogestionatuk jasan dituzten "erasoak" salatzeko, kalejira abiatuko dute bihar, 12:30ean, gaztetxetik, eta 13:30ean elkarretaratzea egingo dute Biterin.

Rakel Perez de Arenazaren erakusketa, irekita

Arrasatearrak *Nire akuarelak* erakusketa zabaldu du Arkupen, Aretxabaletan, urtarrilaren 31ra arte (Ikus 20. orria).

Euskaraz eta familia giroan

Aurreko domekan egin zuten Familian Jolasean ekimenaren baitako aurtengo lehen saioa, eta, martxoaren 28ra bitartean, igande guztietan edukiko dute familian eta euskaraz jolasteko aukera 0 eta 8 urte bitarteko haurrek eta haien gurasoek. Hori da ekimenaren asmoa, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanez era ludikoan eta euskaraz gozatzea.



IMANOL SORIANO

arrasate

Herri Eskola



MATRIKULAZIOA ZABALIK

URTARRILAREN 18TIK 29RA

Eguneroko zaintza eta zaintza zerbitzu integrala irailan, uztailean eta gorriak ez diren eskolako opor egun guztietan

MUSAKOLA • BEDOÑABE • ERGUIN

**ATEAK
ZABALIK**

Urtarrilaren 18tik 29ra

16.45etik 18:00etara arte.
Hartu hitzordua goizez: 943 79 77 74

**MUSAKOLAKO ESKOLA
ERAIKIN BERRIAREN
AURKEZPENA**



goieskola
debaioleko euskal
eskola publikoa

*"Guztion eskola,
Guztion artean"*

Ordiziarrekin bat eginda arituko da Kanpanzar

Urte "berezia" dela jakitun, Arrasate Rugby Taldeko gizonezko seniorrek indarrak batu dituzte Ordizia Rugby klubeko jokalariekin, Euskal Ligako lehen mailan lehiatzeko jokalaria nahikoa izan ditzaten; asteburu honetan jokatuko dute bigarren neurketa

Hasier Larrea ARRASATE

Kanpanzar Arrasate-Ordizia Rugby deituko da aurtengo sasoiaren etxeko partidak Mojategin jokatuko dituen talde nagusia, bi klubek –Ordizia Rugby eta Arrasate Rugby Taldea– batera hartutako erabakiaren ostean. Bi aldeek "aberasgarritzat" jo dute elkarlana, "errugbiaren balioek taldea aurrera ateratzea ahalbidetu dutelako".

ARTko presidente Ramon Barrutiak eman ditu akordioari buruzko xehetasun gehiago: "Abenduan harremanetan jarri ginen gure harrobiko jokalariekin, partida ofizialen hasiera ate joka zegoela eta zenbateraino lehiatu nahi zuten jakiteko". 25 jokalarietatik hamabosten baiezkoa jaso zuen zuzendaritzak, jokalaria gehiago batzearen premia jabetuta. "Orduan, Ordiziakoekin egin genuen topo; maila gorenean aritzen den taldeaz gain, bi talde gehiago daukate seniorretan, eta han aritzen diren zenbait jokalaria gurekin nahastea proposatu genien, baita onartu ere", azaldu du.

Gauzak horrela, joan den zapatuan estreinatu zen ligan talde berria, "elkar gutxi ezagutzen duten jokalaririk multzoarekin". Faktore hori "erabakigarria" izan zen, Julien Barrutia entrenatzailearen esanetan, Durangoren aurka 5-38 galtzeko, nahiz eta jokatzeak aukera izatea bakarrik "pozgarria" iruditu. Bihar, Logroñora joango dira, Domiberia RC Rioja taldearen aurka indarrak neurtzera.

Ez dute etenik espero

Zaleen babesik gabe jokatzeraren ohitu beharko dute Kanpanzarreko jokalariek, eta indar horiez sentitzea "pena" izango dela argi dauka klubeko presidentek. Hala eta guztiz ere, "orain jokalarientzako tentsioa" tokatzen dela uste du, irailetik hona astean hiru aldiz entrenatzen aritu di-



Lehen partida elurpean jokatzeak nekea eragin zien jokalariei. GOIENA

HAMAHIRU PARTIDA JOKATUKO DITUZTE, GUZTIRA, ETA EZ DA JAITSIERARIK EZ IGOERARIK EGONGO

renez, "merezi dutelako beste taldeekin lehiatzeko aukera" edukitzea.

Kategoria horretako kirolariak erdi-profesionalak kontsideratzen direnez, Ramon Barrutiak espero du "liga behin hasita programatutako partida guztiak" jokatuko dituztela. Gainera, euren kategoriari ez diote zuzenean eragiten Eusko Jaurlaritzak kirol arloan har ditzakeen neurriek, Espainiako Errugbi Federazioari dagokio eta txapelketa hori arautzea.

Beraz, hemendik eta aurrerantzat bitartean, kategoria bereko berderatzi taldeek –Elorriok uko egin dio txapelketa jokatzeari– elkarren artean neurtuko dituzte indarrak, partida bakarrera: Kanpanzarrek Logroñora, Sara, Gernikara eta Donostiara egingo ditu bisitak, eta Mojategin jasoko ditu Bilboko, Hernaniko

eta Hondarribiko errugbi taldeak. Norgehiagoka horiek jokatu ostean, sailkapeneko kokaren arabera aurkari baten edo bestearen aurka lehiatzen jarraituko dute; hala, hamahiru partida inguru jokatuko dituzte, guztira.

ARTko presidentearen iritziz, aurkari izango dituzten talde batzuk "goragoko kategorietatik datozen, eta beste abiadura bat jartzen diote jokoari". Horregatik, helburu bezala "neurketez gozatzea" finkatu dute aurrean, kontuan hartuta, gainera, egoerarik eta jaitsierarik ez dela egongo, "klubek hala adostuta".

Emakumeak, "formakuntzan"

Duela hiru hilabetetik Mojategin entrenatzen diharduen senior mailako emakumezkoen taldeari ere "lehiatzeko aukerak eman nahian" ari direla aipatu du Ramon Barrutiak. Hurrengo denboraldian Euskal Ligan izena emateko asmoa dauka zuzendaritzak, nahiz eta bertan aritzeko zenbait urrats egin behar dituzten lehendabizi: "Lansaiok bai, baina partidariak ez dute jokatu oraindik; beraz, asmoa da antzeko maila duten taldeen aurka probatzea".



Gratu Amaierako Lanak zabaldu zizkion ipuinak kontatzeko ateak Gebarari. A.G.

4 urtetik gorakoek istorioak "biziko" dituzte bi biblioteketan

Ane Gebara ipuin kontalaria Kulturaten eta Santa Marinaran izango da zentzumenak goxatzen, hilaren 21 eta 27an

H.L. ARRASATE

Umeak "mundu zabal bateranzko bidaia intentsu batean" murgiltzeko xedez, herririk herri ibiltzen da Ane Gebara hango eta hemengo ipuinak kontatzen. Gasteiztarra bigarren egongo da Udal Bibliotekaren egitarauaren baitan, iaz ere jaso baitzuen gonbidapena haur arrasatearren aurrean "emozio eta hitzen bidez" transmititutako istorioak kontatzeko. Lau urte pasa dira kontalaria gisa lehen urratsak egiten hasi zenetik, eta ogibidea "zenbat eta sakonago ezagutu orduan eta plazer handiagoz" lan egiten duela onartzen du Gebarak.

"Gaiztoak" agertzea, gako

Zalantzarik ez dauka kontatzen dituen istorioek ezinbesteko elementu bat eduki behar dutela baieztatzen du: "Pertsonaia gaiztoek bai ala bai egon

behar dute, horiek lortzen dutelako neska-mutilak fikziozko kontaketa partaide bilakatzea". Berak ze momentutan gozatzen duen galdetuta, umeek "begiak eta belarriak ixten dituztenean" erantzun du, istorioak "funtzionatzen" duela konturatzen delako orduan.

Mozten ez den haria

Ipuin kontalaria euskaldunak "betidanik" egon direla uste du Gebarak, belaunaldi bakoitzean agertzen direlako ohitura mantentzeko prest dauden "apurren batzuk". Gaur egun ofizioan jende berria egotea "pozgarritzat" jo du, gainera, gasteiztarak.

Esan bezala, urtarrilaren 21ean eskainiko du lehen emanaldia, Kulturaten, eta 27an gerturatu da, osterara, Santa Marinarako bibliotekara –saio horretarako aurrez eman beharko da izena–. Seietan hasiko dira bi hitzorduak.

'Snapshot' galeria Logroñon, Javier Triviñoren eskutik

Artista grafiko arrasatearra irudiaren eta sare sozialen inguruko hausnarketa pizten duen erakusketa ireki zuen joan den ostiralean Logroñoko Caja Rioja Fundazioan. Urtarrilaren 27ra arte ikusgai egongo dira 35 urteko sortzaileak "sareetatik hartu eta birziklatutako" materialetatik abiatutako irudi, marrazki eta eskulturak.

Batik bat, kontsumo masarekin, *influencer*-ekin eta *celebrity*-ekin lotutako gaiak jorratzen ditu Triviñok bere erakusketan. *Snapshot* kontzeptua soinean arropa markadunak erakusteko ateratzen diren argazkietan oinarritzen dela azaldu du: "Klase guztietako gazteengan oso errotuta dagoen joera denez gero, interesgarria deritzot norberaren izatearen eta erakutsi nahi duenaren arteko erlazioa erakusteari". *Millennial* osteko belaunaldian oinarritzen da, beraz, galeria.



Iker Gil Gilito, Etor Goikoetxea Toribio, Iban Bengoa Bilis, Jon Koldo Lasagabaster Pistolo eta Jokin Pagaldai Jokino. ARGAZKIAK: S. BERBENAS



Hasierako kideak, 1999an: Iker Zaitegi Zaka, Toribio, Bilis eta Joannes Mendizabal.

Sindy Berbenas: 'zuk zeuk egizu' filosofia eta jarrera, lau belaunalditan barrena

25 bat urteko ibilbide gorabeheratsuaren ostean, 2021erako "inoiz baino gogotsuago" dago Sindy Berbenas; oso kontzertu gutxi eman dituzte, eta disko bakarra kaleratu, baina Arrasateko underground kulturaren barruan bere arrastoa utzi dute dagoeneko

Jokin Bereziartua ARRASATE

Arrasateko underground eszenako musika taldeen artean esku batekin zenbatu daitezke 25 urteko ibilbidea egin, gorabehera handiekin bada ere, eta oraindik egurra emateko gertu daudenak. Badirelako kultura zirkuitu entzutsuetan sartu barik eta ospe handirik lortu gabe arrasto berezia uzten duten taldeak: 1996. urte inguruan sortu eta 2021ari "inoiz baino gogotsuago" ekin dion Sindy Berbenas taldea da horren adibide bat. Domeka elur-tu eta hotz batean egin du hitzordua kazetariak taldearen lokalean, gaur egun Jet Set izena duen diskotekaren ondoan. Eta kaleko giro izoztua berehala berotu da lokal barruan, taldearen historia baina, batez ere, euren istorioak gogoratzeko solasaldian.

Izenaren jatorria, panpina baten

Gaur egungo kideen artean bi dira hasieratik daudenak: Etor Goikoetxea *Toribio* (Arrasate, 1975) eta Iban Bengoa *Bilis* (Arrasate, 1975). Taldearen izena panpina batetik datorrela azaldu du *Bilis*-ek: "*Barbie*-ren konpetentzia zen *Sindy*, garai hartan

arrakasta txikiagoa zuen panpina. Telebistako iragarkietan *Sindy* hainbat eratarata agertzen zen; *Sindy* kirolaria, *Sindy* ez dakit zer... *Sindy* parranda eta berbena zalea falta zen, eta guk sortu genuen: Sindy Berbenas".

1996ko jaiak, 2007ko Bionakoa...

Taldearen historia kontatzen hasteko, 1996ko sanjuanetara bidaiatu beharra dago, urte hartan txosna bat muntatu zutelako musika instrumentuetarako dirua lortzeko. Deposituetan hasi ziren entseatzeko, *Toribio*-k gogoratzen duenez: "Gazte Hilak taldearekin sartu ginen eta urte pare batera-edo Zakarrak eta Iskanbilarekin hasi ginen lokala partekatzen. Zakarrak-ek jotzeari utzi zionean, Des-kontrol sartu zen Iskanbilarekin eta gurekin batera". Ilusioa barra-barra, baina kontzertu publikoak,

"GAZTETAN EZ GENUEN BEHAR BESTEKO JARRAIPENIK IZAN MAILA HOBETZEKO"

IBAN BENGUA, GITARRA-JOTZAILEA

apenas. 1997an, esaterako, Elgetako Panaderokua tabernan bi edo hiru abesti jotzera igo ziren, eta aipagarriak dira ere bizpahiru urtetan Garaion kuadrillakoekin eta kuadrillakoendako egin zituzten kontzertuak.

Orditik aurrera, lozorroan egon ziren hainbat urtez, harik eta 2007an *Bilis*-en despedidarako Biona tabernan egin zuten kontzertu sorpresa heldu zen arte. Taula gainean, Des-kontrol, Arkada Social, Enboskada, Never Surrender eta, nola ez, Sindy Berbenas. "Beste taldeek ordu erdi inguru jo zuten eta guk, bost minutu; kar, kar, kar. Des-kontrolerako *Magu*-k jo zuen gitarra *Bilis*-en orde eta Joannes ez zen egon, kanpoan zegoelako. Iker Zaitegik jo zuen baxua", dio *Toribio*-k. Taldeak gaur egun bizi duen "fase egonkorraren" hasiera ulertzeko, Iker Zaitegi *Zaka*-ren despedidarako 2013ko kontzertuan aipatu beharra dago, gaztetxean, Iskanbilarekin batera.

Aldaketak aldaketa, beti giro ona

Ondoan izan dituzten musika taldeekiko ezberdinak zertan diren galdetuta, honako hau

diote *Toribio*-k eta *Bilis*-ek: "Gaztea zarenean musikalki jarraipen bat izatea komeni da maila gartzeko, eta guk ez genuen izan; gure maila oso baxua zen orduan. Gainera, egoera pertsonala egonkortu dugunean eta egoerak ahalbidetu duenean izan da posible Sindy Berbenas. Aldaketak izan arren, taldean beti izan dugu giro ona; ezinbestekoa da".

Gainerako taldekideen iritziak

Taldeko gazteena da Iker Gil Gilito (Bergara, 1997): "Sekulako esperientzia da Sindy Berbenas. Eurekin grabatu dut bizitzako lehen diskoa eta niretzat familia bat dira. Entseguak poztasuna dira niretzat, izugarri gozatzen dut". Jokin Pagaldai *Jokino*-k (Arrasate, 1987) ere hitz bereziak ditu: "Sindy Berbenas ezagutzen nuen aurretik, baina nork esango zidan bertan jotzen bukatuko

"ALDAKETAK IZAN ARREN, TALDEAN BETI IZAN DUGU GIRO ONA; EZINBESTEKO DA "

ETOR GOIKOETXEA, BATERIA-JOTZAILEA

nuenik... Sekulakoa da niretzat". Eta taldeko veteranoena da Jon Koldo Lasagabaster *Pistolo* (Arrasate, 1964); hainbat taldeetatik pasatu da, La Txusma tartean, eta orain bereziki gozatzen ari da Sindy Berbenasi bere "metal ukitua" ematen: "Rock-and-rolla nire egunerokoaren parte da, ezinbestekoa. Talde askotan egon naiz, eta ezinbestekoa da giro ona egotea. Eta talde honekin, giro ona bermatuta dago".

Diskoan, keinua Altsasukoekin

25 urte inguruko ibilbide gorabeheratsuan disko bakarra ateratu dute, 2019ko maiatzean: *Sindy Berbenas. Bultaco Warriors*. 2018 eta 2019. urteen artean Sound of Sirens estudioan grabatu zuten, Julen Urzaizen eskutik. Zortzi abestiz osatutako diskoa da—zazpi gaztelaraz eta bakarra euskaraz— eta salmenta prezioaren zazpi euroetatik bi euro Altsasuko gazteei laguntzera bideratu zuten. Disko hori bera aurkezteko lau kontzertu lotuta zituzten 2020an, baina pandemiagatik suspenditu egin ziren. Orain, egurra emateko "inoiz baino gogotsuago" daude: "*Asatamente*".

Gozamenerako uneak eskaini ditu elurrak

Azkeneko urteetako negu elurtuena izaten ari da aurtengoa. Mendian inoiz baino jende gehiago dabil elurraz gozaten. Elurrak, baina, bestelako aldea ere badu: lana da batzuetako. Hiru lagun ibili dira elur makinekin errepideak garbitzen

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Elurra goiz iritsi da aurtengo neguan; eta, gainera, asko. Azkeneko urteetako elurte handienak egin ditu azkeneko asteetan. Abendu erdialdearekin batera iritsi ziren lehenengo elur-matazak mendi garaietara, eta, urte berriarekin batera, elurra kalera iritsi da.

Elurra gozamenerako izaten da, askotan. Etxeko txikienek gustura hartzen dute: euren magia da mataza zuriak goitik behera nola erortzen diren ikustea. Zer esanik ez, elurretako kirolak maite dituztenen dako. Mendizaleek gustura hartu dute egin duen elurra; eta asko eta asko izan dira eskiak edo elur-erraketak hartu eta Aramaio mendietan ibili diren mendizaleak.

Mendian, jende asko

Orixol Mendizale Elkarteak Peru Abarrategik mendira irteteko aukera aprobetxatu du egunotan: "Ez dut eskiatzen, ni mendian ibili naiz". Gehitu du inguruko mendietan ibili dela, gehienbat: Jarindon, Orixolen, Zabalandin... Abarrategik dio aurtengo beste batzuetan baino jende gehiago dabilela mendian: "Egoerak hala behartuta izan da. Ezin da kanpora joan eta bestelako ekintza-



Hainbat mendizale mendiko eskia praktikatzen Aramaion. OXEL ARRIETA

rik ere ezin da egin. Hortaz, jende askok hartu du mendira-ko joera, zaletu egin dira".

Urteberri egunean Orixolera igo zela dio, eta tontorra zapalduta zegoela, jende asko ibili izanaren seinale. Horrez gain, eskiatzaileak eta lagun kuadrillak lerarekin ere ikusi dituela dio, eta baita elur-erraketekin ere: "Orixol elkartearen baditugu bi elur-erraketa pare. Materiala eskuragarri dago nahi duenak erabil dezan, eta ohikoena izaten da eskaera handirik ez egotea; baina aurtengo, bat-batean

jendea elur-erraketak eskatzen hasi da".

Orixol Elkarteak jardunari dagokionez, hark uste du martxo inguruan egin izan duten hitzaldia antolatzeke moduan egongo direla.

Aurreko aste bukaeran, alertan

Filomena ekaitza zela-eta alerta egoera ezarri zuten joan den aste bukaerarako. "Azkenean, ez zen uste bezain elurte handirik egon: elurra kentzeko makinak ibili dira lanean eta gatzak ere bota da, baina, zorionez, ez

da ezustekorik egon", azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Izan ere, elurra, askotan, gozamenerako izan arren, burohausteak sortzeko besterik ez da izaten, beste batzuetan. Arabako Diputazioak Gorbeialdeko Kuadrillarekin batera bi pertsona kontratatzen ditu errepideak garbitzeko. "Udalaren ardura izaten da Eguzkierripa, Ibarra eta auzo barruak garbitzea. Hirugarren lagun bat kontratatu dugu lan horiek egiteko", dio Altunak. Gaineratu du 800 kilo gatz izan dituztela gertu aste bukaeran erabiltzeko, eta dagoeneko Diputazioari beste bi mila kilo enkargatu dizkiotela.

Traktorearekin elurra kentzen

Roberto Lasaga da azkeneko urteetan Diputazioaren errepideak garbitzeaz arduratzen den herritar bat. "Baserriko traktorea erabiltzen dut, eta pala edo bestelako materiala Diputazioak ematen du", dio Lasagak.

Kruzeta gainetik hasi eta Arrasaterainoko errepide zatia garbitzeaz arduratzen da Lasaga; eta baita eskuinaldean geratzen diren auzoetako errepide nagusiak ere: Untzilla, Suña, Azkoaga, Barajuen... aldea. Aste bukaerarako elur gehiago espero zutela dio, baina ez zela "hainbesterako izan". Hamabost bat zentimetro izan zirela dio. Ea ze errepide zatitan edo ze auzotan pilatzen den elur gehien galdetuta, Lasagak dio Untzilla ingurua izaten dela: "Ez dakit haizeagatik den... baina leku batzuetan beste batzuetan baino gehiago egiten du".

Nabarmendu du aurtengo neguan elur asko egin duela: "Badira hiru bat urte ez naizela makinarekin elurra kentzera irten. Elurra egin du, bai, baina

ez kentzeko modukoa. Aurtengo, dagoeneko, lau bat bider irten naiz elurra kentzera".

Lehenengo aldean, presa dago

Makinarekin elurra kentzen dabilenean ea jendea ulerkorra den edo bakoitzak bere etxe aurrea garbi nahi duen galdetuta, Lasagak dio jendeak ulertu behar duela fisikoki ezin direla iritsi denbora berean leku guztietara. "Kortatik irteten naiz, eta handik Suña, San Antonio... Agian, ordubete behar dut dena egiteko", azaldu du.

Bestalde, dio berak daukan gunea Aldundiaren errepide zatia dela, eta jendeak uste duela Udalarena dela: "Gainera, nahiko makina handia da eta errepide estu batzuetan ez da sartzen".

Nabarmendu du jendea aldatu egin dela: "Lehenengo agureek beste patxada bat zuten. Elurra egiten zuenean, elkartean elkartu eta kartetan egiten zuten... baina, gaur egun, presaka gaitza alde batetik bestera".

Gehiago izango direlakoan

Elurteak goiztiarrak izan direla dio, normalean otsail inguruan izaten direla hemen elurteak. Hala, aurtengo negua bukatu aurretik beste elurterekin izango dela uste du Lasagak.

Elurrarekin gozaten dutenendako berri ona izango da elur gehiago egitea; ez, ordea, errepidean ibili behar duten gidariendako.

"AURTEN, DAGOENKO, LAU BAT BIDER IRTEN NAIZ MAKINAREKIN ERREPIDEKO ELURRA KENTZERA"

Argindar Banatzaileak kudeatzailea behar du

Lan eskariak aurkezteko epemuga urtarrilaren 20a da; Lanbideren bitartez edo Udalean aurkez daitezke

A.E. ARAMAIO

Aramaio Argindar Banatzaileak enpresaren kudeaketa eramango duen pertsona bat behar dute. Eginbehar nagusia izango da kontabilitatea, zergak, fakturazioa, indarrean dagoen le-

gedia betetzea, bezeroari arreta eskaintzea...

Bete beharreko baldintzen artean dago gradua, diplomatura, lizentziatura edo baliokidea izatea, eta hizkuntza eskakizuna; kontabilitatea eta kontuak era-

mateko gaitasuna; azpiegitura teknologikoak erabiltzeko gaitasuna; lekeen eta zergen obligazioak betetzeko ezagutza; eta harremanetarako gaitasuna. Horrez gain, baloratuko dute argindar sektoreko enpresetan esperientzia izatea eta egungo argindar legedia ezagutzea.

Eskaerak aurkezteko epemuga urtarrilaren 20a da. Lanbiden aurkez daitezke, eta eskaintza zenbakia 162021000184 da; edo curriculum bidali aab@aramaio.eus helbidera.

2019an baino 35 biztanle gehiago Aramaio 2020an

2020ko erroldako datuen arabera, urtea 35 biztanle gehiagorekin amaitu du Aramaio. Erroldako datuetan kontuan hartzen diren jaiotza, heriotza eta erresidencezia aldaketa datuak kontuan hartuta, Aramaio biztanleak irabazi ditu.

2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean bost haur jaio ziren Aramaion: lau

mutil eta neska bat; hil, aldiz, hamaika herritar hil ziren, sei gizonezko eta bost emakumezko. Datu horiek kontuan hartuta eta erresidencezia aldaketak kontuan hartuta, 2020an 65 alta eman ziren Aramaion, eta bajak, aldiz, 30.

2020ko urtarrilaren 1ean, 1.442 biztanle zeuden erroldatuta Aramaion; eta 2020ko urte amaieran, abenduaren 31n, 1.477 ziren erroldatuak. Hortaz, 2020. urtea 35 biztanle gehiagorekin amaitu zuen Aramaio.



Amelia Uribe, Aramaioko bulegoan laguntza eskaintzen. A.E.

Basogintzako laguntzak eskatzeko epea, zabalik

Foru Aldundiaren laguntza lerroak eskatzeko eta tramitatzeko laguntza eskainiko du Arabako Basogintza Elkarteak datozen egunetan: aurrez hitzordua eskatuta Aramaioko udaletxean egin ahal izango dira tramite horiek, 09:30etik 15:00etara

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Arabako Foru Aldundiaren baso-laguntza eskaera egiteko epea onartuta eta argitaratuta dago; hori horrela, eskaerak egiteko epea zabalik dago, otsailaren 17ra arte.

Arabako Basogintza Elkarteak zerbitzu berezia eskainiko du eskaera horiek egiten laguntzeko. Aldundiaren laguntzak eskatzeko interesa dutenek erabili ahal izango dute zerbitzua.

Laguntza lerroak

Aldundiaren laguntzak hainbat lerrotan banatuta daude: basotzea eta baso eremuak sortzea; suteek, hondamendi naturalek eta hondamendiek basoei eragindako kalteen prebentzioa, kalte horiek lehengoratzeko, baso ekosistemen egokitzeko gaitasuna eta ingurumen balioa handitzeko inbertsioak, basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan hobetzen inbertitzea, baso sektorea garatzeko egindako inbertsioak eta basoen kontserbazioa. Laguntza horiek

Hitzordua eskaera, udaletxean

Arabako Basogintza Elkarteako udaletxean egongo dira, 09:30etik 15:00etara bitartean.

Urtarrila

- Urtarrilaren 21ean.
- Urtarrilaren 28an.

Otsaila

- Otsailaren 4an.
- Otsailaren 11n

Osasun egoera dela eta, aurrez hitzordua eskatu behar da, 945 89 20 34 telefono zenbakian.

aurrera eramateko, 915.000 euroko kreditua dute, guztira, 2021ean eta 2022an banatuta.

Elkarteko datuen eguneraketa

Basogintza elkarteak bazkide direnei eta ez direnei eskainiko die zerbitzua –tarifak dituzte–. "Elkarteko bazkideen herena Gorbeialdeko Kuadrillako baso jabeak dira", azaldu du Amelia Uriak, elkarteko zuzendariak. Aldundiaren dirulaguntza lerroak hainbat aramaioarregan izan du eragina: "Iazko datuei begiratuta, 40 bat espediente tramitatu genituen Aramaion". Horren harira, argitu nahi izan du laguntzak ez direla urtero eskatzen: "Landaketa bat egiteko laguntza jaso duenak, adibidez, itxaron egin beharko du landaketa hori hazi arte".

Laguntzaz gain, elkarteko datuen eguneraketarekin murgilduta daudela ere gogorarazi du. Etxean jasotako bazkide fitxa bete eta bidaltzeko eskatu dute, eta argibideren bat behar duenak 945 89 20 34ra deitzeko.

Hondakin bereziak jasoko ditu puntu berde mugikorrek

Hileko hirugarren martitzenetan Ibarren egongo da autobusa, 11:00etatik 13:00etara bitartean

A.E. ARAMAIO

Etxe partikularretan eta saltoki eta enpresa txikietan sortzen diren hondakin bereziak jasotzeko gunea da puntu berde mugikorra. Hileko hirugarren martitzenetan egongo da autobusa Aramaion, Ibarren; horrez gain, auzoetan ere izango da puntu berde mugikorra.

Ibarren, 11:00etatik 13:00etara egongo da aipatutako egunetan. Otsailaren 24an, maiatzaren 5ean, abuztuaren 18an eta urriaren 20an, Gantzagan –11:00etatik 12:00etara–, Etxaguenen –12:00eta-

tio 13:00etara–, Arexolan –13:00etatik 14:00etara– eta Oletan –14:00etatik 16:00etara– izango da; aldiz, martxoaren 10ean, maiatzaren 19an, irailaren 1ean eta azaroaren 3an, Untzillan –11:00etatik 12:00etara–, Barajuenen –12:00etatik 13:00etara–, Azkoagan –13:00etatik 15:00etara– eta Uribarrin –15:00etatik 16:00etara– izango da.

Hain zuzen, hiri hondakinak biltzeko ohiko edukiontzietara bota ezin diren hondakin bereziak jasoko dituzte puntu berde mugikorrean.

Atzo hasi zituzten dantza entseguak berriro ere

Geldialdiaren ondoren, Lagun Artean dantza taldeak entsegu presentzialak hasi ditu asteon. Atzo egin zuten lehena, eta gaur berriro ere izango dute entseguak.

Jaurlaritzaren azken dekretuak ez profesionalak ere entseatzeko aukera izango dute aurrerantzean, segurtasun neurriak errespetatuz.

"Azaroaren hasieratik online eskolak eskaintzen ibili gara, baina erantzuna nahiko txikia izan da", azaldu du dantza taldeko zuzendaritzako kide Rosa Mondragonek. Beraz, oso pozik daude berriro ere entsegu presentzialak egiteko aukerarekin.

Aurtengo ikasturtean 60 dantzarik eman dute izena dantza taldean. Sei taldetan banatuta egiten dituzte entseguak. Gaur, barikua, 17:15ean hasiko dituzte entseguak eta 20:00ak arte arituko dira dantzan.



AITOR MONTES

Anbulatorioan, berogailu barik

Astehenean Aramaioko anbulatorioan hartutako irudia da. Aitor Montes medikuak sare sozialetan zabaldu du. Egiten zuen hotzagatik sintromaren aparatua ezin erabili ibili ziren. Galdara hondatu egin zen; martitzenerako konponduta zegoen, Aramaioko alkateak azaldu duenez.

Terrazak arautzeko lehen pausoa eman dute

Herri bidearen erabileraren eta okupazioaren gaineko ordenantza onartu zuen, behin-behinean, udalbatzak eguaztenean egindako osoko bilkuran; gainera, EAJko Javier Marrek zinegotzi kargua hartu zuen, Pili Leanizbarrutiaren hutsunea betetzeko

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Iazko urrian jarri zuen abian Udalak terrazak arautzeko ordenantza zehazteko prozesua. Herritarren zein ostalariaren hamalau bat ekarpen jaso ondoren, eguaztenean egindako osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak. "Bereziki, herritarren aldetik etorri dira ekarpenak, baina, gero, araudia zehazteko orduan ostalariak gain-gainean egon dira", azaldu zuen Unai Elkoro alkateak, eta gaineratu: "Ordenantza txukuna geratu da, nahiko zabala da eta uste dugu ondo funtzionatuko duela".

Araudi hori ez dela pandemia sasoirako bakarrik argitu dute, eta herritar guztiendako dela zehaztu, ez bakarrik ostalariendako. EH Bilduko Ion Albizuk zera zioen: "Herritarren arteko bizikidetzara arautu da; hortaz, oreka topatzean dago gakoa". Gaineratu zuen herriaren itxura asko aldatuko dela hurrengo hilabeteetan, ostalari askok agertu dutelako interesa.

Terrazen baldintzak, zehaztuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunen buruan indarrean izango da. Bertan jaso dituzte, esaterako, oinezkoak pasatu ahal izateko gutxienezko espazioak; hala, debekatuta egongo da espaloietan 2,90 metro baino gutxiagoko zabalera duten mahai-multzoak jartzea eta lorategiak erabiltzea. Gainera, hainbat baldintza bete beharko dituzte; hona hemen batzuk: oinezkoendako oztoporik gabeko ibilbidea bermatu beharko da eta horrek bi metroko zabalera izan beharko du, gutxienez; saltokietako eta atarrietako fatxada-guneak ere libre utziko dira.

Horrez gain, terrazetan jar daitezkeen instalazio osagarriak –toldoak, egitura egonkorak eta berogailuak, adibidez– ere arautu dituzte.



Udalbatzako kideak, mahaiaren bukaeran Javier Mar dela, osoko bilkuran. M. ALTUBE

TERRAZEN LIZENTZIAK ALKATETZATIK BIDERATUKO DITUZTE ETA ORDUTEGIA ERE HAREN ESKUMENA DA

Lizentziak alkatetzatik bideratuko dituzte eta ordutegia finkatzea ere alkatearen eskumena izango da. Ordenantza zehaztu dute ezingo direla mahaiak eta aulkiak 08:00ak baino lehen jarri, eta kentzeko bi ordutegi ezarri dituzte: domekatik eguenera bitartean 23:00ak eta egubakoitzetan, zapatuetan eta jai bezperetan, gauerdia –ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean ordubetez luzatuko dituzte biak–.

Ezarritako baldintzak urratzen dituztenek isunak jasoko dituzte; arau-hauste arinak 150 eta 750 euro artekoak izango dira, eta horien artean daude ordutegitik kanpo jartzea mahai-multzoak eta neurriak ez errespetatzea; larriak izango dira 751 eta 1.500 euro artekoak; eta arau-hauste oso larrien isunak 3.000 euro artekoak izango dira.

Kiroldegiko zerbitzuak, lizitaziora Ibarra kiroldegiko kirol zerbitzuak lizitatzeko ere onartu zuen udalbatzak; urtebeterako esleituko dira, lau urte arte luzagarria izanik. Oinarriak zehazteko lantalde bat osatu zuten eta Koldo Zubillaga zinegotziak azaldu zuen hainbat puntu zehaztu zituztela: "Esanguratsuenak dira langileen lan baldintzak hobetu egingo direla. Eta bi multzo bereizi direla: bata osatuko dute harrerak, sorosleek, mantentzeak eta koordinazioak eta bestea, fitness gelak eta jarduerak". EH Bilduko Albizu pozik agertu zen: "Langileen baldintzak ziurtatuta daude COVID-19a dela-eta itxiera bat etorriko balitz ere. Hori izan da gure ekarpena".

Javier Mar, zinegotzi berria Bestetik, Javier Marrek (Durango, 1956) zinegotzi kargua hartu zuen eta Pili Leanizbarrutiak utzitako hutsunea beteko du: "Aretxabaletaren alde lan egiteko eman didaten aukeragatik pozik nago. Pentsatzen dut osasun eta gizarte zerbitzuen arloan sartuko naizela baina ez dakit oraindik; osasun etxearen proiektua ere hor dago...", zioen.



Iruene Robles, tailerra bideratuko duen Metik proiektuko kidea. IRUENE ROBLES

Indarkeria ginekologikoaren gaineko lanketa egingo dute

'Bizipen gineko-obstetrikoa' ikastaroa eskainiko du gaur Metik proiektuak, Erdu feminista taldeak gonbidatuta

M.A. ARETXABALETAKO

Abenduan atzeratu beharrean izan ziren *Bizipen gineko-obstetrikoa*. *Gorputzak osatzeko bide partekatua* bat izeneko ikastaroa gaur egingo dute, Arkupen (17:30-19:30). Erdu Aretxabaletako Talde Feministak antolatu du eta izena aurretik eman beharra egon da, edukiera zaintze aldera.

Gorputzaren burujabetza

Metik proiektu ekofeministako adituek gidatuko dute saioa, Iruene Robles Egozkue antropologo feminista eta gizarte hezitzaileak eta Raquel Garcia Teran adituak.

"Emakume askok, gehienok, pairatu dugu indarkeria ginekologiko eta aztarnak gelditu zaizkigu; beraz, bizipen mingarri horiek askatzeko, bakoitzaren gorputzetik jasotako indarkeria obstetrikoa aitortzea, izendatzea, plazaratzea eta konpartitzea konponbide bat izan daiteke", diote.

Bortizkeria horien gainean taldean hausnartzea da asmoa, metodologia feministak erabiltzea, parte hartzea sustatuta eta alaitasunez: "Gure gorputzen burujabetza berreskuratu nahi dugu, indarkeriarik gabeko bizitzak eraikitzeko".

Parekidetasuna sustatzeko antzezlanaren umeendako, etzi

Eidabe antzerki taldeak 'Mari eta gailera fabrika' eskainiko die neska-mutikoei domekan, 17:00etan

M.A. ARETXABALETAKO

Antzerkiak ez du etenik Arkupen. Aste bukaeran, baina, bi antzezlan ziren eskaintzekoak eta Udalak jakinarazi du Behibi's Teatroatik gaur, egubakoitza, egitekoak zen *Trabajos de interior* lana bertan behera geratu dela.

Domekan, hilaren 17an, Eidabe antzerki taldea neska-mutikoei ikuskizun batekin etorriko da (17:00): *Mari eta gailera fabrika*. Galder Perezen testuan oinarritutako istorioa da eta gaur egungo emakumei bidea erraztu dieten emakume

langile haiek omendu gura izan ditu. Berdintasuna eta parekidetasuna oinarri dituen lana izanik, familiarri osoari eskainiko die Eidabek –sarrera: 3 euro–.

'Gu primer!', hilaren 24an

Hilaren 24an, osteran, Xentimorik gabe taldeak *Gu primer!* eskainiko du (19:00); umorea eta xelebrekeriak ekarriko dituzte Ramon Agirrek, Inazio Tolosak eta Nerea Gorritik. Hilabetea agurtzeko, 31n, Hodei magoaren *Harritzearen abilezia* ikuskizuna izango da.

Jaiki elkarteak dantza saioei berrekingo die

Atzo, eguena, itzuli ziren Jaikiko kideak kuartelean duten aretora, profesionalak ez diren dantza taldeek lanean hasteko baimena jaso ondoren; pandemiaren eraginez, azaroa ezkeron egon dira geldituta, eta trebakuntza saioei berrekiteko gogotsu zeuden

Mirari Altube ARETXABAETA

Izugarri poztu ziren Jaiki elkarteko kideak astelehenean; izan ere, LABIk orduan erabaki zuen profesionalak ez diren dantza taldeei entseguak egiteko baimena ematea. Udalarekin harremanetan jarri, eta kuartelera itzultzeko baimena lortu dute. Azaro erdialdea ezkeron geldituta egon ondoren, atzo, eguena, elkartu ziren dantzei berrekiteko.

Entseguak eta sorkuntza-piezak

"Ez genuen ulertzen zergatik ezin ginen elkartu. Entseguak eta profesionalak ez diren ikus-kizunak debekatu zituzten, baina ez trebakuntzak, eta guk



Jaiki elkarteko hiru kide, dantzan, Sarek zapatuan antolatutako ekitaldian. M. ALTUBE

formakuntza eskaintzen genuela esan genion Udalari", azaldu du Maier Etxebarria kideak, eta gaineratu: "Erakunde pribatuek zein publikoek eskaini zitzaizkieten formakuntza saioak, eta guk, elkartea bat garelako, ez? Esperantza galtzen hasita geunden".

Ikasturteari urrian ekin zioten, eta sei bat astez jardun ondoren geratu beharrean izan ziren. Astelehenean swing eskolak dituzte eta eguenetan, inprobisazio dantzak; hau da, bat-bateko konposizio dantzak. "Eskolen falta asko igarri dugu. Etxean egin dezakegu dantzan, baina ez da berdina norbere kontura jardutea edo taldean eta irakasle baten aginduei jarraituta aritzea".

Eskolak jasotzeaz gain, sorkuntza-piezak egiten ere hasita dago Jaiki. Azaroaren 25aren harira Arrasaten egin zuten horietako bat, eta Sarek antolatutako Izan Bidearen bueltako mosaikoetan ere hartu dute parte Aretxabaetan eta Arrasaten. "Aurrera begira ere baditugu proiektu pare bat buruan. Baina, horretarako, entseguak egiteko leku bat ezinbestekoa dugu", dio Etxebarriak.

Musika taldeen entsegurik ez

Profesionalak ez diren musika taldeek, osterara, ez dute entseguak egiteko aukerarik izango, oraingoz. Ainhoa Cabero Kultura zinegotzia penatuta agertu da, eta dio talde guztiei zabaldu gurako lieketela kuarteleko ateak: "Badakit ondo moldatuko liraketekeela, ondo beteko litzuketela neurriak". Musika taldeak haserre egotea ere ulertzen duela adierazi du, eta aukerak aztertzeke harremanetan daudela.

Kuartelean lokala duen taldeetako bat da Nhil, eta bertako kide da Asel Errasti: "Profesionala izatea zer den galdetzen dugu guk. Famatua izatea? Kontratu bat izatea? Gure proposamena izango litzateke Aretxabaletako taldeei kontratu bat egitea herrian emanaldiak egiteko; kontratu profesional horrekin entseguak egiteko aukera izango genuke". Gaineratu du kuartelean ez litzatekeela arazorik egongo: "Gelak indibidualak dira; hortaz, positibo bat izanez gero, kontrolatua izango litzateke". Kultura Sailetik harantzago joan eta alkatearekin egoteko asmoa dutela gaineratu du.



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: **Urtarrilaren 18tik 29ra**

Hitzordua hartzeko deitu.

Pandemia egoera dela eta, ezinbestekoa da hitzordua eskatzea.

943 77 03 77
pausoka.he@gmail.com
www.pausoka.eu

 619 44 95 97

Belorrieta 8 • 20550 Aretxabaleta

zeuria
zeuena
geuria



"Luxuzko kideak izan ditut lagun diskoan"

OLATZ SALVADOR MUSIKARIA

'Aho uhal' bakarkako bigarren diskoa aurkeztera etorriko da gazte donostiarra datorren egunean, urtarrilaren 21ean, Arkupera, hainbat musikarik lagun eginda

Mirari Altube ARETXABALETA

Bakarkako bigarren diskoa kaleratu berri du Olatz Salvador Zalduek (Donostia, 1990), eta hor jasotako kantuak eta beste hainbat eskainiko ditu urtarrilaren 21ean, eguna, Arkupe kultur etxean.

Diskoaren gaineko zertzelada batzuk ematerik bai?

Zaila egiten zait diskoa hain era zabalean deskribatzea. Hamabi kanta ditu, azken bi urte hauetan ondutakoak eta prozesu luze baten emaitza direnak. Disko kontzeptuala da eta *Aho uhal* horren paradoxak dakarren binomio horrekin jolasten saiatu naiz: gaztelaraz *rienda* hitzak gidaritzatza bat aditzera ematen digun bezala, euskarazko itzulpenak justu kontrakoa iradoki dezake, mozal bat izatea edo norbaiten aginduen menpe egoitea, alegia.

Kolaboratzaile dotoreak izan dituzu; luxua da hori?

Luxuzko kideak izan ditut, bai ekoizpenean –Pablo Novoa musikaria–, bai musikari aldetik –Ander Zulaika, Mattin Saldias eta Jagoba Salvador–, bai letragile aldetik –Alaia Martinek eta Ane Labaka abesti bana idatzi dituzte– eta baita kolaborazio aldetik ere –Rozalen, Ivan Ferrero, Garazi Esnaola, Idoia Asurmendi eta La Mare–. Beti da polita horrelako elkarlanak abiatzea. Martin eta Labaka, esaterako, miresten ditudan bi pertsona dira eta asko gustatzen zait beraien gauzak ikusteko eta azaltzeko era, hitzekin sortzen duten magia.

Idoia Asurmendi musikari aramaiorrra aipatu duzu. Gaztea da, baina indartsu dator...

Hori da! Berak sareetara igotako bertsio batean deskubritu nuen eta oso argi ikusi nuen etorkizun oparoa izango zuela. Askotan entzun nuen bertsio hura, eta, diskoan kolaborazioak pentsatzeko garaian, ideia ona



Olatz Salvador gitarrarekin. IMANOL SORIANO

"ORAINGO BANDA BERRIA DA ETA EZ DUGU ORAIN ARTE KONTZERTURIK EMAN ELKARREKIN"

iruditu zitzaigun jende gaztea ere izatea, beraientzat ere erakusleho izan daitekeelako eta guretzat, berriz, saretzeko beste era bat, ekarpen artistikoaz gain. Orain, justu, entsegu lokala partekatzen hasi gara, eta harreman polit baten hasiera izan da hau dena.


Bandak lagun eginda zatoz, musikari trebeekin, ezta?

Nire oraingo banda berria da eta ez dugu orain arte elkarrekin kontzerturik eman. Baina bai, hasieratik oso giro ona sortu da gure artean, jende oso jatorra eta profesionala da eta asko gustatzen zait beraiekin aritzea. Hasiera batean, Julen Idigoras, Borja Anton eta Ander Merino izan ziren kontzertuetan nirekin, eta, orduetik hona, aldaketak izan ditut, egoerara moldatu nahian, baina beti oso gustura aritu naiz guztiekin.

Zintzilik lehen bakarkako lana 2018an kaleratu zenuen; zelan ebo-luzionatu duzu orduetik hona?

Ez da galdera erraza niretzat; agian, kanpotik gehiago nabaritu dute nik neuk baino. Ikasketak konstante bat izan da; hemendik kanpo dagoen ezin du imajinatu zenbat lan dagoen proiektu baten kudeaketan eta zein zaila den hau dena aurrera ateratzea; lan ikusezin asko dago. Agian, pixkanaka, segurtasuna irabazten ari naiz, baina ez guztiz; izan ere, erronka berriak suertatzen zaizkit aldi oro eta neure burua berrasmatzeko beharra ikusten dut, amildegi berriak iristen zaizkidalako. Hori ederra da, noski, baina kudeatzeko lanketa emozional handia egin behar izan dudala aitortu beharra dut.

Pandemia gogorra izaten dabil herriar ororentzat, baita kultur sortzaileontzat ere. Zelan bizi duzu zuk? Gorabehera asko izan ditut, eta momentu baxuak ere bai. Oraindik ere baditut, eta normalean baino tristeago sumatzen dut neure burua; aldi berean, zorteko sentitzen naiz, aukera asko eskaini dizkidalako eta lan asko egin ahal izan dudalako.



Rakel Perez de Arenaza, Arkupen, bi lan atzean dituela. GURUTZE MUJIKA

Herriko paisaia protagonista Arkupeko hamahiru akuarelatan

Rakel Perez de Arenaza arrasatearrak jarri ditu erakusketa aretoan, eta hilabete osoan egongo dira

M.A. ARETXABALETA

Nire akuarelak izenaren baitan, tamaina handiko hamahiru lan jarri ditu ikusgai Rakel Perez de Arenaza arrasatearrak Arkupeko erakusketa aretoan. Kaleko paisaia edo paisaia urbanoa erakutsi gura izan du eta gehienek Aretxabaleta dute gai.

Tamaina handiko lanak

Argi-ilunekin jolas egin gura izan du akuareletan: "Argiaren bitartez egindako jokoak landu ditut". Aretxabaleta eta inguruak –Urkulu, esaterako– erakutsi ditu hamar lanetan eta gaine-rako hiruretan, Arrasate. "Paisaia urbanoak gurago ditut nik, joko handia ematen dute; izan ere, edozein elementurekin egin daiteke lan bat. Paisaia naturalak betikoak dira, oso politak, baina...", dio Perez de Arenazak.

Kalean bertan margotzea du gustuko: "Baina beti ezin da;

neguan gaude... Horregatik, argazkiak atera nituen kaleetan, eta gero, etxean lan egin". Lehen aldiz margotu ditu halako tamaina handikoak, eta esperientzia polita izan dela dio: "Akuarela oso zaila da eta tamaina handia ez da samurra maneiatzeko, baina gustura nago esperientziarekin".

Autodidakta

Aspaldi hasi zen pintura-lanak egiten margolari arrasatearra, eta, irakasle batzuk izan baditu ere, autodidakta da: "Nik gura nuena ez nuen lortu horiengandik. Orain topatu dut, eta oso gustura sentitu naiz".

Orain dela lau bat urte ere erakutsi zituen lanak Arkupen: "Gurutze Mujika pintore aretxabaletarrak eta biok batera jarri genuen erakusketa orduan; hark olio-lanak eta nik akuarelak, eta Urkulu izan genuen gai".

Loramendiko teknikari postura aurkezteko azken eguna da gaur

Teknikaria behar du Loramendi elkarteak, Aretxabaletako euskararen, kulturaren eta aisialdiaren gaineko proiektuak dinamizatzeko. Hogei orduko lan-jarduna izango du eta urtarri- bukaeran hasiko da lanean. Curriculumak bideratzeko helbidea honako hau da: euskara@loramendielkartea.eus. Azken eguna gaur da, egubakoitza.

Bazkide berriak egiteko epea zabalik Muru Alde elkartearen

Muru Alde elkarteak bazkide berriak hartzeko epea zabaldu du egunotan. Bertako bazkide izateko interesa dutenek murualdealartea@gmail.com helbidera idatzi behar dute, eta horretarako azken eguna otsailaren 5a izango da. Era berean, pandemia egoera dela-eta aurten ez dutela batzar orokorrik egingo jakinarazi dute.



Joan den zapatuan, frontoian, Axtroki Arku Tiro taldeko hiru lagun geziak jauritzeko prest. AXTROKI ARKU TIRO TALDEA

Axtrokiko arkulariak, punteria fintzen hasita

Axtroki Arku Tiro taldea zapatuetan batzen da, 10:00etatik 12:00etara bitartean, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Taldean zortzi lagun dauden arren, sei bakarrik elkartu daitezke, Eskoriatzako Udalarekin adostutako protokoloari jarraituz

Imanol Beloki ESKORIATZA

Duela urtebete sortu zen Eskoriatzako Axtroki Arku Tiro taldea, baina saioak urrian hasi zituzten. Hain zuzen ere, Joseba Iñurrategi pilotalekuan batzen dira zapatu goizetan, 10:00etatik 12:00etara bitartean, taldea osatzen duten arkulariak, euren zaletasuna praktikan jartzeko, goiz ona pasatzeko eta kirol ho-

rren ardatza den punteria hobetzeko asmoz.

Harrapatzen duen kirola

"Axtroki Arku Tiro taldea sortzeko federatu beharra zegoen Gipuzkoako Arku Tiro Federazioan, eta hori da lehenengo egin genuena. Horren ostean, norbanakoek ere lizentzia beharrezkoa dute praktikatuta gura

badute, eta taldea osatzen dugun zortzi lagunak federatuta gaude", adierazi du Oscar Escribanok, Axtroki Arku Tiro taldeko arduradunak.

Taldeakide batzuk ikasten ari dira; beste batzuk, aldiz, esperientziadunak dira, baina, Escribanok azpimarratu duenez, saioekin hasi berri, parte-hartzaile guztiei gustatu zaie arku

tiroa, eta "pozik" agertu da izan duen harreragatik. "Taldekoko lizentzia ateratzeaz batera, norbanakoek ere lizentzia ateratzea ezinbestekoa dute. 14 urtetik beherako batek 46 euro ordaindu behar ditu eta heldu batek, berriz, 62 euro. Horrez gain, Axtroki Arku Tiro taldean aritzeko, hileroko bost euroko kuota ordaintzen du parte hartzaile bakoitzak. Hortik ordaintzen dugu taldekoko lizentzia eta materiala. Izan ere, geziak hautsi egiten dira, dianak ere behar izaten ditugu... Hala ere, baditugu arku eta geziak parte hartzaileei uzteko, baina jendeak gogoz hartu duen kirola izan da, askok erosi dituzte arkuak eta geziak...".


Txapelketan aritzeko, goizegi

Zapatuetan egiten dituzten arku tiro saioak "ondo pasatzeko" eta "ikasteko" direla adierazi du Escribanok. "Dibertitzeko batzen gara, eta oraindik ez da gure asmoa txapelketetan aritzea. Federatuta gauden heinean, aukera dugu horretarako, eta taldean badago bateren bat interesa duena. Hala ere, ikusteko dago... Ez gara profesionalak eta guztiok ari gara ikasten; beraz, kirol hau probatu gura duenak zabalik ditu ateak".

Arku tiroa probatzeko

Eskoriatza Axtroki Arku Tiro taldeko kideek adierazi dutenez, norbaitek arku tiroa probatu edo taldean sartu nahi badu, zapatu goizetan joan daiteke Joseba Iñurrategi pilotalekura.

Horrekin batera, informazio gehiago edo argibiderik nahi duenak axtrokiarkutiro@gmail.com helbidera idatzi edo 615 79 92 58 telefono zenbakira dei egin dezake.



OSCAR ESCRIBANO

"Erakustaldiak egin nahi genituzke"

OSCAR ESCRIBANO

AXTROKI ARKU TIRO TALDEA

Escribanok dihardu arku tiroaren gainekoak irakasten. Talde txikia osatu duten arren, aurrera begira jende gehiago animatuko delakoan dago hura.

Taldean zortzi zarete, baina sei elkartu zaitezke, ezta?

Hala da. Zortziak batzen bagara, bi zatitan batzen dugu saioa: batzuk 10:00etatik 11:00etara eta beste batzuk 11:00etatik 12:00etara bitartean.

Horrekin batera, guztiok helduak gara, eta, adin txikikoak baleude, saioen dinamika aldatu beharko genuke.

Zabalkundea emateko, erakustaldiak egitea ere baduzue buruan?

Hori da gure helburuetako bat, baina, oraingoz, praktikatzeko aukera soilik badugu, gu pozik. Ikusiko dugu aurrerago.

'Formas de volver a casa' liburua izango dute aztergai

Urtarrilaren 21ean izango da Alejandro Zambra idazlearen lanaren gaineko solasaldia, kultura etxean

I.B. ESKORIATZA

Literatura Solasaldien barruan, Alejandro Zambra idazlearen *Formas de volver a casa* liburuaren nondik norakoak izango dituzte hizpide urtarrilaren 21ean, 18:00etan, kultura etxean

batzen diren herritarrek. Ane Zapatero koordinatzailearen gidaritzapean, saioa gaztelerez izango da, eta parte hartu gura duenak izena eman beharko du hilaren 20aren aurretik, libroteka@eskoriatza.eus helbidera

idatzita edo 943 71 31 35 telefono zenbakira deituta.

Augusto Pinochetaren diktaduraren konplize edo biktima bihurtzen ziren pertsonen eta idazten edo marrazkiak egiten ikasten ari ziren euren seme-alaben belaunaldiaz hitz egiten du Alejandro Zambra idazle txiletarrak *Formas de volver a casa* liburuan. Oinarria hori izan arren, baina, 1980ko hamarkadaren erdialdeko Txile erakusten du, 9 urteko haur baten ikuspegitik.

Jose Arana zaharren egoitzak, erizain bat kontratatzeke deialdia

Eskoriatzako Jose Arana nagusien egoitzak erizaina behar du lehenbailehen lanean hasteko. Lan eskaintzak eskatzen dituen baldintzak bete beharko ditu bertan hasi gura duenak, eta interesa duenak curriculumak bidali beharko du posta elektronikoz mlarranaga@josearana.eu helbidera, edo telefonoz deitu 943 71 46 57 zenbakira.

Lanaldia jardun osokoa izango dela adierazi du egoitzako zuzendaritzak, eta erizain titulua izatea ezinbestekoa dela azpimarratu. Horrekin batera, ordezkapeneko lanaldiaren ordutegian malgutasuna izan daitekeela adierazi gura izan dute.

Eginkizunei dagokienez, bere lanpostuaren kompetentziei dagokionak izango direla jakinarazi dute, eta, horrekin batera, gaineratu dute berehalako kontratazioa izango dela.



Maialen Lete, Tortolis ludotekako hezitzailea, argazkia ateratzen, umeak argazki rallyan parte har dezaten animatzeko. MAIALEN LETE

Enkoadraketa egin eta 'klik', irudi onenaren bila

'Hi selfie!' lehiaketan oinarritutako argazki rallya egingo dute ludotekako hurrek. Gaur, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako haurrak arituko dira; urtarrilaren 22an, LHko laugarren mailakoak; eta hilaren 30ean, berriz, LH-5 eta LH-6 mailakoak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gabonetako oporren ostean, bueltan dira Tortolis ludotekakoak, eta ekintza berezien eta dibertigarrien aldeko apustua egin gura dute urte berri honetan. Hori horrela, gaur ekingo diote Eskoriatzako Tortolis ludotekako hurrek *Hi selfie!* lehiaketan oinarritutako argazki rallyari. Hiru egubakoitzetan –urtarrilaren 15a, 22a eta 29a– egingo den ekintza izango da, eta, argazkigintzan murgilduz, zenbait teknika ikasi eta praktikatzeko aprobetxatuko dute parte hartzen duten hurrek; betiere, argazkia ateratzeko, *selfie* moduan, oinarria izanik.

8 eta 12 urte arteko hurrei zuzendutako ekintza da, eta Eskoriatzako leku desberdinen argazkiak ateratzeko probak egingo dituzte hurrek. Gainera, Tortolis ludotekako hezitzaileek adierazi dute sormenari ere garrantzia emango diotela, eta dibertsiorik ez dela faltako azpimarratu dute.

Lehiaketaren aurrerapena

Gaur, egubakoitza, 17:00etan izango dute *Hi selfie!* lehiaketako argazki rallyko lehenengo eguna, eta Tortoliseko hezitzaileek parte hartzen dutenek egin beharrekoa esan barik, honako hau aurreratu dute: "Gaur, egubakoitza, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako haurrak izango dira egitasmoan parte hartuko duten lehenak; urtarrilaren 22an, Lehen Hezkuntzako laugarren mailakoak arituko dira; eta urtarrilaren 29an, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailakoak, biak, batera. Ordubete iraungo du jolasak, eta eguraldi txarra badago aterpeetan arituko gara argazkiak atera-

TALDEAK GEHIENEZ SEI HAUREZ OSATUTAKOAK IZANGO DIRA 'HI SELFIE!' LEHIAKETAN

tzen. Hala ere, ez dira nolana hiko argazkiak izango, guk eskatuko dizkiegun ezaugarri eta baldintzak betetako erretratuak izan beharko dute. Gainera, *selfie* onena edo dibertigarriena ere aukeratu dugu", adierazi du Nekane Atxagak, Eskoriatzako Tortolis ludotekako hezitzaileak.

Neurri guztiak hartuta

Edukiera neurriak betetze aldera, hiru egubakoitzetan eskainiko dute ekintza bera. Hala ere, *Hi selfie!* argazki rallyan izena taldeka eman beharko dute egitasmoan parte hartu gura duten hurrek, eta gehienek sei hurrez osatutako taldeak izango dira. Beraz, Tortoliseko erabiltzaileei lehenbailehen izena emateko dei egin gura izan diete hezitzaileek.

Hain zuzen, parte hartu gura duten hurrek Tortolis ludotekara joan edo 688 60 13 74 telefono zenbakira *whatsapp*-a bidali beharko dute.



Eskoriatzako gaztelekuko sarrera. ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

Natura eta euskara oinarri, murala egingo dute gaztelekuan

Nerabeek taldeetan banatuta ekingo diote lanari, eta txandak errespetatu beharko dituztela nabarmendu dute

I.B. ESKORIATZA

Asteburu honetan gaztelekuko pareta batean mural bat margotuko dute nerabeek, taldeetan banatuta. Natura eta euskara izango dira muralerako gaiak, eta irudiak denen artean aukeratu dituzte. Hala, gaur, 17:00etan emango diote hasiera pareta margotzeari.

Interesa duten nerabeek parte hartu ahalko dute talde bakoitzari dagokion txandan. Hala ere, hezitzaileek nabarmendu gura izan dute ekintzan parte hartu nahi dutenek zikindu daitekeen arropa eraman dezatela.

Hezitzailea behar da

Bestalde, Eskoriatzako Udalak jakinarazi duenez, hezitzailea behar da Eskoriatzako gaztelekuan 2020-2021 ikasturterako. Hala, interesa duenak curriculum bidali beharko du *J.ojae@txatxilipurdi.eus* helbidera, urtarrilaren 18a baino lehenago.

Aukeratu artean, elkarrizketak urtarrilaren 20an, 21ean eta 22an egingo dira, eta lanean otsailaren lehenengo astetik aurrera hasteko izango litzakeela adierazi dute. Informazio gehiagorako, 943 79 54 46 telefono zenbakira deitu daiteke.

GORA ETA BEHERA



AITOR BELOKI

Elurra kentzeaz gain, harriak errepidera

Elurra kentzeko makinak pasatzen direnean, palarekin errepidea ere kolpatzen da, zorua uniformea ez denean. Hori gertatu da, kasu honetan, Mazmela auzoan gora.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Kantxakoa zuzenean jarraitzeko bidea dago

Eskoriatza Kirol Elkarteko partiduak 'streaming' bidez jarraitzeko aukera eskaintzen dute Omar Martin eta Andoni Moto eskoriatzarrek. Proiektuarekin ilusionatuta, orain arte egindakoak hobetzen eta gauza berriak egiten hasi nahiko lukete

Imanol Beloki ESKORIATZA

Harmailak hutsik egon arren, Manuel Muñoz kiroldegian jotzen diren partiduak etxetik zuzenean edo edozein lekutatik gailu batekin -ordenagailuarekin, tabletarekin edo mugikorrarekin- jarraitzeko aukera eskaintzen dute Omar Martin eta Andoni Moto Eskoriatza Kirol Elkarteko kideek, elkarteko zuzendaritzaren onespenerekin.

Youtube plataforman *Eskoriatza KE* orrialdean emititzen dituzte asteburuetako partiduak. Markagailuarekin, errotuluekin eta bestelako ezaugarriekin osatuta, poliki-poliki fintzen ari dira gauzak, eta ilusioz hartu duten proiektua dela adierazi dute egitasmoaren bultzatzaileek.

Eskoriatzako zaleak mimatu

"Pandemia iritsi berri, *streaming*-a egiteko ideia martxoan sortu zitzaigun, eta areto futbolero Euskal Kopa jokatu zen asteburuan hasi ginen proiektu honekin. Azken urteetan, hazi

egin da Manuel Muñoz kiroldegiko zale kopurua, eta harmailak beteta izan ditugu zenbait jardunalditan. Hori ikusita, gaur-gaurkoz, ateak itxita edo zale barik jokatzeko ari direnez, partiduak etxetik jarraitzeko aukera eskaintzen dugu, eta harrera oso ona izan du, gainera", adierazi du Eskoriatza Kirol Elkarteko Andoni Motok.

Akatsak zuzentzeko modua

"Zaleei zuzendutako egitasmoa bada ere, grabatutako partiduak oso-osorik gordetzen dituzte, eta gero, taldeek horiek baliatzen dituzte, aztertu eta egindako akatsak ikusi, hobetu eta aurrera begirako jokaldiak prestatzeko, bide batez.

HARMAILAK HUTSIK DAUDEN UNE HONETAN, PARTIDUAK ZUZENEAN ETXETIK JARRAITZEKO AUKERA

Berrikuntzak ezartzen

Oraingoan, maila nazionalean ari den Eskoriatza areto futbol taldearen partiduak ari dira grabatu eta zuzenean emititzen asteburuetan, baina asmoa kirol elkartearen osatzen duten kirol modalitate guztien saioak egitea dela adierazi du Andoni Motok. "Une honetako helburua hori da. Interneteko tutorialak ikusiz ikasten ari gara, eta etxean dugun materialarekin moldatzen gara, nolabait. Gustura ari gara proiektuarekin, eta gauza berriak probatzen ere hasi gara. Esaterako, markagailu berria jarri dugu, irudiak ere baditugu atsedendian emititzeko, *chroma* bat jartzea ere badugu buruan taldekideen aurkezpenak egiteko, eta babesletza lortzea ere badugu buruan. Horrekin batera, partidu osteko adierazpenak egiten hasi nahiko genuke, eta, norbait esatari lanetan hasteko gertu egongo balitz, izugarria izango litzateke, baina, esan bezala, poliki-poliki".



Partidua zuzenean grabatzeko eta errealizazioarako material guztia prest, kiroldegiko harmailen atzean. ANDONI MOTO



Joan den zapatuko agerraldian talde argazkirako batu zirenak. SARE GATZAGA

Gatzagarrek ere euskal presoen eskubideen alde egin dute

Presoen etxeratzearen, elkarbizitzaren eta bakearen bidean talde argazkia atera zuten zapatuan Gatzagan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Euskal presoen eta iheslarien eskubideen defentsan, hotzari eta elurrari aurre egin zioten gatzagarrek zapatuan. Izan ere, Herriko Plazan batu ziren 40 lagun inguru, Izan Bidea deialdiarekin bat eginez.

Sentimendu kontrajarriak

Alizia Saez de la Cuesta preso gatzagarra, Euskal Autonomia Erkidegoko edo autonomia-erkidego horretatik gertu dauden espetxeetara eramatea erabaki zuten urrian Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak. Kasu honetan,

Castellon II espetxetik Logroñora eraman dute.

Familiakoek pozik hartu dute etxetik gertuago egotea, baina eskubideak murriztu egin ditela azpimarratu du Inazio Gabilondok, Aliziaren senarrak: "Abenduaren erdialdean eraman zuten Logroñora, eta gertuago izatea pozgarria da. Hala ere, lehenengo, hamar egunetan koarentena egin behar izan zuen, eta, bisitei dagokienez, laukoak izaten ziren lehen, eta orain, berriz, bi pertsonakoak dira. Beraz, alaba biekin batera ezin dut bisitatu aldi berean Alizia..."



IBAN MARTINEZ

Elurra urtu aurretik gozaten

Leintz Gatzagan elurra urtzen ari den arren, Gatza-gain aldera, Pagoeder inguruetara eta alboko belardietara joanez disfrutatzeko aukera dago oraindik; izan ere, goiko argazkiko pertsona bezala, zenbait lagun aritu dira eskiekin eta snowboard oholekin, besteak beste, jaitsierak eta saltoak egiten elurretan.



30 kilometro orduko gehienezko muga zehazten duen seinalea Zubieta kalean, astelehen arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

Gehienezko 30 kilometro orduko abiadura ezartzen lehen herria da Bergara

DGtK agintzen duenez, 2021eko ekainerako udalerrri guztiek ezarri beharko dute neurria, eta Bergara izan da urte berriarekin batera aplikatzea erabaki duen Debagoieneko lehen herria; segurtasuna handitzea da helburu nagusia, eta gutxiago kutsatzea ere lortuko da

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergara izan da Debagoieneko lehen udalerrria ibilgailuendako 30 kilometro orduko gehienezko abiadura ezarri duena. Trafiko-kon Zuzendaritza Nagusiak (DGT) bide-segurtasuna handitzeko egin duen moldaketa da eta herri guztiek ezarri beharko dute 2021eko ekainerako. Hain zuzen ere, DGtK hainbat ikerketaren emaitzetan oinarritzen du neurria, bide-segurtasuna handitzen duela diotenak; besteak beste, larriki zaurituen kopurua %3 murriztuko litzateke eta heriotza kopurua, berriz, %4.

Moldaketen artean dago erreik bakarria eta zirkulazioaren noranzko bakarria duten kaleetan abiadura muga 50 kilometro orduko izatetik 30 kilometro orduko izatera pasatzea. Bergarako kasuan, herrigune osoan joan beharko dute ibilgailuek,

gehienez, 30 kilometro orduko abiaduran. "Arrazoi ezberdinak daude neurria aplikatzeko. Batetik, zarata-mapak jasota zuen herri barruan abiadura murrizteko neurriak behar zirela, baina, batez ere, Espainiako Gobernuak ekainera arteko epea zehazten du 30 kilometro orduko gehienezko muga ezartzeko neurria, eta lehenbailehen ezartzea erabaki dugu. Izan ere, herritarrei kale seguruagoak, kutsadura-maila txikikoagoak eta atseginagoak bideratzeko aukera ematen du neurriak", dio Gorka Artola alkateak.


BESTEAK BESTE, HERIOTZA KOPURUA %4 MURRIZTUKO LITZATEKE, DGT-REN IKERKETEN ARABERA

"Esfortzu bat" askorentzat

Herrian badira guneeak orain arte gidariak 30 kilometro orduko baino azkarrago joateko ohitura dutenak; herriko periferian, esaterako, Labegarieta-ko Zabala jatetxea zena dagoen zuzenean abiadura askoz handiagoak hartzen dira. Halako adibide zehatzen aurrean, Udalak badu aurreikusita beste neurriren bat hartzea.

Hala ere, alkateak uste du Bergarako gidari askori ohitura aldaketa bat ekarriko diela neurri berriak: "Uste dut gidariok esfortzu bat egin beharko dugula, leku batzuetan abiadura handiagoak hartu izan direlako. Bestetik, kaleko gainerako erabiltzaileendako -oinezkoak, bizikletak, patineteak...- eremu seguruago bihurtuko dugu herrigune; ahalegina egin behar dugu elkar ondo moldatzeko".

Ados zaude neurri berriarekin?




AMPARO LIJO ANTZUOLAN BIZI DEN BERGARARRA

"Oso ondo iruditzen zait, auto asko abiadura bizian joaten dira herri barruan; oinezkoak-eta lasaiago joango dira orain. Hori bai, nahiko argi daukat gidari guztiek ez dutela neurri berria errespetatuko, denetarik egongo dela. Hala ere, uste dut gero eta gehiago errespetatzen ditugula seinaleak; joango gara ikasten, helburuak merezi du".




JAVIER GARITANO BERGARARRA

"Herri barruan geldoago mugitu beharra dagoelako jarriko zen, baina zalantzak ditut ea denok errespetatuko dugun. Bilbon jarri dute... eta betetzen da? Han ondo badoa, hemen ere aplikatu beharko litzateke, edo? Gutxiago kutsatuko dela diote ere, baina badira zuzendu beharreko beste kutsadura iturri batzuk... Hala ere, ados nago, orokorrean".



ROBER GOMEZ BERGARARRA

"Ados nago. Zubieta kalean bizi naiz eta ibilgailu mugimendu handia dago han. Auto asko azkarregi pasatzen dira eta zebra-bideak ez dira askotan errespetatzen; umeekin ibiltzen garenek badakigu zer den hori, eta pixka bat nekatuta gaude. Hasieran, igual, kostatu egingo zaigu, baina pixkanaka onartuko dugu eta hoberako izango da".



KONTXI IDIGORAS BERGARAN BIZI DA

"Ni ados nago neurriarekin, egokia iruditzen zait. Gaur egun, autoa oso gutxitan hartzen dut eta herri barruan oinez mugitzen naiz ia beti. Beraz, gidariak ohiturak aldatu eta neurri errespetatzen badute, oinezkoak lasaiago ibiliko gara, seguruago. Gutxiago ere kutsatuko du; ez diot alde txarrik ikusten erabakiari".

Patinete elektrikoak ere, errepidera

2021eko urtarrilaren 2an indarrean sartu zen patinete elektrikoak espaloietatik eta oinezkoen gunetatik ateratzeko agindua. Horrek esan nahi du urtarrilaren 2tik aurrera patinete elektrikoek ibilgailu izaera dutela eta, ondorioz, errepidetik zirkulatu beharko dutela. Datozen asteotan, udaltzainek patinete elektrikoak erabiltzaileei arau berriari buruzko informazioa emango diete, modu pedagogikoan. "Bizikletek bezala, patinete elektrikoak errepidera egin beharko dute salto; hala zehazten du Espainiako Gobernuaren legeak. Hori bai, udaltzainek arau berriaren berri emango diete patinete elektrikoak erabiltzen dituzten herritarrei, egoera berrira moldatu daitezen". Udaltzainek uste du halako lege aldaketa baten aurrean pedagogia egin behar dela, isunak jartzen hasi baino lehen.

Hegala buruhauste iturri, lau urte geroago ere

2017ko urtarrilean lur-jausi handia gertatu zenetik Boluko magalari jarraipena egin beharrean dago Udala; azken albistea da hilabetez itxita egongo dela bidegorria, segurtasuna bermatzea helburu hiru puntutan egonkortze-lanak egin behar direlako

Jokin Bereziartua BERGARA

2017ko urtarrilaren 16an Bolu kaleko eraikinen atzeko mendi-hegalean izan zen lur-jausiak albiste izaten jarraitzen du. Mendi-hegal hori buruhauste iturri da, lau urte geroago ere. Ezbeharra gertatu zenean, emergentzia egoera betean, etxea utzi behar izan zuten bizilagunak euren etxeetara bueltatzeko hainbat lan egin ziren urgentziazko izaeraz. Ingek SLP enpresak gunearen azterketa geologikoa eta geoteknikoa egin zuen, edozein interbentzioren aurrean izan zitezkeen arriskuak neurtzeko. Gero, 2018ko martxoan, Udalak Ingek eta Sestra enpresei mendi-hegala egonkortzeko proiektuaren idazketa esleitu zien, eta 2019ko otsailan aurkeztu zuen EAJren Udala Gobernuak magala egonkortzeko 612.315 euroko inbertsioa – hiru fasetan gauzatzeko– ekarri zuen obra.

Udalak guneari jarraipena "maiztasun handiz" egiten dionez,

2020ko azaroaren 8tik 12ra bitartean bidegorriari erantsitako ezpondetatik datozen bloke eta legar ugari daudela ikusi zen. Hilabete hasierako prezipitazio ugariak eraginda gertatutakoak direla ondorioztatu, eta lan batzuk egitea erabaki zuen Udalak.

Harkaitza lotu, eta ondoren sarea Urtarrilaren 11n hasi ziren lanak bidegorrian. Hiru puntutan blokeak erortzeko arriskua murrizteko lanak dira, eta, lanon ondorioz, bidegorria itxita egongo da hilabetez; egunotan, ezponda garbitzeko lanetan ari dira. Oinezko askok erabiltzen duten bidegorri horretan segurtasuna bermatzeko ezponda sistema dinamikoak erabiliko dira. Pika,

AZKEN EGUNOTAKO ELURREN ETA EURIEN ONDORIOZ, "ERORKETA TXIKI BAT" IZAN DA BESTE GUNE BATEAN

buloi eta torlojuak josi egingo da harkaitza, eta, ondoren, solte gelditu litezkeen elementuei eusteko sarea jarriko dute.

Lan berrietarako 45.000 bat euro Azken egunotako elurteen eta euriteen ondorioz beste gune baten "erorketa txiki bat" izan dela ere jakinarazi du Udalak: "Teknikari adituek gunea aztertuko dute, lanen bat egin behar den jakiteko. Ezpondan zehar hainbat harkaitz txiki daude, oinezkoen segurtasuna baldintzatzen ez dutenak. Informazioa azalduz karteltxo batzuk josiko dira horman".

Obren exekuzioa Geotunel SL enpresari esleitu dio Udalak, 43.724 eurotan, BEZa barne. Bestetik, lanen zuzendaritza Ingek SLP enpresaren ardura da – 2.783 eurotan esleitu zaio, BEZa barne–. Eta, azkenik, BSP Servicios de Consultoria Tecnica SL enpresa izango da eremuko segurtasun eta osasun lanen koordinatzaile ardurak izango duena.



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

Elur zuriaren zuri-tasuna

2021arekin batera elurra heldu da. Honek zuri-zuri utzi ditu gure teilatu, kale, parke eta, zer esanik ez, mendiak. Mendiak... Guztiak elur kapa handiarekin, jende asko bertaratuz honekin gozatzeko. Mendiak... Zenbat denbora daramadan horietako batera igo gabe... Nostalgia? Ez, ez dut nostalgirik, mendira joan gabe denbora asko daramadan arren, astebetean Euskal Herriko mendien erdiak –mendi txikiak, ziurrenik– ikusi ditudalako. Nola den hori posible? Nahikoa da Instagrameko kontu bat edukitzea eta mendi hauek zuriz janztea. Honela, bat-batean, bat, bi, hiru, lau, bost... Elurraren 500 argazki!

Badirudi elurra egiten duenean mendira joatea arau bihurtzen dela. Araua... Zein da araua? Mendi zuri horietara igotzea edo sare sozialetan igo izanaren argazkiak / frogak zabaltzea? Guztioi elurra zuria bezain polita dela erakustea? Gainerakoek egin bezala, elur kapa handia egonik mendira joan zarela erakutsiz, zure inguru zuriarekin, zure burua zuritzea? Lagunok, joan zaitezte mendietara eta disfrutatu ezazue elurraz! Hori bai, zin dagit elurra zuria dela ikasi dugula dagoeneko.

Mintzapraktiketako taldeetan izena emateko garaia da!

Goiena komunitatea

Jardun / BERGARA

Parte hartu al duzu bigarren Euskaraldian? Ziur baietz! Orain, euskaraz egiten jarraitzeko garaia da. Ez duzula saltoa eman oraindik? Garaiz zabilta! Mintzapraktikako taldeetan lagun artean euskaraz aritzeko aukera bikaina duzu! Eman izena Mintzapraktikako taldeetan!

Talde txikiak egiten dira eta astean behin ordubetez aisialdi garaian elkartuko dira paseoan, kafetegian, parkean... Euskaraz aritzeko, euskaraz bizitzeko.

Bi modutara har daiteke parte, euskara praktikatuz –bidelaria– edo euskaraz egiten lagunduz –bidelaguna–. Mintzalagun bihurtzeko baldintza bakanak dira euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astero ordubetez elkartzeko gertu egotea. Izena emateko: jardun@topagunea.com edo 605 71 24 69.

OHARRAK

'Bertakoa iratzartzen' lana, bertan behera

Gaurko, hilak 15, 18:00etarako Seminarixoan eman behar zen *Bertakoa iratzartzen* dokumentalaren emanaldia bertan behera geratu da, "egileen azken orduko agenda arazoengatik".

BKEko futbol saila: gazteenen izen-ematea

Urtarrilaren 18an eta 19an, BKEko arduradunak Agorrosinen egongo dira 18:00etatik 19:30era, 2009an, 2010ean, 2011n eta 2012an jaiotako neska-mutikoak futboleko has daitezten.

Gure Artera Sareren marisko-jana: irabazleak

Gabonetako zozketen artean klasiko bat da euskal presoen aldekoa. Amaia Vicente eta Iñaki Olañeta izan dira irabazleak; antolatzaileek partaide guztien ekarpena eskertu dute.

Lokatza Ziklismo Eskola: batzar orokorra

2021eko batzarra urtarrilaren 27an egingo dute, Agorrosinen (19:00). Gai nagusiak: 2020ko balantzea eta 2021eko aurrekontua.

Zaborraren, estolderiaren eta uraren tasak

2021eko martxoaren 10era arte dago 2020ko laugarren hiru hilabeteagoko agiriak ordaintzeko. Argibide gehiagorako: BAZ.



Langile bat garabian Boluko bidegorrian barrena, atzo goizean; lanen ondorioz, hilabetez itxita egongo da bidegorria. ALICIA ETXANIZ

Erasoak bistaratu dituzte, kontzientziak astintzeko

Ipintzako batxilergoko bigarren mailako psikologia ikasleek 'Me too' proiektua garatu dute institutu barruan, eraso matxistak jasan dituzten bertako ikasleen testigantzak modu anonimoan jasota; lehen ondorioa da oraindik ere gaia lantzeko "premia handia" dagoela

Jokin Bereziartua BERGARA

2017ko urrian eraso matxistak salatzen sortu zen *Me too* izenez mundu mailan ezagun egin zen fenomeno, AEBetako zinema ekoizle Harvey Weinstein-ek jasotako jazarpen salaketa andanak eraginda. Horren harira, 2020ko azaroaren 25aren bueltan, Ipintza institutuko batxilergoko bigarren mailako Psikologia irakasle Olatz Sebalek *Me too* izenarekin Soraluzen abiatutako proiektu baten berri eman zien ikasleei, eta gonbidapena egin zien, eurek ere "zerbait" egin zezaten.

"Soraluzeko talde feministatik erakusketa bat osatu genuen testigantza batzuekin. Gero, Ermuko institutuan irakasle nintzanean ere bizi izan genuen esperientzia, eta oso interesgarria izan zen; horregatik erabaki nuen Bergarako Ipintzan ere proposatzea, azaroaren 25aren bueltan. Hasieratik izan zuen harrera oso ona, Psikologiako bi gelak inplikatu ziren. Herri mailan zein institutuan lantzeko oso proiektu interesgarria da", azaldu du Sebalek.

Oraindik ere, "premia handia"

Ipintzako *Me too* proiektua landu duten protagonistak aipatu beharko bagenitu, lau izen ai-



Bikotekidearen eraso bat irudikatzen duen ikasleek egindako bideoaren une bat. IPINTZA

patu beharko lirake, ezinbestean: Eder Elkoroberezibar, Alazne Jauregi, Jone Sanz eta Janire Bassecourt. Lau ikasleek nabarmendu dute asko hunkitu dituela proiektuak, eta, Inaxio Narbaiza irakasleak nabarmendu duenez, lehen ondorioa izan da oraindik ere "premia handia" dagoela halako proiektuetarako: "Ikasleek garbi atera duten lehen ondorioa izan da sekulako beharra dagoela oraindik ere gai hau lantzeko. Belaunaldi berrien artean informazio eta kontzientziazio falta dago oraindik ere".

Narbaizak gaineratu du ikasleek hasieratik erakutsi dutela erabateko inplikazioa: "Bikainekoa merezi dute nota jarri beharko bagenie, sekulako heldutasuna erakutsi dute".

Testigantzei dagokionez, "ikaratzekoak" direla dio Narbaizak: "Pentsa genezake gaur egun halakoak gaintuta izango zirela, baina oraindik bide luzea dago egiteko. Horregatik, gaia eskolatan lantzea behar-beharrezkoa da; ikasleek eurek proposatu digute Lehen Hezkuntzako ikasleekin ere lantzea, esaterako".

Zubieta Berri: "Prozesu irekia nahi dugu eskolako oruberako"

Zubieta berriro urbanizatzea da euren lehentasuna, baina eskolako kaleko "aisialdirako gunek bakarrik" dela diote

J.B. BERGARA

Kontseilu Sozialista kolektiboak 2020ko abenduaren 26an Zubietako eskola zaharra okupatu izanak orube horren gaineko erabilaren eztabaida zabaldu duela eta, bertako bizilagunak

"modu zabalean" ordezkatzen dituen Zubieta Berri elkarteak oharra kaleratu du, gaiaren gaineko euren iritzia eman eta elkartearen helburuak zeintzuk diren azaltzeko. Hain zuzen ere, euren helburu nagusia da Zu-


bieta kalea berriro urbanizatzen proiektua martxan jartzea: "Gure lehen helburua da Zubieta kaleak bizi duen degradazio urbanistikoa bere osotasunean buelta eman eta irisgarritasuna bermatzea. Eta, bide horretan, kalea konpontzeko obrak 2021an hasiko zirela adosteaz gain, Udalarekin prozesu bat adostuta daukagu. Lanak hasi aurretik ekarpenak egiteko aukera emango digun prozesua izango da, Udalak ahal duen neurrian konpultuan hartuko duena".

Interes orokorra lehenestea

Eskola zaharreko orubea ez dute erabiliko, oraingoz: "Irisgarritasun parametroak betetzen ez dituen heinean, hau da, erabiltzeko herritar guztion eskubidea bermatzen ez den bitartean, guk ez daukagu bertan inongo ekin-tzarik abiarazteko asmorik. Eta kalea berritzeko ikuspegi integral batetik, orube hori berrantolatzearen aldeko apustua egiten dugu. Irisgarritasuna ziurtatu eta aisialdia lehenetsita, horretarako kale osoan daukagu


gune bakarrik delako". Eskolako orubeari ze erabilera eman zehazteko, partaidetza prozesua proposatzen dute: "Udal orube eta eraikinen kudeaketaren arduraduna Udala denez, dinamika horiek zehazteko prozesu parte-hartzaile bat martxan ipintzea proposatzen diogu. Ahalik eta irekiena. Inguruko bizilagunak -Zubieta, Mugertza eta San Lorenzo-, interesa duten herriko eragile guztiak eta Udala aintzat hartuta, eta interes orokorra lehenetsita".

Proiektuaren egile nagusien iritzia



EDER ELKOROBEREZIBAR
IPINTZA INSTITUTUKO IKASLEA

"Ahotsa eman diegu orain arte isilik egon diren egoera batzuei, eta horrek garrantzia ematen dio proiektuari. Testigantza batek bereziki astindu nau: ama batek bere alabak bizitako egoera baten berri ematen zuen, harreman toxiko baten zegoela esanez; gerora, alabak aitortu zion ez zuela bere buruaz beste egin familiartekoengatik...".



ALAZNE JAUREGI
IPINTZA INSTITUTUKO IKASLEA

"Testigantzak latzak dira, ez da onargarria. Modu anonimoan jasota ere, asko eskertzen dugu bizipen latz horiek partekatu izana. Aurkezpenek erantzun positiboa izan dute eta ez dugu nahi lan hau Ipintzan bakarrik geratzea. Are gehiago, LHko ikasle batzuei ere ireki beharko litzaieke, heziketa sexuala lehenbailehen jaso dezaten".



JONE SANZ
IPINTZA INSTITUTUKO IKASLEA

"DBHn eta batxilergoan gelaz gela joan ginen proiektua zer zen azaldu eta eraso matxisten testigantzak jasotzeko. Hainbat testuingurutan gertatzen dira erasoak: familian, kirolean, parrandan... Edukia zabaltzeko bideo bat eta aldizkari txiki bat sortu dugu. Isilpean geratzen diren erasoak dira gehienak, eta ezagutzera eman behar dira".



JANIRE BASSECOURT
IPINTZA INSTITUTUKO IKASLEA

"9 urteko neska batek bere lehenegusaren partetik bizitako eraso batek piztu dit arreta handien. Familia barruan ere gertatzen dira, eta norberari gertatu ahal zaiola pentsatzea bakarrik... Gogorra izan da halako egoerak bertako ikasleei pasatu zaizkiela jakitea, baina merezi izan du, errealitate hau azalera egin behar delako".

Bizimoduak birpentsatu, gutxiagorekin aritzeko

Azken hamarkadetan garatutako bizi-eritmoa "bidera ezina" izango dela eta, etorkizuneko desazkundearen aurrean kooperatibismoan oinarritutako moldeak eraiki behar direla azaldu zuen Seminarixoan, hilaren 12an, Joseba Azkarraga irakasleak

Hasier Larrea BERGARA

Hausnarketa sakonerako tartea irekiz eman zion hasiera joan den asteartean Joseba Azkarraga EHUko irakasleak *Trantsizio sozioekologikoa* titulupean Bergarako Udalak eta Laboratorium museoak antolatuta duden hitzaldi zikloari. Irakasle abadiñarrak gaur egungo gizartearen "kolapso-egoera" ulertzeko gako soziologiko eta zientifikoak eman zituen Seminarixoan batu ziren entzuleen aurrean, datozen 30 urteetan planetaren bilakaera nolakoa izango den irudikatu aurretik.

Zientzialarien ikerketei erreparatuta, "2050ean munduko biztanleria %90 jaitsi daitekeela" nabarmendu zuen soziologoak. Ikuspegi katastrofista dirudien arren, joera horretan sinesteko arrazoiak ikusten ditu Azkarragak: "Etorkizuneko joko-zelaian garrantzi handia jokatuko dute ekonomiak, bioaniztasunak, klimak eta energia-krisiak, gogor joko dutelako gizakiaren orain arteko interesen aurka". Hala ere, fenomeno horiek "aspaldiko partez" etorkizun irekia planteatzen dituzten erabakien arabera".

Erabaki horiek mundua lau agertokitako batean kokatuko



Ekonomia sozial eta solidarioan aditua da Durangon bizi den abadiñarra. GOIENA

dutela uste dute adituek: "Posible da gure jarrerak lurra suntsitzea, luraren osasuna gure buruari jarritako murrizketen eraginez hobetzea, giza arraza abiadura handian iraungitzea edo giza baliabideak hobetzea planetak eskaintzen dituen ondasunak behar bezala erabilia".

Ezbairik gabe, laugarren agertoki horren aldeko apustua egin beharra dagoela argi dauka Azkarragak, eta oraindik "garaiz" ari garela gaineratu du, nahiz eta "urteak diren aurreikuspen ezkorrek egiten ari garela".

2008a ezker, erantzun bila

Duela hamahiru urte jazotako krisi ekonomikotik gizartea "hazkunderen norabidea berrartze"ko mirarizko formula topatu nahian" ari dela aipatu du EHUko irakasleak. Askok "austeritatean zein progresismoan" oinarritutako politikak jarraitu behar direla defendatzen duten bitartean, "justizian, ordenan, bakean, kooperatibismoan" eta halako balioetan oinarritutako politikak aurrera atera daitezkeela defendatzen dute beste batzuek. Hala, gauzak egiteko

bigarren modu horretara heltzea "erronka historikotzat" jo du Azkarragak, "aurretik dugun desazkundera" kudeatzeko bidean.

Hirien "dekadentzia"

Datozen "erronka konplexuei" erantzuteko, gaur egun egoera oso ezberdinean dauden bi hiri jarri ditu ikerlariak adibide bezala: "Batetik dago Habana hiria, non bertan kontsumitzen den janariaren %60 ekoizten den hirian bertan hazitako baratzeetan; eta bestetik dugu hiri-mamua bilakatzen ari den Detroit, non bertako biztanleek inguruko nekazari herrietara emigratu duten, pixkanaka".

Gizarte burujabe bihurtzeko bidean, beraz, janaria non ekoizten den berebiziko garrantzia izango duela argi dauka Azkarragak, eta, "ziur aski", hirian bizi den jende askok herri txikiagoetara joateko hautua egingo duelakoan dago.

Izan ere, batez ere, hirietan sekulako tenperatura igoerak egongo direla antzematen dute zientzialariek: "2050ean, Madril gaur egun ezagutzen dugun Marrakex bezalakoa izango da, Paris Madril bezalakoa, eta Londres Bartzelona bezalakoa", bota du abadiñarrak.

Eta Debagoienean, zer?

Azkarraga 13 urtez aritu zen MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean irakasle lanetan; ondorioz, gertutik jarraitu izan du bailararen bilakaera. Debagoienak ze etorkizun izan dezakeen galde-tuta, "muskulu handiko eta nortasun propioa" eskualdea dela jakitun, "gogoetetatik abiatutako ekimenak martxan jartzeko gaitasuna" daukala azpimarratu du, eta Debagoie-

Hiru hitzaldi gehiago

Datozen asteetan jarraipena emango diote solasaldi-zikloari. Hona hemen datak eta mintzagaiak:

Urtarrilak 26: *Bioaniztasuna eta basogintza. Euskal Herriko basogintzaren erronkak*. Hitzlariak: Arturo Eloseggi eta Iñaki Madinabeitia.

Otsailak 9: *Elikadura burujabetzarako bidea nola egin*. Hitzlariak: Mirene Begiristain eta Aitzol Iturbe.

Otsailak 23: *Goienar eta energia komunitateak*. Hitzlariak: Santi Otxoa eta Oier Etxebarria.

na 2030 ekimena "interesgarria" iruditu zaio ibarrak jasagarritasunerako urratsak egin ditzan.

Irakaslearen esanak entzun zituztenak ideia batekin atera ziren asteartean Seminarixotik: urteetan gehiago edukitzea hobetsi bada ere, hemendik aurrera buruek kontrakoa pentsatzera ohitu beharko dutela; hau da, hobe-beharrez gutxiagorekin konformatzera. Naturak ere izango du zer esan bizimoduaren kudeaketan. Hemendik aurrera, inoiz baino gehiago.

"DEBAGOIENAK NORTASUNA ETA MUSKULUA DITUENEZ, ERRONKETARA EGOKITU DAITEKE"

Hitzaldia, herriko piezen eta artelanen zaharberitzeari buruz

Bihar, zapatua, Artez enpresakoek herritarren interesa asetzeko azalpenak emango dituzte Laboratoriumen

H.L. BERGARA

Bergarako Laboratorium museoko bilduma era egokian mantentzeko azken urteetan egindako esku-hartzeak herritarrei azaltzeko asmoz, hitzaldia antolatu du Bergarako Udalak

biharko, hilak 16, 11:00etan hasita. Rosa Errazkin Laboratoriumeko arduradunaren esanetan, "bergarar askok lan horiek ezagutzen ez dituztelako eta egindakoaren berri ematea komeni delako" emango dituzte

azalpenak, Laboratoriumen bertan, Artez Zaharberitzea enpresako Aida Paya Montesinos eta Maite Fernandez Azcona kideek. Bergaran dute egoitza Arte Ederretan lizentziatuak eta zaharberitzean espezializatuak diren bi langileek, eta euren eskuetatik pasa dira Gipuzkoako Foru Aldundiko eta zenbait udalerrri eta elizbarrutitako pieza zein artelanak.

Gordailuan, Laboratoriumen zein San Telmo museoan eta partikularrentzat ere egin dituz-

te egokitzapenak, ogibidean ibilbide oparoa egin duten seinale. Urte hauetan ikasitakoaz, artelanetan interbenitzeko moduez, ondare historikoa zaharberitzearen garrantziaz, museoarentzat lan horrek duen esanahiaz eta, bereziki, Bergaran izandako esku-hartzeaz egingo dute berba Payak eta Fernandezek.

Hitzaldian parte hartzeko bi modu egongo dira: batetik, Laboratorium museora bertara gerturatuta, eta, bestetik, 943 76 90 03 telefonora deituta. Saioa

doakoa izango da, eta hogeit hamar pertsonarentzako edukiera mugatua egongo da, segurtasun neurriak errespetatu daitezten. Euskaraz eta gazteleraz emango dituzte azalpenak.

Kontserbazioa, "urtero"

Museoan dauden anatomiako eta zoologiako elementuak eta instrumentu zientifikoak, besteak beste, urtero gainbegiratzen dituzte, duela 20 urte Seminarioko ondarearen errehabilitazioa hasi zutenetik.

Lazkano eta Askasibar protagonista Aroztegin

Lorenzo Askasibar 91 urteko eskultore elgetarrari omenaldia egingo diote aurten, eta bere lana ikusgai izango da Aroztegin; era berean, erakusketa aretoak lehenengoz hartuko du Jesus Mari Lazkano bergarar margolari figuratiboaren lana

Jone Olabarria BERGARA

2021erako Aroztegi aretoan egingo diren erakusketen egutegia osatu ostean, asteon eman du aditzera bertan ikusgai egongo diren artisten eta erakusketen zerrenda Bergarako Udalak. Maider Osa Kultura teknikariak zehaztu duenez, "lan zaila" izan dute aurten, "asko izan baitira euren kalitate handiko lanak aurkeztu dituztenak; gainera, txosten oso landuekin aurkeztu dituzte".

"Izen handiko artistak"

Apirilaren 16tik maiatzaren 23ra hartuko ditu Aroztegi Jesus Mari Lazkano margolari bergararren lanak, lehenengoz. Lazkano pintura errealistaren adierazle nagusietako bat da, Jakiundeke arteen akademiako kidea eta Arte Ederretan dokorea EHUUn. Bere lanak hainbat museotan daude ikusgai; adibidez, Guggenheim Bilbao Museoan: "Aspalditik ekarri nahi genuen Lazkano Aroztegi, eta Udalak egindako eskaeraren fruitua izan da. Luxua da Bergaran izatea bere lanak, artista handia da Lazkano".

Askasibarren lanari aitortza

Iazko aurreikusita zegoen arren, pandemiak Lorenzo Askasibar



Pintura errealistaren adierazle nagusietako bat da Lazkano bergararra. J.B.

"ASPALDITIK EKARRI NAHI IZAN DUGU LAZKANOREN LANA; LUXUA DA AROZTEGIN ERAKUSKETA EGITEA"

elgetar eskultorearen erakusketak eta omenaldia atzeratu zituen. Beart elkartearen laguntzarekin antolatu dute omenaldia: "Miguel Angel Elkoroberezibarrek liburua idatzi du, eta, Beart egunaren bueltan, maiatzean omenal-

dia egin nahi dugu. 91 urte ditu Askasibarrek eta betidanik izan du lotura berezia Bergarako herriarekin".

Bergararren presentzia

Aroztegi hartuko dituen erakusketen artean dira bergarar artistak, eta herriko arte-taldeen erakusketak ere badira. Horren adibide dira, esaterako, Bergarako Erraldoi Taldearen urteurrena ospatzeko egingo duten erakusketa eta Bergarako intsumiso mugimendua azalduz egingo duten erakusketa.



Julen Alonso, Oinkarin dantza taldeko dantzariarekin emanaldian. J.A.

'Sutan dantzan' ikuskizuna bihar iritsiko da Seminarixora

Sarrerak agortuta, Julen Alonso trikitilariak eta Oinkari dantza taldeak ikuskizuna eskainiko dute, 18:00etan

J.O. BERGARA

Urte luzez ibili izan da trikiti txapelketetan eta jaialdietan parte hartzen Julen Alonso gaztea, Eneritz Aulestia abeslariarekin batera. 5 urte zituela etorri zitzaion "hauspoaren grina" Alonsori, eta ordutik aritu da musika egiten, hasieran akordeoiarekin eta 14 urte zituenetik trikitiarekin. Guztira, hamazortzi txapel irabazi eta trikiti-plaza asko egin ditu Alonsok; hala, 2018an, beste pauso bat eman eta bere lan propioa kaleratzea erabaki zuen.

Dantza eta musika uztartuz

Infernuko hauspoari keinua egin nahi izan zion Alonsok bere bakarkako lehen lanean, eta, hala, *Sutan dantzan* diskoa iritsi zen: "2019an, nire lehen diskoa kaleratu nuen. Orain, diskoaren bira egiten nabil, musika eta dantza uztartzen dituen

ikuskizunarekin". Guztira, hamasei kantaz osatua dago emanaldia, diskoko kantak eta berriak batuz: "*Sutan dantzan* diskoko doinuak eta hurrengo lan batean etorriko direnak daude emanaldian, denborarekin gehituz joan direnak".

Alonsorekin batera Eneritz Aulestia, Iker Telleria, Gorka Urra eta Joanes Ederra musikariak arituko dira taula gainean. Dantzan, Oinkari taldeko kideak arituko dira, duela 46 urte Villabonan sorturikoa.

Sarrerak agortuta daude

Bira hasi zutenetik zortzigarren eta, momentuz, azken emanaldia da biharkoa. Ikusmina sortu du bergararren artean ikuskizunak, sarrera guztiak agortu egin dira eta. Alonsok aitortu du emanaldiak "esperotakoa baino harreara hobe" izan duela, egoera berezian izanda ere.

2021eko Aroztegi aretoaren egutegia

- **Taila elkartea** Urtarrilak 8-17.
- **Bergarako pilota elkartea** Urtarrilak 22 - otsailak 7.
- **EHU pintura masterra** Otsailak 12-28.
- **Bergarako emakume artistak** Martxoak 5-21.
- **Emakume zeramistikak** Martxoak 26 - apirilak 11.
- **Jesus Mari Lazkano** Apirilak 16 - maiatzak 23.
- **Lorenzo Askasibar** Maiatzak 28- ekainak 20.
- **Bergara Hiria lehiaketa** Ekainak 25 - uztailak 11.
- **Cristina Chiquin** Uztailak 16- abuztuak 8.
- **Celia Eslava** Abuztuak 13 - irailak 5.
- **Bergarako Erraldoi Taldea** Irailak 10-26.
- **Bergarako intsumiso taldea** Urriak 1-24
- **Laboratorium ZTB** Urriak 29-14.
- **Kirol argazki lehiaketa** Azaroak 19-28.
- **Euskal Memoria Fundazioa** Abenduak 3-12.
- **Beart elkartea** Abenduak 17-26.
- **Taila elkartea** Abenduak 30- 2022ko urtarrilak 9.
- **Buztinzale elkartea** 2022ko urtarrilak 14-23.

2021ean ere bueltan dira Zinema On eta Dynamo zinekluba

Datorren eguaztenean, hilak 20, Dea Kulumbegashvili zuzendariaren *Dasatskisi* filma egongo da ikusgai Seminarixoran, 18:30ean hasita. Urtarrilaren 27an, ordu berean, *Fa Yeung Nin Wa* ikus entzunezko pieza egongo da ikusgai Seminarixoran. Bi filmak Zinema On taldeak antolatutako saioen baitan eskainiko dituzte; lehenak Jehovahren

jarraitzaileen komunitate batek jasaten duen erasoarekin kontaktatzen du. Bigarrenak, aldiz, Hong Kong du agertoki, eta bi bikoterren historia du hizketagai. Sarrerak eskuragarri daude *seminarixoa.eus* webgunean.

Kartzela zaharreko zineklubak, Dynamo zineklubak, Katsuhiko Otomoren 1988ko *Akira* filma ekarriko du gaur Bergarara, 18:30ean. Jakinarazi dute emanaldiak osasun egoerak eskatzen dituen baldintzak bermatuz egingo direla.



MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

ATEAK ZABALIK

BISITA PERTSONALIZATUAK.

ESKATU HITZORDUA:

 **943 76 25 40**

idazkaritza@mlagundia.org



INFORMAZIO BILERA
urtarrilaren 19an, 18:00etan

ZATUZ GU EZAGUTZERA



Errekalde auzoko etxebizitza blokeak. MAIDER ARREGI

Errekaldeko auzotarren iritziak jasoko dituzte

COVID-19ak eraginda etenda egon da Errekalde auzoa duintzeko parte-hartze prozesua. Egoerak aukera ematen duenean, ordea, Udalak auzotarren iritzia eta kezak jaso gura ditu, ondoren aztertu eta dauden beharrei erantzuna emateko

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak 2021erako 246.825 euro bideratuko ditu inbertsioetara. Diruz handienak diren inbertsioak Olarango obra -180.000 euro- eta Plan orokorra -90.000 euro- dira. Inbertsioak abiarazteko lehen urratsa datorren astean egingo du Udalak, aurrekontua behin betiko onar-

tzen denean -2.830.323 euro-. "Olarango lanen deialdia atera-ko dugu. Pleguak idatzita ditugu, eta, behin esleipena eginda, enpresa irabazleak martxoan hasiko ditu lanak. Abendurako amaituta izan beharko ditu", dio Beñardo Kortabarría alkateak.

Diruz horren potoloak ez diren inbertsioak baina antzuolarrei

zuzenean eragiten dietenak dira Errekalde auzoa duintzeko eta jolasguneen azterketarako parte-hartzeak. "COVID-19ak ahalbideratzen badu, auzotarrek batuko gara eta euren kezak eta iritziak aztertuko ditugu. Nolako auzoa izan gura dugun irudikatuko dugu guztion artean. Bestalde, herriko jolasguneen



Anbulatorio aurreko jolasgunea. MAIDER ARREGI

Sagastiko jolasgunea estali egingo dute

Jolasguneak egokitzeko bestelako inbertsioak ere egingo dituzte. Hala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bideratutako dirulaguntzarekin anbulatorio aurreko jolas-parkea estali egingo dute. Lanak urtarilean hasi eta bukatuko dituzte.

gaineko azterketa ere bagabiltza egiten -modu ez aurrez aurrekoan- eragile ezberdinekin; gero, herrira zabalduko dugu".

Bestelako obra eta inbertsioak

Trenbide zaharreko bide-berdea egokitzeko lanak ere jomuga ditu Udalak. Diputazioarekin adostua du aurten egingo dituztela Galarditik Deskargarainoko lanak. Eta ia urtebete erorita dagoen tunela ere konponduko dutela azaldu du.

Baserrietara ur-hornidura eramateko lanak ere aurten

amaituko dituzte. Auzolanean oinarrituta egingo dira aurten ere -25.000 euro-.

Udal gimnasioa noiz ireki daitekeen, berriz, koronabirusak baldintzatuko du. Baina kirol-tresnak erosteko diru partida 22.000 eurokoa da eta aukera ezberdinak aztertuko ditu orain Udalak, lehenbailehen gimnasioa martxan jartzeko. Herriarrek gimnasioan modu autonomoan eta euren ardurapean erabiltzeko aukera izango dute. Txartel bidezko sarrera izango du eta ikastaroak eskainiko dituzte.



IAGOBA DOMINGO

Eztala inauguratuta, erabiltzeko zain

Zapatuan inauguratu zituzten Eztalako aldagelak. Hala ere, pandemiak eraginda, instalazioak erabiltzeko itxaron egin beharko dute jokalariek. Inaugurazio ekitaldian parte hartu zuten Beñardo Kortabarría alkateak, Ibon Gezalaga AKEko presidentek, Manu

Diaz Gipuzkoako Federazioko presidente berriak eta Foru Aldundiko Kirol zuzendari Goizane Alvarezek. Guztiek aldagela berriak errealitate izan zitezen abiatutako elkarlana eta hitzarmena aintzat hartu zuten eta oso pozik agertu ziren emaitza ikusita.



'EZ DUT MOZTUKO BIZARRA'

Presoen egoera salatu dute

Zapatuan Antzuolako kaleetan egindako manifestazioan 250 herritarrek bat egin zutela azaldu du *Ez Dut Moztuko Bizarra* mugimenduak. "Espetxe politika amai dadin eta euskal preso politikoen auzia konpon dadin eskatzeko 250 lagun batu gara. Gabonetan abiatutako atxikimendu ekimenak ere herriko hamasei eragileren atxikimendua jaso du".



Bihar Torresoroan izango diren Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi, Unai Agirre eta Uxue Alberdi bertsolariak. LAN KU

Sarrera guztiak agortuta, goi mailako bertso saioa

Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi, Unai Agirre eta Uxue Alberdi bertsolariak batuko ditu biharko emanaldiak Antzuolan, 18:00etan hasita. Jardunaldi bakarrean sarrerak agortu dituen saioan, Iraia Gabilondo antzuolarra arituko da gai jartzaile lanetan

Jone Olabarria ANTZUOLA

Bertsolaritzaz gozatzeko urteko lehen hitzordua prest dute Antzuolako herritarrek, nahiz eta, antzuolarren bertso zaletasunaren seinale, sarrerak dagoeneko agortuta dauden. Udalak antolatuta, bertso saioak goi mailako bertsolariak batuko ditu bihar, urtarrilak 16, Torresoroan, 18:00etan. Bertan arituko dira, hain zuzen ere, Beñat Gaztelumendi, Unai Agirre, Uxue Alberdi eta Alaia Martin bertsolariak.

Torresoroan egingo duten saioan Iraia Gabilondo antzuolarra arituko da gai jartzaile lanetan. Esperientzia du gai jartzaile, aurretik ere aritu izan baita halako lanetan herrian antolatutako hainbat saiotan: "Lau edo bost aldiz aritu izan naiz Antzuolan egin ditugun bertso saio ezberdinetan gai jartzaile lanetan, eta zapatuan ere hala izango da. Bertso saio polita eskaintzea da asmoa, antzuolarren gozamenerako".

Bertso saio "goxoa"

Hain zuzen ere, Gabilondok saioaren nondik norakoak azaldu ditu. Zehaztu duenez, bertso saio "arina" izango da biharkoa: "Neguan egiten diren areto itxietako bertso saioek, sarritan, sakontasun handiko gaiak jorratzen dituzte, eta, kasu honetan, umoretik, gai arinak ekarri nahi izan ditugu Torresoroara. Nahiz eta horrek ez duen esan nahi sakontasunez landutako saioa ez denik izango, noski".

Era berean, Gabilondok azaldu du asmoa saio "goxoa" prestatzea izan dela, herritarren gozamenerako: "Beñat Gaztelumendi, Unai Agirre, Uxue Alberdi eta Alaia Martin izango dira Torresoroan, eta denon

"GAI ARINAK EKARRI NAHI DITUGU SAIORA, UMORETIK LANDUAK, BAINA SAKONTASUNA GALDU BARIK"

artean saio goxoa antolatzea da helburua; azken batean, neguko arratsalde hotz bat goxatzea da asmoa".

Sarrerak agortuta

Saioak harrera "oso ona" izan duela azaldu dute antolatzaileek, eta horren adierazgarri da emanaldirako 58 sarrerak egun bakarrean agortu direla: "Kontuan hartu behar da edukiera muga batzuk bete behar direla eta horrek murrizten duela jende kopurua, baina oso harrera ona izan du. Betidanik bertsozale izan diren horiek ere, hainbat kasutan, sarrera gabe geratu dira zapatuko saiorako".

Hala, COVID-19aren eraginez, Torresoroarako ezarritako edukiera beteko du biharko saioak. Gogoratu behar da segurtasun neurriak bermatzeko emanaldian zehar maskara jantzita eduki beharko dela, eserita egon beharko dutela ikusleek eta eskuak desinfektatu behar direla instalaziora sartzean, besteak beste.



ANTZUOLAKO PENTSIODUNAK

Pentsiodunen elkarretaratzea

Gabon osteko lehen elkarretaratzean 25 lagun inguru batu ziren, astelehenean, herriko plazan, "pentsio duinak" aldarrikatzeko. Datozen asteek begira ere, asmoa bilkurak astero egiten jarraitzea dela zehaztu dute. Gogoratu behar da 2021eko urtarrilaren 15ean hiru urte bete dituztela Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduen mobilizazioek.

Urtarrileko ekintzen baitan, zinema izango da gazte txokoa

Hilaren 24rako, domeka, antolatuta dute urtarrileko ekintza Antzuolako gaztetxoei zuzenduta. Horren baitan, hilabete honi begira antolatutako jarduera zinema emanaldia izango dela jakinarazi dute. Hala, gazte txokoa 18:00etan hasita egingo dute. Oraindik ez dute filma zehaztu, baina, emanaldiaz gozatzeko aukera izateko, izen

ematea aurrez egin beharko dute bertaratu nahi dutenek; antzuolakogaztetxokua@gmail.com helbidera mezua idatzita. Zehaztu dutenez, Instagrameko gazte txokoaren kontura mezua bidalita ere egin daiteke izen ematea ([@antzuolakogaztetxokua](https://www.instagram.com/antzuolakogaztetxokua)), edota Xinkonara bertara joanda ere. Gazte txokotik gogorarazi dute ekintzetan parte hartzeko izena emateko azken eguna hilaren 20a dela. Edukiera eta segurtasun neurriak bete beharko dira ekintzetan zehar.

Odola emateko aukera Olanen, martitzenean

Urteko lehen odol-ematea deitu du Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak Antzuolan. Urtarrilaren 19an, datorren asteko martitzenean, izango da herrian odola emateko aukera. Bertaratzeko, ezinbestekoa izango da aurrez hitzordua hartzea, eta, horretarako, egunean bertan, hilaren 19an, goizean zehar, 943 00 78 84 telefonora deitu beharko da. Arratsaldean 16:30etik 20:30era egingo da odola emateko aukera, eta, hala, 50 pertsona baino gehiago hartzea aurreikusten dute. Pandemiaren zabaltearen eraginez segurtasun neurri guztiak bete eta jendea pilotzea saihestu nahi du Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak.

Olalde pilota eskolak entrenamendu saioei berrekin die

COVID-19aren hedapenaren aurka Eusko Jaurlaritzak azken astean hartu eta indarrean diren erabakien artean, eskola-kirola berriro ere martxan jartzeko aukera dago. Hori dela eta, Antzuolan ere aukera hori baliatu, eta Olalde Pelota Eskolatik adierazi dute entrenamendu saioak berriro ere martxan jarriko dituztela. Itzulera hori gauzatzeko, aurrez jakinarazi eta martxan jarritako babes neurri eta protokoloa berri ere aktibatuko dutela zehaztu dute, umeen segurtasuna bermatzea helburu. Pilotarien gurasoei erabakiaren berri ohar bidez jakinarazi zaiela zehaztu dute Olalde Pelota Eskolako kideek.

Teilatueta pilatutako elurra da kezka egunotan

Aste honetan behin baino gehiagotan izan dira suhiltzaileak herrian, besteak beste, izoztu eta gogortutako elurra teilatuetatik kentzeko. Herritarrei aparkalekuak ondo aukeratzeko eta teilatupeetan ez ibiltzeko gomendatu die Udalak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Dagoeneko elur asko jausi bada ere, teilatupe ugari daude, oraindik ere, zintarekin itxita. "Aspaldian ikusi gabe genuen hainbeste elur. Gero, elurraren gainean izotza egin du, eta horrek beti zailtzen du elurraren kudeaketa", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. Esan du brigadak zein elurra kentzeko makinak egunero ibili behar izan dutela errepideak eta kaleak garbitzen. "Gatz tonak eta tonak bota dira kaleetan izotzik ez egiteko. Hala ere, izotza egin da, tenperatura oso txikiak eduki ditugulako". Orain, teilatueta dago arriskua. "Ahal dela ez aparkatu halako tokietan, eta ez ibili oinez teilatupeetan. Bideak zabaldu ditugu errepideen eta kaleen erdi samarretik, eta, ahal dela, bertan ibili", gaineratu du.

Hain zuzen ere, hainbat erorketa izan dira, eta bada min hartu duen herritarrik ere. Torrealdea auzoan, berriz, auto baten gainera jausi zen teilatu batetik askatutako elur plaka bat astelehenean. Ertzaintzak adierazitakoaren arabera, teilatuko hormigoi pusketak ere jausi ziren elur plakarekin batera. Kolpearen ondorioz, autoaren aurreko kristala eta muturra mailatu ziren.



Suhiltzaileak, asteon, Torrealdea auzoko teilatu batetik elurra kentzen. L.Z.L.

TENPERATURA HOTZEK IZOTZA ERAGIN DUTE ETA ERAGOZPEN UGARI SORTU DU HORREK

Kanpanzar-Elgeta errepidea

Kamioiendako ez, baina zabalik da berriz GI-2639 errepidea. "Nahasmen handia egon da inork ez zekielako errepidea zabalik edo itxita zegoen", azaldu du sarrera errepide horretatik duen

Zabaleta auzoan bizi den Sebastian Aranzabalek. "Jendea piboteak jarri eta kendu ibili da, eta kamioiak ere pasa izan dira". Baserritarren batzordeburua da Aranzabal eta dio badagoela argitu beharreko beste kontu bat. Hain zuzen ere, nori dagoen errepidera jausitako zuhaitzak kentzea. "Orain arte, bide azpiegiturarako brigadak kendu izan ditu, baina, oraingoan, lurjabeak egin behar izan du. Baserritarrek ez dute halako lan arriskutsuetarako azpiegitura eta tresneria egokirik".

Putzu gainean alde batetik bestera

Hotz handia egin du, eta hainbat egunez izoztuta egon da Asentzioko putzuaren gainaldea. Lehenengo egunetan, bazterretik begiratzearekin konformatzen zen jendea, baina aurreko aste bukaeran egon da putzua oinez zeharkatzera animatu denik ere. Ez da ohiko irudia, eta eman du zeresana. Kontuz, ordea, beti dago-eta izotza zartatu eta uretara jausteko arriskua.



Asentzioko putzua izoztuta eta jendea gainean, asteburuan. ANE MIREN ALBERDI

Eskolak danborrada egingo du, baina ikusle barik izango da

San Sebastian kofradiako nobleek, berriz, bertan behera utzi dute urteroko ekitaldia pandemia egoera dela-eta

L.Z.L. ELGETA

"Elgetako eta Uberako ordezkariak urtero elkartzen gara San Sebastian egunarekin, baina hogeita lau lagun gara eta aurtengo ekitaldia ez egitea erabaki dugu. Elizan bada lekua distantziak mantentzeko, eta meza egin zitekeen, baina ondoren sakristian egiten den ekitaldia eta bazkaria... Hor arazoa zegoen", azaldu du San Sebastian kofradiako idazkari Juan Ramon Irazabalek. "Angiozarren bost dira, eta aurtengo ospakizun bateratua egiteko aukera bazegoen, baina hurrengo urtean beharko du", gaineratu du.

Herri Eskolak danborrada egiteko erabakia hartu du. "HHko 3, 4 eta 5 urtekoek eta LH-6ko ikasleek egingo dute. COVID egoera dela-eta, ordea, eskola barruko ekintza izango da", azaldu du zuzendaritzak.



Danborrada, orain dela hiru urte. L.Z.L.

IKT ikastaroa gurasoendako

Egun horretarako, familiendako IKT formakuntza antolatu du eskolak. *Drive* eta *Classroom* aplikazioei buruz da, 18:00etatik 19:30era. Lau lagun daude izena emanda, eta, gutxienez, sei behar dira tailerra egiteko.

Astelehenetik aurrera martxan izango da, berriz, eskola-kirola

Azarotik etenda egon diren eskola-kirol entrenamenduak bueltan dira. Eusko Jaurlaritzaren LABI batzordeak asteon baimendu ditu, eta Elgetako Udalak astelehenetik aurrera jarriko ditu martxan, Etor Garteren gidaritzapean. "Ikasturte hasieran definitu ziren segurtasun neurriekin irekiko da zerbitzua, eskolako burbuilataldeak errespetatuz eta higiene zein segurtasun neurri zorrotzak aplikatuz", azaldu du Kiroletako zinegotzi Ibai Etxanizek. "Muskua erabiltzea derrigorrezkoa izango da, eta aldagelak itxita egongo dira". LH-3ko neska-mutikoen saioak astelehenetan eta eguaztenetan izango dira, 16:30ean. Martitzenetan eta egunetan izango da LH-4 eta LH-5 taldeen txanda. Lehenengoak 16:30ean elkartuko dira eta gainerakoak, 17:30ean. Zerbitzua etenda egon den denbora tartea dela-eta ordaindutako kuotaren erdia itzuliko dela jakinarazi du Udalak.

Ipuin kontalari saioa, 17:15ean, udal liburutegian

Jaurlaritzak kaleratutako azken dekretua aztertu ostean, Ipuinen Ordua ekimenarekin jarraitzea erabaki du udal liburutegiak. Gauzak ondo bidean, urtarrilean hiru saio izango dira. Gaur, hilak 15, LH-3 eta LH-5 arteko neska-mutikoendako izango da. Hilaren 22an, HH-5, LH-1 eta LH-2ko umeendako; eta hilaren 29an, HH-3 eta HH-4koendako.

OHARRAK

Podologoia

Erretiratuendako kontsulta astelehenean, hilak 18. Txanda hartzeko, deitu: 652 74 82 33. Maskara erabiltzea ezinbestekoa izango da.

Matrikula eskolan

Herri Eskolan urtarrilaren 18tik 20ra -biak barne- egongo da zabalik izen-emate epea. Ikasle berriendako eta 2020-2021 ikasturterako.



Haur Eskolako patioa. H.E.



Kiroldegiko leiho ilara. L.Z.



Eskolako alboko jolas-parkea. L.Z.

COVID-19 egoerara hobeto egokitzeke, hiru inbertsio

Haur Hezkuntzako teilatua konpontzea, kiroldegiko leihoak berritzea eta eskola ondoko jolas-parkea estaltzea izango dira 2021ean Udalak egingo dituen inbertsio nagusiak; urteko lehen hilabeteetan lanak amaitzea da alkatearen nahia

Xabi Gorostidi ELGETA

COVID-19ak goitik behera baldintzatu ditu Elgetako Udalak 2021ean egingo dituen inbertsioak; bai kopurua –diru sarrearen jaitsierak %40 gutxitu baitu inbertsioetarako diru poltsa–, eta baita aukeraketa. "Pandemiaren eraginez, aire libreko aisialdia seguruago bihurtu da.

Horren harira, Elgetan ez dago estalpeko gune askorik, eta horiek sortzera bideratuko ditugu inbertsio nagusiak", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak.

Haur Hezkuntzako teilatua

Inbertsiorik handiena –55.000 euro– Haur Hezkuntzako teilatua konpontzera bideratuko du

Udalak. "Haur Hezkuntzako patioan zati bat estali gabe dago eta beste bat, aldiz, estalita. Estalpeko zati hori nahiko egoera txarrean dago. Eraiki zen momentutik akats batzuk ditu, gaur egun agerian daudenak: teilatuen malda gaizki dago eta ur pilaketak gertatzen dira bertan, baita itoginak ere... Horrez gain,

argia sartzeko kristalezko atalak ditu teilatuetan eta horietatik ere ura sartzen da... Egoera horretan, estalpeak ez du bere funtzioa betetzen, eta ezin da modu egokian erabili eguraldi txarra egiten duenean. Beraz, teilatuen malda egokitu egingo dugu, ur pilaketarik ez sortzeko, eta kristalezko atalen itxitura ere konponduko dugu".

Hirigintza Saila dabil egin beharreko konponketa lantzen. "Aparejadorearekin ari gara neurketak egiten, egin beharreko konponketa zehatz-mehatz definitzeko eta aurrekontuak ahalik eta azkarren eskatzeko. Hala, urteko lehen bi hilabeteen barruan lanak amaitzeko ari gara lanean. Ez dugu denborarik galdu nahi, negua delako leku estali horien behar handiena dagoen ueña".

Kiroldegiko leihoak

Bertako leiho ilara bat berritzea bideratuko du Udalak bigarren inbertsiorik handiena: 30.000 euro, hain justu. "Mendebalde-rantz begira dagoen leiho ilara bat berrituko dugu, plastikozko leihoak dituen. Eraginkortasun termikoaren ikuspegitik ez dira batere egokiak, eta, horrez gain, ura sartzen zaie. Elorrio aldetik sartzen den haize euritsuak leiho horien aurka jotzen du, eta giro euritsu dagoenean ura sartzen da. Eta, berriki, beste arazo bat izan dugu leiho horiek direla eta: COVID-19aren eraginez,

kiroldegia aireztatze beharra izan dugu, eta zailtasunak izan ditugu leiho horiekin. Oso altuak direnez, eskailera baten laguntza behar izaten dugu horiek irekitzeko, eta nahiko modu prekarioan aritzen dira horiek ixten eta zabaltzen. Hala, beirarte berri bat jarriko dugu, eta leihoak modu motorizatuan ireki ahaliko dira. Jada bagabiltza aurrekontuak aztertzen, eta eskolako patioa baino lehen egingo dugu hobekuntza hau".

Eskola alboko jolas-parkea

Hura estaltzeko 10x15 neurriko karpa bat jarriko dute. "Eskolari beste gune estali nahi diogu. Une honetan, eskolako ganbara eta frontoi txikia daude estalita, eta, hala, inbertsio hauekin beste bi gune estali gehiago izango dituzte".

Dirulaguntzak lortu guran

Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ematen dituen laguntzetara aurkeztu dituzte bi proiektu: eskolako patioarena eta jolas-parkeko estalkiarena. "Erantzuna jaso arte bi hilabete igaro daitezke", azaldu du Lazkanok.

AISIALDIRAKO GUNE ESTALI BERRIAK SORTZEA IZAN DA UDALAREN LEHENTASUNA

Kantsatzeke elkarteak prest du egutegia eta bazkide kanpaina

Hilaren 19an eta 26an, federatzeko eta bazkide egiteko aukera izango da; 2021an, bederatzirteera egingo dituzte

X.G. ELGETA

Urtero legez, federatzeko eta elkarteke bazkide egiteko kanpaina egiten ari da Kantsatzeke mendi elkarte.

Martitzenean egin zuten lehen saioa, eta beste bi hitzordu gehiago finkatu dituzte urtarrilean zehar zeregin horretarako: hilaren 19an eta 26an, 19:00etatik 20:00etara, kultur etxean. Federatzeko prezio taula ere eman dute aditzera, eta prezioak 17 eta 133 euro artean daude, adinaren eta estaldura eremuaren arabera.



Kantsatzeke taldearen irteera bat. GOIENA

2021erako egutegia

Urte berrirako irteeren egutegia ere definitu du elkarteak: "Egutegiari dagokionez, iazkoa mantentzeko asmoa dauka, baina egunak aldatuta. Hala ere, birusagatik ezarritako debekuen arabera joan beharko dugu moldatzen, ea udaberrirako irteerak egiteko moduan garen. Bidaliko dizuegu egutegia, eta gero joango gara irteera bakoitzaren berri ematen".

Hau da une honetan duten egutegia: martxoaren 19an, Arkaitzera irteera eta sagardotegia; apirilaren 19an, Urregaraira; maiatzaren 24an, Kruzetara; ekainaren 21ean, Puttarrira; uztailearen 19an, Pagoetara; irailaren 2an, Maizara; urriaren 18an, Arbarrainera; azaroaren 15ean, Alluitzera eta baba-jana; eta abenduaren 25ean, Intxortara.

GORA ETA BEHERA



A.S.

Zabor poltsak, edukiontzitik kanpo

Hona hemen irakurle batek helaraziko kexa: "Egia da elurrak ez duela laguntzen eta edukiontzia bat edo beste beteta egon dela inoiz, baina txukunagoak izatea posible da".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Ikastetxeetan ere landuko dute hitanoa

Ingo Xonau! egitasmoaren erronka berria da gazteek ere toka edo noka erabiltzea, eta ahozko ariketak proposatu ditu ikastetxeetan ikasleekin lantzeko. Euskarako ordu barruan egingo dituzte praktikaldi horiek, astean behin, hamabost minutuz

Oihana Elortza OÑATI

Hitanoa gazteen artean erabiltzea da Ingo Xonau! egitasmoaren erronka berria, eta, hori bultzatzeko, programa bat landu dute herriko hiru ikastetxeendako. Urte hasieran banatu dute materiala DBH-4ko eta batxilergoko bigarren maila arteko ikasleen artean, eta hitanoaren erabilera lantzen hasiko dira orain eskola orduetan. Hainbat herritarren testigantzekin egindako dokumentala ere erakutsiko diete ikasleei, hitanoaren erabilera nolakoa izan den eta galeraren zergatiak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko.



Liburuxkak ikasleen artean banatzen. O.E.

Hamabost minutuko praktikak

Egitasmoko arduradun Idoia Etxeberraren eskutik jaso dute proposamena ikastetxeetan: "Hitanoa praktikatzeko da helburua. 30 bat egoera edo ahozko ariketa planteatu ditugu erabileran trebatzeko. Gazteak elkarren artean hitz egiten jar-

tzeko egoerak edo jolasak, dira, adibidez, proposamenetako batzuk. Saiatu gara ariketa gehienetan neska sartzen; mutilen artekoa hedatuagoa dago, eta nesken artekoa, noka, bultzatu gura da", dio Etxeberriak. Eus-

kara ikasgaia dutenetan egingo dituzte ahozko praktika horiek, astean behin, hamabost minutuz. Hiru urteko plangintza da, eta asmoa da datorren ikasturtean aurrera maila batean lantzea hitanoa.

Ostalariengandik jasotako 63 eskaerei lagundu die Udalak

Enpleguari eusteko izan dira batzuk eta inbertsioetarako beste batzuk; 110.000 euro pasa banatu ditu Udalak

O.E. OÑATI

Ostalaritza zerbitzuari laguntzeko neurri berriak hartu zituen Oñatiko Udalak azaroan, eta dirulaguntza horiek banatu ditu orain: 110.000 eurotik gora.

Guztira, 63 eskaera jaso ditu Udalak, eta guztiak onartu ditu. Horietatik 45 izan dira enpleguari eta jarduerari eusteko; 87.000 euro banatu dira. Sektorako beste hemezortzi enpresek jarduera ekonomikoa prestatzeko inbertsio eta ekipamenduetarako egin dituzte eskaerak. Kanpoko terrazak egokitzeko inbertsioak izan dira lagundutako gehienak, baina segurtasun eta osasun protokoloetara egokitzeko inbertsioak eta bezeroekin eta entitate hornitzaileekin lan harreman berrietara egokitzeko egin beharrekoak ere izan dira. Guztira, 26.232,02 euro banatu ditu helburu horietarako.



Portu tabernako terraza. O.E.

"Bat-batean eman izan dituzte ostalaritza establezimenduak ixteko aginduak. Egoera berrira egun batetik bestera egokitu behar izan dute ostalariak. Horretan ahalik eta azkarren laguntzen saiatu gara", esan du Sozioekonomia batzordeburuak.

Alaitz Kortabarriaren tesia, Espainiako sarietan finalista

Espainiako Logistika Zentroak banatzen dituen CEL Sarietako epaimahaiak MUko irakasle oñatiarraren lan ona aitortu du, 2018an defendatutako tesia sarietako finalista izendatuta. Bi finalista eta irabazle bat aukeratu dituzte sarietan, eta Kortabarriarena da bi finalistetako bat. "Garrantzi berezikoa da ikerketa lanarendako".



Alaitz Kortabarria. A.K.


Konfinamenduaren ondorioei buruzko hitzaldia online da

Koronabirusa eta konfinamenduaren ondorioak izango da guraso eskolak antolatu duen hurrengo hitzaldiaren gaia, urteko lehena. Norgara elkarteko Virginia Espin izango da hizlaria. Modu telematikoa eskainiko da saioa, hilaren 25ean, 18:15ean, baina 20a aurretik eman behar da izena, ainhoa@onati.eus helbidean.

Familia ugarietako urtero berrituko dute hobarien eskaera

Hemendik aurrera, familia ugarietako urtero berritu beharko dute udal zergetan hobaria jasotzeko eskaera. Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga otsailean hasiko dira kobratzen eta ondasun higiezinaren gainekoa, maiatzean; beraz, eskaerak otsailaren 15a baino lehen egin beharko dira, udaletxean, 2019ko errenta aitortpena aurkeztuta.

Ze harreman duzue hitanoarekin?



PAULA ETA AMAIA
ELKAR HEZI - BATXI 2

Ingo Xonau! proiektuan parte hartu zuen iaz Paula Polok, eta uste du eskolan lantzeak lagundu egingo diola gehiago erabiltzen. Amaia Kortabarriak aitona entzun izan dio hitanoa erabiltzen gizonen artean, baina emakumeen artean ez du inoiz entzun. Prest daude ikasteko eta euren artean erabiltzeko.



ANE, AINHOA ETA IZARO
TXANTXIKU IKASTOLA - BATXI 2

Euren adinekoen artean ez dutela hitanoa erabiltzen diote Ane Kortabarriak, Ainhoa Mugarzak eta Izaro Altunak. Egin dute inoiz noka egiteko saiakera, baina ez zekiten nola egin. Pozik hartu dute lantzeko proposamena, eta ikasteko eta erabiltzeko borondatea dute, "berriz gal ez dadin".



ENDIKA, UXUE ETA IZAR
ZUAZOLA INSTITUTUA - DBH4

Endika Beitiak, Uxue Erdoziak eta Izar Azurmendik ez dute hitanoa erabiltzen, ezta askotan inguruan entzuten ere. Beitiak, baina, onartzen du "ze xauk?" eta halako esaldi motzak erabiltzen dituztela kuadrillan, baina mutilen artean bakarrik. Orain, aukera ikusten dute ikasteko eta praktikan jartzeko.



Oñatiko EH Bilduko eta saioko gidari Igor Tome, Ekai Txapartegi filosofoa eta Ugo Mayor ikerlaria, eguazteneko solasaldian. T.M.

Infoxikazioa izan da jorratu duten lehen gaia

Oñatiko EH Bilduk hitzaldi sorta antolatu du, gaur egun munduan gertatzen ari diren joera nagusien inguruan "patxadaz solasean egiteko, herritarrekin, eragileekin eta adituekin batera". Txapartegi eta Mayor izan dira urtarrilekoan, infoxikazioari buruz

Oihana Elortza OÑATI

EHUko filosofia irakasle Ekai Txapartegiren eta Ikerbasqueko ikerlari eta EHUko Biokimika Saileko kide Ugo Mayorren parte hartzearekin eta infoxikazioaren bueltan hasi zen eguaztenean Oñatiko EH Bilduk antolatu duen *Hamar gai, hamaika berba* hitzaldi zikloa.

Datuak interpretatzea, gakoa

Eskura inoiz baino ezagutza eta informazio gehiago izan arren, egia eta gezurra zer den ezberdindu eta erabakiak hartzeko eta ekiteko zailtasun handiak ditugu egungo gizartean, eta, hain zuzen ere, paradoxa horri egiten dio erreferentzia infoxikazioak. Hori horrela izanda, zientzialariek, politikariek eta gizarteak osatzen duten dinamikaren inguruan jardun zuen, batez ere, Ekai Txapartegik; eta, bere ustez, egungo ereduak aldatuta bat behar da: "Zientzialaria politikaria da, erabakia politikariak hartu behar du,

baina gaiak ez daki eta herritarrek subjektu pasibo bihurtzen dira. Eredu horrek ez du funtzionatzen erabaki bero eta konplexuak hartu behar direnean; horrelako egoera gehiago etorriko dira eta ereduak aldatu behar dela uste dut".


Ugo Mayorrek, aldiz, pandemia garaioan administrazioek eta hedabideek datuen inguruan egindako erabilera izan zuen hizpide. Bere esanetan, hainbeste datu izateak onurak eta arriskuak ekarri ditu; izan ere, datuak, berez, ez dira informazio: "Benetan informazioa da datu horien interpretazioa, eta horrek eskatzen du ingurumaria ezagutzea, nondik datozen... Harago joan behar da, eta komunikabide

OTSAILEAN FLUXU MIGRATZAILEAK IZANGO DA GAIA ETA MARTXOAN, HIRIRAKO ESKUBIDEA

batzuekako erronka izan da". Ingalaterran agertu den koronabirusaren aldaera gurean zabaltzeak ekar ditzakeen ondorioen inguruan ere hitz egin zuen Mayorrek: "Sartzen bada aldaera hori, egoera serioan egon gaitezke datozen asteetan. Gabonak salbatzeko lan horrekin, uste dut aldapa zailean sartu garela urtarrilean".

Hilero hitzaldi bat egongo da

Hamar gai, hamaika berba ekimenarekin, eta hauteskunderik gabeko urtea dela aprobetxatuz, hausnarketarako tartea sortu gura izan du Oñatiko EH Bilduk. "Egun munduan ikusten diren arazo handienak ukitu gura ditugu adituen eskutik, kutsu politikoa alde batera utzita, alde soziala landuz", dio EH Bilduko Ander Zarketak. Lehenak interesa piztu du; azkar bete ziren Santa Anako eserleku asko. Otsailean, fluxu migratzaileak eta erronkez mintzatuko dira beste bizpahiru aditu.



Beñi Agirre, astelehenean egindako bisita gidatua. A.A.

Euskal Herriko historia, euskal ikuspegitik kontatuta

Nabarralde fundazioaren erakusketa jarri dute kultura etxean; hilaren 25ean, bisita gidatua egongo da

O.E. OÑATI

Iazko Gutaz hitzaldi sortari segida emanez, Geuk izenekoa abiatu du orain Nabarraldeko Oñatiko taldeak. Konkisten ostean Bidasoaren alde bietako eskualdeen bilakaera erakustea dute helburu, atzera begiratuta, gaur egungo gabezien jatorria ulertzen laguntzeko asmoz. Helburu horrekin antolatu dituzte, batetik, hainbat hitzaldi, eta baita kultura etxean urtarrilaren 25era bitartean ikusgai dagoen *Konkistaren mugarrak* izeneko erakusketa, Nabarralde Fundazioak urteetan egin duen lanaren

emaitza. Euskal Herriko historia kontatzen duen erakusketa da. "Historiaren subjektuak geu gara, eta geuk kontatuta erabat ezberdina ateratzen da. Historiara jota, bilatu beharko genuke non dauden euskaldunon erroak, nondik sortu den herri hau, eta hortik abiatuko genuke bilakaera historikoa", dio erakusketa prestatzen ibili den Nabarraldeko kide Beñi Agirrek. Urtarrilaren 25ean bertan, bisita gidatua egingo dute, 18:30ean. Asteazkenean, Roldan Jimeno konstituzio nafarraz arituko da, 19:00etan, zinema aretoan.

Banakako bisitak egingo dituzte matrikulazio garaian

Datorren astelehenean hasiko da aurtengo matrikulazio kanpaina, eta ohiko ereduak moldatu egin dute ikastetxeetan. Sasoi honetan ate irekiak antolatzea da ohitura, baina aurten, bisita pertsonalizatuak, banan-banan egingo direnek hartuko dute indar handiagoa. Horrela izango da Elkar Hezin, adibidez. Baita Txantxiku Ikastolan ere, nahiz eta hitzordu asko atzarako eta gaurko lotuta dituzten. Urganen ere halako bisitak egingo dituzte matrikulazio kanpainak irauten duen bitartean; baita bihar ere, zapatua, ate irekiak egingo dituzte eta. Edozein ikastetxetan, aurrez deituta hartu behar da eguna bisita egiteko.

Oñatiko Udala Grant beka eskatzeko epea zabalik dago

Oñatiko Udalak eta Lege Soziologia Institutuak elkarrekin antolatzen duten beka da Oñatiko Udala Grant izenekoa, eta eskatzeko epea zabalik dago. 4.000 eurokoa da, eta Oñatiko herriari ekarpena egiten dioten gizarte zientzien eta zuzenbidearen alorreko ikerketa proiektuak sustatzea da beka horren helburua. Iazko beka, esaterako, Maider Zilbeti ikertzaile donostiarra jaso zuen. *Giza eskubideak eta nazioartekotutako enpresak Oñatin* ikerketa egin zuen; herriko zazpi enpresak hartu dute parte ikerketan. Beka eskatzeko epea otsailaren 26an amaituko da eta maiatzean jakinaraziko dute irabazlea.

"Erlojupekoa izango da aurtengo duatloia"

ANDONI CORREAS ALOÑA MENDI TRIATLOI TALDEA

Apirilaren 24an izango da aurtengo Oñatiko duatloia; erlojupekoa izango da, eta proba bakoitzaren distantziak ohikoen erdiak izango dira. Laster jakinaraziko dute ibilbidea

Oihana Elortza OÑATI

2021eko triatloi denboraldiko behin-behineko egutegian sartuta dago Oñatiko duatloia: apirilaren 24an egingo da. Martxoan zen egitekoa iazkoa, baina pandemiak bertan behera utzi zuen lehen probetako bat izan zen.

Apirilaren 24an egingo da aurtengo duatloia. Gogotsu eta animatuta, orduan?

Bai, bai. Martxoaren amaieran egin behar genuen iazkoa, eta egun batzuk lehenago itxialdia etorri zen eta bertan behera gelditu zen proba. Egoera aztertuta, ezer garbirik ez zegoela ikusita, ez atzeratzea erabaki genuen, 2021erako uztea. Eta aurtengo asmoa ere egitea da, egoerak uzten badigu, behintzat; gure esku dagoena egingo dugu. **Egingo da, baina ez da orain artekoa bezalakoa izango. Ze desberdintasun izango ditu?**

Erlojupekoa izango da, horixe da desberdintasun nagusia. Bi arrazoirengatik erabaki dugu horrela antolatzea: egin ahal izateko aukera gehien modu horrek eskaintzen dituela uste dugulako eta, aldi berean, erronka erakargarria ere izatea gura dugulako. Beste aukera bat izan zitekeen erdibideko zerbait egitea, baina erlojupekoaren alde egin dugu.

Zer-nolako aldaketak ekarriko ditu horrek?

Erlojupekoa izanda, parte-hartzaileak banan-banan aterako dira, batetik bestera tarte bat utzita. Horrek, baina, probaren denbora totala luzeagoa izango dela esan gura du. Errepideak ezingo ditugu horrenbeste denboran itxita izan, eta, beraz, pentsatu dugu proba bakoitzaren distantzia ohikoaren erdia izatea. Hau da: bost kilometro korrika, hoge kilometro bizikletan eta beste 2,5 kilometro korrika.

Zehaztuta duzue ibilbidea?

Korrikako lehen zatia herri barruko zirkuitu bati bi itzuli



Andoni Correas, proba batean parte hartzen. NAIKE EREÑOZAGA

"DUATLOI EGOKITUA EGITEA ERE BADA ASMOA, ETA ANTIXINTXIKAKOekin BATERA ARI GARA"

ematea izango da, eta bigarren zatian itzuli bakarria. Bizikletan egin beharreko tarte ibilbide bakarria izatea da asmoa. Badugu buruan nondik nora egin beharko duten proba hori, baina oraindik ezin dezakegu esan, baimena, oniritzia, falta zaigu eta. Datorren astean batzartuko dira federazio ezberdinetako presidenteak Gipuzkoako Errepide eta Trafiko Saileko buruekin, eta batzar horretan aztertuko dute gure proposamena. Gero, Oñatiko udaltzainei jakinaraziko diegu, eta onartzean egingo dugu publiko.

Plazan hasi eta amaituko da?

Bai. Irteera eta helmuga puntuak ezberdinak izango dira, jende multzo handirik ez sortzeko, baina plaza izango da erreferentzia tokia, bai. Bizikletak ere hantxe egongo dira. Aurten, toki handiagoa hartuko dute, gaine-

ra, batetik besterako distantzia minimoa errespetatuz.

Zenbat parte-hartzaile hartuko dituzte?

Zaila da hori oraindik esatea, baina 300 bat hartuko ditugula uste dut. Aurten, gainera, duatloi egokitua ere antolatzeko asmoa dugu, eta Antxintxika triatloi taldekoekin ari gara hori prestatzen, elkarlanean.

Umeena egingo duzue?

Aurten ez. Iruditzen zaigu nagusien probak izango dituen ezaugarriak, agian, askotxo, gogorregiak, izan daitezkeela umeendako. Eta ez du zentzurik batean aldaketak egitea, egoera zein den ikusita, eta beste proba orain artekoaren antzekoa izatea. Aurten, nagusiena bakarrik egingo dugu, zapatu arratsaldean, betiko moduan.

Oso lasterketa gutxi izan dituzue aurten, ezta?

Pandemia aurretik, lau lasterketatan egon ziren taldeko ki-deak, eta, irailetik hona, beste bitan. Otsailean da aurtengo lehena; ea urte hobea den.

Zer moduz doa federatu kanpaina? Ba, uste baino hobeto, baina beste urte batzuetan baino apalagoa da kopurua.

Eskola-kirola martxan nola jarri aztertuko dute egun hauetan

LABIk hartutako azken neurrien arabera, eskola-kirola egiten hasi daitezke gaztetxoak, mugen barruan. Oñatin ere martxan jartzea da asmoa, baina nola antolatu eta lotu aztertu behar dute orain. Atzo, eguena, zen bilera egitekoa Oñatiko eskola-kiroleko batzordea, eta asmoa da erabakiak ahalik eta azkarren jakinaraztea. Berez, ia 400 ume dute izena emanda eskola-kirolean, eta taldeak eginda daude. Ikastetxeetan eta talde egonkorretan egingo lirake saioak, baina egoera aldakorra da, eta hasi arren edozein momentutan eten beharra ere gerta daiteke; hala, egoera horiek guztiak gura dituzte kontutan hartu.

'Botadun katua' antzezlana dator ume txikiendako

Glu Glu antzerki taldearen *Botadun katua* antzezlana egongo da urtarrilaren 23an, Santa Anan. Ume txiki zuzendutako antzezlana da, 3 eta 9 urte artekoendako, hain zuzen ere. Amamak bilobei jolas moduko proba ederra jartzea erabaki du, irudimena eta lanaren garrantziaz jabetzeko. Sarrerak salgai daude udal webgunean, lau eurotan.

Erakusketa egiteko materiala batu gura dute pentsiodunek

Duela hiru urte hasi ziren herriko pentsiodunak astero elkarretaratzeak egiten pentsio duinak aldarrikatzeko. Hala, erakusketa batean jaso gura dituzte hiru urte hauek emandakoak, eta, horretarako, materiala uzteko eskatu gura diete herritarrei. Eurek egindako kale agerraldietan zein manifestazioetan atera ahal izan dituzten argazkiak eta bideoak hartu gurako lituzkete, denak ikusgai jartzeko gero. Oraindik ez dute erakusketaren data zehaztu, baina datozen hilabeteetan izango da, kultura etxean. Ezer uzteko duenak astelehenetan 12:00etan plazan egiten duten elkarretaratzera eraman dezake.

Bihar goizean jarriko dituzte salgai Zetak entzuteko sarrerak

Zetak taldearen kontzertuetarako sarrerak bihar, zapatua, jarriko dituzte salgai, 10:00etan, Santa Ana aretoan, zortzi eurotan. Esku-dirutan bakarrik ordaindu ahal izango dira eta pertsona bakoitzak gehienez hiru erosi ahal izango ditu. Zetak taldeak urtarrilaren 21ean, eguena, joko du Santa Anan, 17:00etan eta 19:00etan.

GORA ETA BEHERA



Argi gutxi lur azpiko aparkalekuan

Kiroldegi pareko lur azpiko aparkalekuan ez bezala, Kalegoienakoan argi gutxi dagoela dio herritar batek: "Ez da ondo ikusten. Fluoreszenteak badaude, baina ez dira pizten".

"Txikitako ametsa egia bilakatuta da 'Sebastian'"

XABI MENDIZABAL 'SEBASTIAN' ERRALDOIAREN EGILEA

'Sebastian' izena daraman erraldoia egin du Xabi Mendizabal eskulangile oñatiarrak. Londresko tailer batean sortu bazuen ere, Oñatiko Zubillaga auzoa du orain bizitoki

Maialen Santos OÑATI

Erraldoiak "betidanik" gustatu izan zaizkiola eta, txikitako ametsa bete berri du Xabi Mendizabalek: bere esku propioekin erraldoi bat hasi eta bukatzea.

Nor da Sebastian?

Haurra nintzenetik nuen ametsa egia bilakatuta. Erraldoiak betidanik gustatu izan zaizkit, eta sarri joan izan naiz aitarekin, esaterako, Iruñera, horiek ikustera. Umea nintzela, aulkiekin edo inguruko materialekin saiatzen nintzen erraldoiak egiten.

Zenbat denborako lana izan da?

Lanorduetatik kanpo egin dudana proiektua izan da; beraz, bi urte behar izan ditut, guztira. Duela



Xabi Mendizabal, egin berri duen erraldoiarekin, Zubillaga auzoan. MAIALEN SANTOS

bi urte hasi nintzen bozetoak egiten, eta animatu egin nintzen proiektu honetan murgiltzera. **Nola sortu zitzaizun ideia?**

Ingalaterran egiten dut lan, Londresen, eta tailer bat daukagu. Tailerkideak esan zidan nire nahia betetzeko garaia zela, teknikak banekizkielako eta baliabideak bagenituelako. Horretaz hausnartu, eta pausoa ematera animatu nintzen orduan.

Nola eraman duzu aurrera?

Bilbon ikasi nuen Arte Ederretan gradua, eta, tartean, zaharberritze teknikak ikasi nituen. Gerora, Londresera lekualdatu nintzen, eta zizelkatze eta urreztatze tekniketan formatu nintzen. Egun, hiriburuko Westminster jauregian egiten dut lan, urreztatze lanak egiten. *Sebastian*-ek ere urreztatutako detaile batzuk izan zitzaizun gura nuen.

Zein teknika erabili dituzu?

Lehenik eta behin, eskuak eta burua egin nituen, kartoiarekin. Gorputza eta besoak beira-zuntzezkoak dira eta hankak, aldiz, egurrezkoak. Estrukturarekin Aitor Calleja nafarrak lagundu zidan, berak erraldoiak egiten lan egiten du eta.

Arropak neurrira egindakoak dira?

Bai, berarentzat apropos aukeratuta daude; diseinuak egin, eta Madrilan erosi nituen. Marta lagunak lagundu dit eskuz josten eta neurrira egiten.

Zergatik izen hori?

Jaio aurretik amak niri jarri gura zidan izena delako.

Zein neurri ditu?

3,42 metro garai da eta 38 kilo pisatzen du.

Nola ekarri duzu erraldoia?

Londresko tailerrean egin nuen, piezaka eta kamioiz ekarri dut Oñatira. Aitak ere lagundu dit gauzak ekartzen.

Non gordeko duzu?

Oñatiko etxean gordeko dut. Baina gustatuko litzaidake posible denean *Sebastian* herriko gainontzeko erraldoiekin dantzan irtetea, jendeak ezagutu dezan. Uste dut erraldoiak jendeak disfrutatzeke eta, batez ere, dantza egiteko sortuak direla.

Beste proiekturik esku artean?

Oraingoz, konforme eta asebeteta geratu naiz *Sebastian*-ekin. Baina egia da egunen batean gustatuko litzaidakeela haren bikotekidea egitea, Zubillagan egon daitezen bi erraldoi.

Debagoieneko GREMIOAK



ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e. arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

Irargaria jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.

"Sufrimenduan ere badago gozatzeari, hor dago gakoa"

AITOR UGARTE ETA AXIER ALONSO EUSKAL SELEKZIOKO ESKIATZAILEAK

MENDIKO ESKIA Azkenaldian, lesioek nahi baino buruko min gehiago eman dizkiete biei, baina desatzen daude domekan, Espainiako Txapelketan, dortsala jantzeko



Aitor Ugarte eta Axier Alonso, aste barruan, Urtiagainen, azken entrenamendu saioak egiteko gertu. XABIER URZELAI

Xabier Urzelai ARRASATE

Boi Taull-erako (Herrialde Katalanak) bidea egin beharko dute Axier Alonsok (Oñati, 1988) eta Aitor Ugartek (Aramaio, 2001) zapatuan. Domekan dute Espainiako Txapelketa barruan egingo duten lasterketa bertikala, 700 metroko desnibela gainditzea helburu duen proba. Bihotz eta birikek, ordu erdi pasatxoan, estutu ederra hartuko dute. **Gutxi eskiatuko duzue domekan. Proba hasterekin batera amaituko da eta. Ordu erdiko lana, egurrean.**

Horrelako lasterketetan gozatu egiten duzue?

Aitor Ugarte: Bueno, sufrimenduan ere badago gozatzeari, gorputzari %100 eskatzea. Baina ez, lasterketan, behintzat, eskia-tu ez dugu askorik eskiatuko

"ORDU ERDI ESKASEKO LASTERKETA IZANGO DA, BAINA %100 EMAN BEHARREKOA"

[2020an, Espainiako kilometro bertikaleko Espainiako txapeldun izan zen].

Erlojuaren kontrako lan hori bakarkako saioan izaten da ala taldean irteten zarete?

Axier Alonso: Taldean irteten gara. Baina, banakako probetan lekua hartzea hasieratik garrantzitsua izaten den moduan, gero mendian gora lerroan joaten garelako denak eta aurrekoek traba egiten dizutelako, proba bertikala eski pista zabal batean egiten da. Oso malda handiko

pista bat aukeratzen dute, eta hor egin behar izaten dugu behetik gorako bidea.

Eta, halako lasterketa gogor eta azkarrean, badago estrategiarako lekurik?

A.U.: Halako lasterketetan sasoi oso onean egotea da garrantzitsua, oso egun ona izatea. Gero, momenturen batean erritmoa aldatu eta eraso jotzea erabaki zenezake, baina tarte txikia egoten da. Bestela ere, topera joaten gara, eta indarrak gordetzeko tarte txikia egoten da.

Euskal selekzioko hautatzaile Igor Alzelaik astean eman du hautatuen zerrenda. Mendiko eskiak zale gehiago dituen lurraldeetan, Italian, Suitza, Frantzia... halako deialdiek oihartzun mediatiko handiagoa izango dute, ala?

A.A.: Bai, zalantza barik. Gurean mendiko eskia nahiko kirol minoritarioa da, ez du jende asko praktikatzen, nahiz eta badoan hazten. Beste lurralde batzuetan, selekzioan egotearen ere eskia-tzaileen artean kompetentzia handiagoa egoten da. Gurean lagun talde bat gara, Euskal Herria ordezkatzeari harro dagoen familia bat.

Mugak itxita egon diren honetan, eta bi astez izan bada ere, etxean bertan entrenatu ahal izan zarete, Aloñako inguruetan.

A.A.: Sekulako zortea dugu hemen; bereziki, aurten eskertu egin dugu etxean bertan halako elurteak izatea. Aloña inguruek aukera polita ematen dute mendiko eskia egiteko.

Lanetik irten eta hamar minutura elurretan zaudete, Urtiagainen. Pirinioetan bizi diren eskiatzaileen antzera!

A.A.: Kar, kar, kar. Eurak baino hobeto! Gainera, goialdean oraindik baldintza onak daude eskia-tzeko, beste hilabetez eskia-tzeko moduan egongo garelako espero dut. Ea gehiago egiten duen.

Ze asmo duzue gaurko? Izan ere, entrenatzea tokatzen denean, gozatzeko tarte txikia izaten da.

A.A.: Bai, hala da. Gaur, serie batzuk egitea tokatzen zait niri, *tapering* deritzona. Hau da, lasterketa aurreko azken entrenamenduak intentsitate apur ba-

"ESKERRAK ELURRA EGIN DUEN HEMEN; BESTELA, BATERE IBILI BARIK JOANGO GINATEKE ETA"

tekin egitea, baina nekea pilatu barik. Domekan, irteera puntuan, txispa horrekin egotea da helburua, eta fresko.

Entrenatzaileak bidalitako lanak fin betetzen dituzten horietakoak zarete?

A.A.: Normalean, bai. Aurten, gainera, Aitor eta biok entrenatzaile berberarekin gabilta, Lide Leibarrekin. Mendiko eskia oso gaztetatik ezagutzen duen prestatzailea da, bere garaian euskal selekzioan jardundakoa, eta berak bidaltzen dizkigu egin beharrekoak.

A.U.: Berez, entrenatzaileak agindutakoa betetzen saiatzen gara, hura da eta honetaz dakiena. Batzuetan, eguraldi kontuengatik-edo moldatu egiten dugu apur bat entrenamendu saioa, eta inoiz txanda-pasaren bat ere egin dugu; kar, kar, kar.

Euskal Herrian elurra egin duelako asteotan; bestela, batera ukitu bariarik joan beharko zenukete eta txapelketara, mugak itxita egon direlako. Posible da baldintza horietan txapelketa ona egitea?

A.U.: Zalantza barik, zailagoa da. Nahiz eta sasoi puntu onean egon, elurrarekin hartu-eman izatea oso garrantzitsua da.

A.A.: Egunero eskiatzen dabilen eta oso maila ona duen eskia-tzaile baten kontra ez dago askorik egiterik... Detalle txiki asko hobetu behar izaten dira aurrean ibiltzeko, oso kirol jarduera teknikoa da eta hobekuntza txikiak egiteko ordu asko behar dira. Eta, horretarako, ezinbestekoa da elur gainean ibiltzea.

Ze asmo duzue domekako hitzorduari begira? Aurrean ibiltzea posible da?

A.A.: Oso zaila da aurreikuspenak egitea, ez da eta lasterketarik egon. Beste batzuetan, urtean zehar lehiakideak ikusten dituzu zelan dabilzan, nor den favoritoa... Aurten, berriz, ez.

A.U.: Ez da izango erraza aurrean ibiltzea, baina, besteak ikusi ez ditugun moduan, besteek ere ez gaituzte gu ikusi. Horrek ezustek emateko tarte uzten du. Akaso, beste urte batzuetan baino presio gutxiagorekin goaz. **Oso obsesiboak zarete materialaren pisuarekin?**

A.A.: Ez, ez gara zorutzen. Garbi dago material arina eraman behar dugula, baina muturreko kasuak ikusten dira, bota txikiak erosi eta aurrealdea moztu... Gu ez gara horra iristen.



Andoni Atxa, nafarren aurrean baloia babesten, joan den domekan. IMANOL SORIANO

Sailkapenak erakusten duenari, kasu handirik ez

SASKIBALOA Eguesen kontra atzeratutako partidua irabazita (93-83) hasi du MUK urte berria, eta bihar, zapatua, taulan azken postuan dagoen Goierriren bisita izango dute Iturripen (18:30). Adi, azkenaldian euren kontrako derbiak oso lehiatuak izan dira eta

Xabier Urzelai ARRASATE

Biharko kontrario Goierri (Iturripen, 18:30) jokatu dituen sei jardunaldietan oraindik ez du garaipenik lortu ligan, eta horrek are arriskutsuago bilaka ditzake, amorratuta kantxaratuko dira eta. Eta derbietan hori osagai garrantzitsua izaten da; partidua ohi baino gogorragoak izaten dira: "Azken urteotan eurak baino hobeto ibili izan gara, baina kuriozoso da, euren kontrako partidua oso lehiatuak izan dira, kantxan ez dugu batere erraztasunik izan eta badakigu euren kontra galtzea zer den. Horrenbestez, sailkapenean atzealdean egoteari ez diogu aparteko garrantzirik emango, gogotsu etorriko dira eta", dio MUKo entrenatzaile Iñaki Ogarak.

Talde zuri-morearendako ez dira Gabon atseginenak izan. Entrenatzen jardun dute, jakinda azken bi partidua galdu eta gero txakalaldian zeudela: "Horren aurrean, aurreko domekako garaipena oso garrantzitsua

Alkideba eta Mekalki, abian

Euskadiko Txapelketako bigarren mailan diharduten Alkideba Ointxe eta Mekalki Aloña Mendi asteburuan hasiko dira ostera ere liga txapelketa jokatzen. Bi jardunaldi jokatuta utzi behar izan zuten dena bertan behera, urri amaieran, eta, hiru hilabete geroago, kantxetara itzuliko dira ostera ere. Oñatikoe Berrio Otxoaren bisita izango dute, etxean, zapatuan (18:00), eta Arrasateko Askartzaren kantxan jokatuko dute bihar baita ere (18:00).

izan zen. Gabonetan hausnarketa egin eta geure buruarekin zintzoak izaten ahalegindu ginen, ez geunden ondo. Eta, ondo egon barik ere, talde moduan jokatu behar genuela esanda kantxaratu ginen Eguesen kontra. Bada, garrantzitsuena da oso sentsazio onak izan genituela, eta partidua galduta ere pozik geratuko ginen. Zorionez, irabazi egin genuen, harrobiko jokalariei minutuak eskaini ahal izan genien eta poliki-poliki talde dinamikan sartzen dabilta gazteak, eta orain, jarraipena eman behar diogu horri guztiari. Baina kontuz biharko kontrarioarekin; lehenengo garaipena lortzeko geroago eta antsietate handiagoa izango dute, eta partidu ona egin beharko dugu".

Kluba, 'normaltasunera' bidean

Klubeko bigarren taldeak ere liga hasiko du: "Eta saskibaloia eskola ere hasi egingo dugu. Protokolo guztiak beteta bagoaz poliki-poliki aurrera, albiste ona da hori".

Badatoz bueltan Ford Mugarri eta Fagor Industrial

ESKUBALOA Urriaren 18an jokatu zuten ligako lehenengo jardunaldia, eta azkena izan zen

X.U. ARRASATE

Hiru hilabetez geldirik egon eta gero, bueltan dator Euskadiko Eskubaloi Txapelketa. Urriaren 18an jokatu zuten denboraldiko norgehiagoka ofizial bakarra, eta ondoren, bertan behera utzi zuten liga. Orduan, ez oñatiarrek eta ez arrasatearrek ez zuten liga nahi moduan hasi, biek ala biek galdu egin zuten eta. Hala, asteburuan bueltatuko dira jokalaria kantxara, eta biek jokatuko dute etxean, gainera.

Ford Mugarri Arrasatek Iturripen izango du hitzordua (zapatua, 16:00), Deustuko Unibertsitatearen kontra, eta Fagor Industrial Aloña Mendik Gasteizko Corazonistasen bisita izango du domekan (12:00).

Emakumezkoek ere bai

Emakumezkoen kategorian ere asteburuan itzuliko da eskuba-



Arrasatearrak erasoan. GOIENA

loia -Euskadiko Federazioaren menpe dauden ligetan-, eta, hain zuzen ere, Oñatiko Construcciones Ugarte Aloña Mendi taldearendako ligako lehen partidua izango da. Egia Petritegiren kontra jokatuko dute, etxean, zapatu goizean (11:00).

PILOTA Gipuzkoako Federazio barruko partidua abian dira

Urtarrilaren 24ko asteburuan itzuliko dira pilota partidu federatuak Debagoieneko frontoietara; tartean, Ezker Hormako Klubaren Arteko Gipuzkoako Txapelketari dagozkion partidua. Bestalde, eskola-kiroleko entrenamenduei ere berrekin ahal izango zaie, baina lehiaketa ez dago baimenduta kasu horretan; bai, ordea, entrenatzea.

ATLETISMOA Gipuzkoako Txapelketa jokatuko dute bihar Anoetan

Bihar, zapatua, egingo dute, Anoetan, Gipuzkoako pista estaliko atletismo txapelketa, eta bertan egongo dira ibarreko atleta asko. Joan den astean, Euskadiko Klubaren Arteko Txapelketan atleta batzuek erakutsi zuten dagoeneko sasoi betean daudela. Istar Dapena (5,15) eta Eneko Carrascal (15,69) lehenengoak izan ziren.

ARETO FUTBOLA Etxean du hitzordua Eskoriatzak

Maila Nazionalean diharduen Eskoriatzak etxean jokatuko du asteburuan, Aurrera Vitoriaren kontra. Eskoriatzarrak lider daude, orain arte jokatutako sei partiduetatik lau irabazi eta gero. Euskadiko Txapelketan diharduten Mondratek Goierri hartuko du eta Aretxabaletak Arcada en la Gradaren kantxan jokatuko du.



Batzareren kontra, abenduan. GOIENA

Heziketa sexualari eta afektiboari buruz, umorez

Zuzeneko musika eta ikus-entzunezkoak uztartzen dituen helduentzako umorezko 'Porno vs. Afrodita edo I love #Gorkaurbizu' antzezlanaren eskainiko du Benetan Be taldeak domekan, Amaia antzokian, 19:00etan; sarrerak, 'Arrasate.eus' atarian

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
40 urtetik gorako musikariek osatzen duten rock taldea azken kontzertua ematera doa, eta emanaldirako soinu probak has-tear direla abiatzen da *Porno vs. Afrodita edo I love #Gorkaurbizu* umorezko antzezlanaren. "Izango da antzerkia, izango da musika, izango da barre-algara, mina, pasioa, haragia, odola; izango da rock-and-rolla. Serio hartzeko gaia da, mina ere badelako batzuetan; horregatik, guk maitasun osoz umorea erabiltzen dugu, natural edo irteten zaigun moduan", dio taldeko kide Patricia Urrutiak.

Lanaren izenak argi adierazten du Benetan Be taldearen barre eragiteko asmoa: "Izenburuko bigarren zatiko traol txiki horrek harremana dauka antzezlanaren jorratzen dugun beste kontu batekin; hau da, identitate likidoarekin eta sare sozialek sortarazten duten sasi-gertutasun sentsazioarekin; eta lotuta dago, era berean, lilurarekin edo eguneroko ametsekin. Guk lilura hori gurera ekarri nahi izan dugu, gure gertuko erreferentzia bilatuta. Gorka Urbizu aproposa iruditu zitzaigun, eta, gure ideia kontatu genionean, barrezka hasi zen, gustatu egin zitzaion".



Domekan Amaia antzokian eskainiko duten antzezlanaren une bat. BENETAN BE

Hausnartzeko komedia

Heziketa afektiboaren eta sexualaren inguruan Nafarroako ikas-tetxeetan abiatu zuten Skolae programaren bueltan sortu zen zalaparta dela-eta hasi ziren antzezlanaren sortzen, Patricia Urrutiak esan duenez. "Irakurtzen eta gaia aztertzen hasi ginenean, asko harritu ginen gazteek duten pornoa kontsumitzeko ohitura handiagatik. Egia da, baina, pornoa ez dela gazteetara bakarrik mugatzen. Fikzio hori errealitatetzat jotzen denean sekulako desfasea sortzen dela ikusi ge-

nuen, eta, horrek erakarrita, artearen bitartez hausnartzeko tresna izan nahi duen lana sortzen hasi ginen. Hainbat pertsonaiaren artean, bi jaingo agertuko dira: Porno eta Afrodita, eta horien bitartez egiten dugu sexuari buruz berba; oso lagun-garriak egin zaizkigu bi pertsonaia horiek naturalki berba egiteko. Ero samarra dirudien taularen gainean nahiko txukun eta goxo pasatzen dira gauzak".

Taularen gainean hiru pertsona daude -Patricia Urrutia, Oñatin bizi den Ion Zumelaga

eta Juanjo Otero-. Hiruren artean hamar pertsonaia antzeztzen dituzte. "Bandako kideez gain, horien seme-alabak, aspaldiko lagunak... Horrez gainera, bideoak proiektatuko ditugu eta pertsonaia ezberdinak agertuko dira; Ainara Correas oñatiarrak antzeztuko ditu batzuk".

Zuzeneko musikarekin

Gorabehera eta kontraste handiak daude, baina zuzenean jotzen duten musikak emozio horiek kudeatzen laguntzen duela dio: "Guk sortutako abesti batzuk daude, eta beste ezagun batzuen bertsioak ere bai; horrez gain, Asier Ituarterekin elkarlanean egin dugun soinu banda ere badago. *Power trio* bat gara; hau da, baxua, gitarra eta bateria".

Helduentzako lana da, 13 urtetik gorakoentzako gomendatzen dute. "Belaunaldiarteko samarra da; argazki orokorra ematen da, eta ikusle bakoitzak beretik ikusten du".

Aretoetan, gogotsu

Urriaren 24an estreinatu zuten, Bilbon, eta, harrezkero, Sopelan, Andoainen eta Lezon eskaini dute. "Gauden baldintzetan, emanaldi bakoitza ospakizun bat da. Sekulako gogoarekin igotzen gara taularen gainera eta ikusleak ere gozatzen dudelako sentitzen dugu, nahiz eta begiak bakarrik ikusi. Antzerkia, musika... Ikuskizunak, orokorrean, behar ditugula uste dut; elkarguneak dira, elkarrekin konektatzeko fisikoki, eta baita emozionalki ere".

Taldearen bigarren lana

Orain dela hiru urte abiatu zuten Ion Zumelagak eta Patricia Urrutiak taldea, haurrentzako *Inondik inora* antzezlanarekin.

66 amodiozko gutun jaso ditu Jardunek 29. lehiaketan

"Segurtasuna bermatzeko asmoz", aurten ez dute urteroko sari banaketa ekitaldirik egingo

A. Aranburuzabala BERGARA

Antolatzaileek "balorazio positiboa" egin dute jasotako lanen kopurua ikusita, baina "faltan igarri dute" Euskal Herriko hainbat herrialdeetatik jaso ez izana; esate baterako, Arabatik eta Iparraldetik. "Gehienbat, Gipuzkoatik jaso ditugu; horien artean, 24 gutun Debagoienekoak, eta hamasei dira Bergarakoak", azaldu dute Jardun elkartetik.

40 urtez gorako parte hartzaileen artean gizonezkoak dira aurten nagusi, eta 26 urte azpikoetan, berriz, emakumezkoak. "Ez dugu eskuz idatzitako gutunik batu, eta gehienak posta elektronikoz jaso ditugu. Esaldien lehiaketan parte hartzeko gaur da azken eguna; Whatsappez edo mezuz 605 71 24 69 telefono zenbakira edo *amodiozkogutunak@gmail.com* helbidera bidali behar dira".

Sari-banaketa ekitaldirik ez

COVID-19 dela eta, segurtasuna bermatzeko asmoz, aurten aurrez aurreko sari banaketarik ez egitea erabaki dute. "Hala aurreikusten genuen sariketa abiatu genuenean; hala ere, modu batera edo bestera, gutun irabazleak ezagutzeko aukera izango da otsailaren 12an hasita".

HARMAILATIK

GOIENA TELEBISTA

URTARRILAREN 18AN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

ELKARRIZKETA: ARATZ KORTAZAR,

ESKORIATZAKO ARETO FUTBOLEKO KAPITAINA

XABIER URZELAIAK AURKEZTUTAKO KIROL SAIOA

goiena
Zu hemen zaude.



"Panorama zabala erakusten du bildumak"

XABIER AGIRRE MARGOLARIA

'Ikustera eman', paisaia margoekin osatutako bilduma, du ibilbide luzeko pintoreak ikusgai Gasteizko Vital Fundazioaren erakusketa aretoan otsailaren 5era bitartean

A. Aranburuzabala BERGARA

21 urtetan zehar egindako lanak batu ditu Agirrek *Ikustera eman* izeneko bilduman.

Martitzenean inauguratu zen; pozik?

Arabako atea irekita zeuden oraindik, eta pozik nago, bai; bisitarien artean, lagun mordo batek hurbiltzeko aukera eduki zuen, eta giro ederra sortu zen.

Zelako lanak erakutsi dituzu?

Erakusketa hau azken hogeitau urteetako atzera-begirakoa dela esan daiteke; guztira, 42 koadro daude eta mihise gaineko olio-pinturak dira.

Zure margogintzaren bilakaeraren erakusle da bilduma? Zertan narritzen da bilakaera hori?

Panorama zabala erakusten du bildumak. Obrak ikusteko ibilbidea ez dago kronologikoki antolatua; hau da, elkarren arteko loturak eta eztabaidak guztiz plastikoak dira. Proposamenak naturaren miresmenetik datoz beti, eta aldi bakoitzean arriskuren bat hartu ondoren sortutako koadro sorta da.

Paisaiak dira zure margotzeko esparrua. Zerk bultzatuta?

Aspaldiko urteotan margotzeko orduan eduki izan dudana erreferente edo motiboa da paisaia. Sentsibilitate kontua izan daiteke. Kanpora begiratzean, ikusten ditudan lekuetan, nire barne sentimenduen oihartzunen bat topatzen dudalako, ziur aski? **Gertuko eta urruneko paisaiak jaso dituzu. Zein toki, adibidez?**

Leku ezberdinetako izenburuak ikus daitezke koadro horien aldamenetan, bakoitzak bere zergatia dauka, eta une konkretu batean zuzenean bizitako oharren parametroei lotuta daude. *Belchite* izeneko obra leku historiko horren bisitan ateratako argazkietatik egina da. Gerrako bonbardaketa ondoren birrinduta geratu zen herri horrek erakusten duen arkitektura, bere koloreak, momentu hartako argitasun itsu-



Xabier Agirre, Gasteizko Vital Fundazioaren erakusketa aretoan. X. A.

"NIRE LANETAN NAHI GABE ATERATZEN DA PINTURAREN MATERIA ETA PINTZELKADAREN ADIERAZKORTASUNA"

garria, hautsa, aztarnen zirrara, motibazio anitzak dira koloreen argitasunari eta konposizio ausart bati ekiteko arazoak.

Zer bilatzen duzu aukeratzeko dituzun paisaia horietan?

Koadro bakoitzean, lekuaren itxura fisikoaz gain, margotzean pinturak eskatzen duen elkarriketa plastikoak eduki du lehentasuna.

Zein da zure margotzeko prozesua?

Motiboaren aurrean *plein-air* eginda dauzkaten koadro batzuk, ez denak; beste batzuetarako, argazki kameraren laguntza izan dut. Margolariaren esku tresna hori begien luzapen eta memoria bihurtzen da; bizitako sentazioen gordailu.

"Pintzelkadaren enpatea eta itxura zuretzako aintzakoak" izan direla eta "modernotasunean ondo errotuta" daudela zure lanak diote adituek. Bat zatoz?

Nire lanetan nahi gabe azaltzen da pinturaren materia eta pintzelkadaren adierazkortasuna. Paraje konkretuen ezaugarri fisikoa baino gehiago, elementuen lekualdaketa interesatzen zait, kromatismoaren hobespena. Bergarako arbasoen eskola.

Moises Eguren Bergarako margolaria izan zen zure lehenengo margo-irakasle eta erreferente. Zure lanetan antzematen da hori?

Moisesen irakaskizunek tinko jarraitzen dute nigan: koloreen askatasuna, kontrasteen erabilpena, konposizioa zaintzea eta, batez ere, koadro bakoitzean ausardiaz esperimentazio txiki bat bideratzea. Honi lotuta dago koadro bakoitzaren xarma.

Artista askoren irakasle izan zara urte askoan EHuko Arte Ederretako Fakultatean. Zertan eragin ditu?

Pertsona pribilegiatua sentitu izan naiz ikasleekiko harremanen kalitateagatik eta beren bide pertsonalak lantzean soltatzen dituzten asmakizun txinparten lekuko izateagatik.

Lanetik erretiratu berri zara, baina margotzen jarraitzen duzu, ezta? Materialak prest ditut, eta pinturari denbora gehiago emateko perspektiba ere bai.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urtarrileko sariak!

SPC Tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus | Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Informazioari: 075 15 1000. Argazkiak eta argazkiak: argazkiak@goiena.eus. Informazioari: 075 15 1000. Argazkiak eta argazkiak: argazkiak@goiena.eus. Informazioari: 075 15 1000. Argazkiak eta argazkiak: argazkiak@goiena.eus. Informazioari: 075 15 1000. Argazkiak eta argazkiak: argazkiak@goiena.eus.

Irabazi bi lagunendako otordua

ITURRIETA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: Urtarrilaren 19ra arte



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA "Jatetxea"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko udalari esker

"Bart non ate nintzen ni?" Tximi, Miri eta Txiribitonon haur antzezlanerako sarrerak ditugu

Arrasate | Amaia Antzokia | Urtarrilaren 23 | 17:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus | Whatsapp: KLUBA "Antzezlan" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Informazioari: 075 15 1000. Argazkiak eta argazkiak: argazkiak@goiena.eus. Informazioari: 075 15 1000. Argazkiak eta argazkiak: argazkiak@goiena.eus. Informazioari: 075 15 1000. Argazkiak eta argazkiak: argazkiak@goiena.eus.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA 57€

Deitur: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba

Euskara irabazle, denak irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI
Baseria Oñatin. Oñatin baserri bat erosteko interesa duen bikote bat gara. Edozein informazio duzuela, eskertuko genuke gurekin kontaktuan jartzeari. 600 34 87 13

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Familia batek etxebizitza behar du errentan, gubietez hiru logelakoa. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 642 03 54 33

Arrasate. Hiru ume dauzkat gurekin familiara eta etxebizitza behar dugu errentan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 640 71 78 55

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan, urgente. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 690 75 61 18 (Mari Carmen)

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN Oñati. 18 m²ko garaje itxia ematen da errentan, Kanpantxo kalea 1ean. Ate automatikoarekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 627 09 27 01 edo 660 61 44 30

4. LANA

401. ESKAINTZAK
Bergara. Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta emakume bat zaintzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 669 53 97 03

Emakume bat zaintzeko. Aramaioko baserri baten, emakume bat zaintzeko zaintzailea behar da. Barne langile bezala lan egiteko. Legezko agiriak eta soziosanitario titulazioa beharrezkoak dira. 653 70 83 56

Lan eskaintza. Etxea garbitzeko pertsona behar da. Asteazkenean goizean lan egiteko. Interesatuok honako telefonora deitu. Eskerrik asko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 636 00 21 87

402. ESKAERA

Arrasate edo Arexabaleta. Neska gertu arratsaldean nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko. 688 81 08 63.

Arrasate eta inguruak. Garbiketan eta ume ezin nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka. Interesatuok deitu zerbaki honetara 693 68 68 03

Arrasate. Emakume arduratsua orduka edo egunka garbiketarik egiteko gertu. Etxeak, atariak, tabernak edota baserriak. Baita nagusie laguntzeko ere. erosteko egitera, medikuarenera, ibiltzera eta abar. Autoa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 645 72 92 87

Arrasate. Etxeko lanak egiteko gertu nago: garbiketarik eta zaintza. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 632 39 87 73

Arrasate. Garbiketarik egiten jarduteko gertu nago, 13:00-16:00 eta 19:00-21:00ak artean. Baita pertsonen zaintzarako, sukaldean aritzeko, arropa lisatzeko eta abarretarako. Soziosanitario titulua daukat. Astelehenetik ostiralerara. Telefonoa: 602 32 06 58

Arrasate. Neska gertu egunean zehar nagusiak eta umeak zaintzeko, sukaldean edota garbiketarik jarduteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 610 99 70 46

Arrasate. Umeak zaintzeko prest nago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 76 12 18

Bergara. Emakumea gertu nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, lisatu eta abarretarako. Baita bulego eta antzekoak garbitzeko ere. 610 34 97 88

Bergara. Garbiketarik lanean aritzeko prest nago: etxeko, bulegoak eta abar. Baita pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko ere. 610 34 97 88

Bergara. Mutli euskalduna lanerako gertu. Tailerrean esperientzia dut, baina dendarri moduan edo bestelako lanerako ere gertu nengoke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 622 35 48 02

Debagoieta. Adinekoak zaintzen edo kalera laguntzen, garbiketan edo sukaldean jarduntze moduan lan egingo nuke. Telefonoa: 642 98 98 06

Debagoieta. Arratsaldean, asteburuetan edo jai egunetan lan egingo nuke. Nagusiak zaintzeko eta estetika alorreko titulazioak dauzkat. Autoarekin. 631 98 15 50

Debagoieta. Arratsaldez edo gauez pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. 602 82 91 39

Debagoieta. Asteburuetan zaintza lanak egiteko gertu nago. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 632 25 27 26

Debagoieta. Denetarik garbiketarik egiteko gertu nago: etxeko, atariak, tabernak edota baserriak. Baita nagusie laguntzeko ere. erosteko egitera, medikuarenera, ibiltzera eta abar. Autoa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 645 72 92 87

Debagoieta. Esperientzia duen emakumezkoa, orduka, asteen zehar edo asteburuetan, pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko edota garbiketarik lan egiteko prest. 666 07 42 98 (Claudia)

Debagoieta. Esperientzia duen mutila nagusiak zaintzeko, garbiketarik egiteko edota zerbitzari izateko gertu. Orduka eta etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 638 85 43 36

Debagoieta. Esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko, garbiketarik egiteko edota zerbitzari izateko gertu. Orduka eta etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 654 11 15 14

Debagoieta. Esperientzia duen neska pertsona nagusiak zaindu edo garbiketarik lan egiteko prest. Berehalaz haszteko moduan. Interesatuok deitu zerbaki honetara 643 59 76 06

Debagoieta. Etxean bertan bizi izaten, orduka, asteburuetan zein gauean zaintza lanak egingo nituzke. 637 12 15 95

Debagoieta. Garbiketarik egiteko nitzuzke, orduka, goizez zein arratsaldez. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 622 24 86 64

Debagoieta. Garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke, baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634 02 11 87

Debagoieta. Garbiketarik eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 26 22 51

Debagoieta. Gauez pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 659 90 85 13

Debagoieta. Nagusiak eta umeak zaintzen eta garbiketarik egiten esperientzia dut. Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar lan egingo nuke. Gomendio gutunak aurkez ditzaket. 634 85 66 51

Debagoieta. Nagusiak eta umeak zaintzen, etxe-

ko langile moduan, garbiketarik edota ospitalean txandak egiten aritzeko gertu nago. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 722 45 58 75

Debagoieta. Nagusiak zainduko nituzke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 656 77 13 14 (Saul)

Debagoieta. Nagusiak zaintzen edota atari eta abarrik garbitzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo beste- la. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 603 33 18 29

Debagoieta. Nagusiak zaintzen edota garbiketarik lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 632 83 32 44

Debagoieta. Nagusiak zaintzen eta garbiketarik aritzeko gertu nago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 612 27 82 34

Debagoieta. Nagusie laguntza emateko gertu nago: kalera lagundu, medikuarengana, man-

datuak egin eta abar. Baita gautean etxean zaintzeko ere. Autoa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 37 49 04

Debagoieta. Neska arduratsua, sukaldean eta zaintzan esperientzia duena, etxean bertan bizi izaten, orduka zein asteburuetan lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua erekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 93 23 22

Debagoieta. Neska arduratsua, sukaldean eta zaintzan esperientzia duena, etxean bertan bizi izaten, orduka zein asteburuetan lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua erekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 67 96 77

Debagoieta. Orduka, etxean bertan bizi izaten edo ordezkapenak egitean, zaintza lanak egiteko nituzke. Baita atari eta abarren garbiketarik ere. Soziosanitario titulua erekin. 643 73 62 36

6. MOTORRA


602. EROSI
Land Rover bila nabil. Land Rover Defenderra behar dut baserriarako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, maburata, kolpearekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 623 17 95 37

8. DENETARIK

802. EROSI
Bizikleta estatikoa. Bigarren eskuko bizikleta estatikoa erostea nahiko nuke. Saltzeko badauka, deitu zerbaki hauetara: Nekane. Deitu 659 02 90 66 edo 699 74 66 14 telefono zerbaki honetara.

806. GALDU
Elur-erraketa. Urtarrilaren 6an, Mendiola-Kurzeberri bidean elurretako erraketa urdin bat galdu zitzaidan. Norbaitek hartu badu, deitzea eskertuko nuke. Eskerrik asko! Deitu telefono zerbaki honetara: 659 60 19 89 edo 619 58 13 53

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



RAMOSEKIN ETA UGARTEREKIN ENTRENATZEN

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30



ARANTZA SANTESTEBANI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa' Eguaztena, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 15	ZAPATUA, 16	DOMEKA, 17
09:00 Kantari Arexabaleta 8 09:30 Kantari Arexabaleta 9 10:00 Hemen Debagoiena 11:00 Eskulana etxetik 11:30 Erreportajea: Erregeak Arrasaten 12:00 Hemen Debagoiena 12:30 Hemen da Miru 4 13:00 Elkarrizketa: Leire Bilbao 14:00 Hemen Debagoiena 15:00 Albisteak 15:30 Zirikatzen 7 16:00 Albisteak 16:30 Elkarrizketa: Leire Bilbao 17:00 Albisteak 17:30 Adinberri 25 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Ahotsenea: Amorante 19:30 Erreportajea: Erregeak Arrasaten 20:30 Zirikatzen 7 21:00 Hemen Debagoiena 21:00 Elkarrizketa: Leire Bilbao 21:30 Erreportajea: Memoria historikoa 22:00 Hemen Debagoiena	09:00 Kantari Oñati 1 09:30 Kantari Arexabaleta 9 10:00 Kantari Oñati 2 10:30 Erreportajea: Memoria historikoa 11:00 Zirikatzen 7 11:30 Harmailatik 12:00 Asteko errepasoa 13:00 Hemen Debagoiena 14:00 Elkarrizketa: Leire Bilbao 14:30 Hemen Debagoiena 15:30 Lehen leiroran: Aitor Alvarez 16:00 Hemen Debagoiena 17:00 Zirikatzen 7 17:30 Ahotsenea: Amorante 18:00 Elkarrizketa: Leire Bilbao 18:30 Asteko errepasoa 19:30 Erreportajea: Memoria historikoa 20:00 Zirikatzen 7 20:30 Hemen Debagoiena 21:30 Ahotsenea: Amorante 22:00 Zirikatzen 7 22:30 Hemen Debagoiena 23:30 Erreportajea: Erregeak Arrasaten	08:00 Hemen da Miru 3 08:30 Hemen da Miru 4 09:00 Hemen da Miru 2 09:30 Kantari Arexabaleta 9 10:00 Kantari Oñati 1 10:30 Kantari Oñati 2 11:00 Hemen Debagoiena 12:00 Ahotsenea: Amorante 12:30 Erreportajea: Memoria historikoa 13:00 Elkarrizketa: Leire Bilbao 13:30 Lehen leiroran: Aitor Alvarez 14:00 Asteko errepasoa 15:00 Hemen Debagoiena 16:00 Hemen da Miru 2 16:30 Kantari Oñati 1 17:00 Kantari Arexabaleta 9 17:30 Hemen da Miru 3 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Erreportajea: Memoria historikoa 19:30 Ahotsenea: Amorante 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 Elkarrizketa: Leire Bilbao 21:30 Ahotsenea: Amorante 22:00 Zirikatzen 7

EGUNERO
EGUNeko ALBISTE NABARMENAK 'Albigestia' 15:00/16:00/17:00

EGUNERO
ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAJEAK 'Hemen Debagoiena' 18:00/20:00/22:00

MARTITZENA, 19
GALDERA-ERANTZUNEN SAIOA 'Zirikatzen' 21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOAK: goiena.eus/teledista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05
 SAILKATUAK@GOIENA.EUS
 WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera ezterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz zor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OROIGARRIA

Nati Abasolo Gallastegi

2021eko urtarrilaren 14an hil zen, 67 urte zituela.

Ibilbidean eta asmoetan bidelagun izan ginonon izenean, ez adiorik.

Arrasateko Udal Euskaltegia.
Arrasaten, 2021eko urtarrilaren 15ean.



OROIGARRIA

Nati Abasolo Gallastegi

2021eko urtarrilaren 14an hil zen, 67 urte zituela.

A zer-nolako zortea izan dugun zure konfiantza eta goxotasuna jaso eta zure ilusioa partekatzen. Beti izango zaitugu gogoan.

Arantza Ormazabal eta Andrea Azkoaga.
Oñatin, 2021eko urtarrilaren 15ean.



OROIGARRIA



Nati Abasolo Gallastegi

2021eko urtarrilaren 14an hil zen, 67 urte zituela.

Zure bizitzeko inddarrak argitu gaittu. Zurekin bizitako momentuek, maitasun eta poztasunez bete. Maitte zaittugu, tia Nati.

Arientza-Etxebarriko loben partetik.
Aretxabaletan, 2021eko urtarrilaren 15ean.



OROIGARRIA

Joaquin Ortiz de Zarate Muñoz

Bergaran hil zen, 2020ko abenduaren 22an.

Beti izango zaitugu gogoan.

Carrillo-Agirre eta Carrillo-Arregi sendiak.
Arrasaten, 2021eko urtarrilaren 15ean.




OROIGARRIA


Nieves Otxoa-Aizpurua Uribe-Etxebarria

Luis Ezeiza HLHko irakasle baten ama
2021eko urtarrilaren 6an hil zen, 82 urte zituela.

Luis Ezeiza Herri Eskolako komunitateak bat egiten du familiaren saminarekin.



Eskoriatzan, 2021eko urtarrilaren 15ean.



OROIGARRIA


Carmen Barrena Cortabarría

Bittor Olalde 'Kamiñero'-ren alarguna
2021eko urtarrilaren 11n hil zen, 93 urte zituela.

Seme-alabak: Victor (†), Moises eta Ana Alonso (†), Ines (†), Beatriz, Elena eta Javier Murua (†), Judith eta Antonio Murua (†), Ana eta Felix Esnaola. Bilobak: Josu, Ainhoa, Maider eta Asier Unanue, Aimar, Iban, Asier, Leire.

—
Agur, ama
Hartu ezazu merezi dozun atsedena
Gure bihotzian eramango zaittugu
Eskerrik asko danagaitik

Oñatin, 2021eko urtarrilaren 15ean.



ESKER ONA



Mertxe Aguirrezabal Lamarain

Jose Mari Arejolaleibaren alarguna
2021eko urtarrilaren 9an hil zen, 87 urte zituela.

Seme-alabak: Miren eta Julian Lete, Edurne, Imanol (†). Bilobak: Imanol eta Amaia, lokin eta Lorea. Birbilobak: Harriet, Aner, Mare, Haitza. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinarik, zaintzaile Liliana Ruiz eta gainerako ahaideak.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean

Oñatin, 2021eko urtarrilaren 15ean.



ESKER ONA



Ramon Gallastegi Balzategi


2021eko urtarrilaren 8an hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa, maitasuna eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko urtarrilaren 15ean.



ESKER ONA




Javier Alvarez Etxebarria

2021eko urtarrilaren 9an hil zen, 74 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko urtarrilaren 15ean.



ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 180 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienan.

URTEURRENA

Maria Jesus Aranguren Arregi

Victoriano Etxanizen alarguna
2020ko urtarrilaren 16an hil zen, 77 urte zituela.

Bere oroimenez urteurreneko meza, igandean, urtarrilak 17, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiara ospatuko dugu.

—

Gurekin izango zaitugu beti bihotzean.

Mila esker etorriko zaretenoi.
Antzuolan, 2021eko urtarrilaren 15ean.



BADESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guran izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. 'Ez dadila sua itzali'

Gustura ibili ziren hainbat bergarar, gazte eta heldu, Jardunek proposatutako ekintzan. Galtzagorri baten laguntzarekin, pertsonaia mitologikoen artean ibili ziren jolasean.

2. Euskal gatazka politikoa oinarri

Bizi izandakoak, beldurra, tortura eta laguntasuna transmititu nahi izan ditu Mikel Sotok *Suak pizten direnean* liburuan, eta baita Oñatin egindako poesia errezitaldian.

3. Jolasak elkarbanatzen

Aurreko domekatik martxora arteko domeka guztietan zabalik egongo da Arrasateko Okendoko ludoteka. Jolasak eta jokoak partekatzeke gunea izango da familiendako.

4. Basakabiko udalekuetan barrena

Go!azen 7.0 musikalaz gozatu zuten Oñatin aurreko asteburuan. Basakabiko udalekuetan diharduten aktoreekin kantuan eta dantzan egin zuten oñatiarrek.

5. Aizkorri, zurituta

Ikusgarri daude bailarako mendiak, izan den elurtearekin, eta horren adibide da Jose Mari Anduagak Aizkorri egindakoa. Temperatura ere ikusgarria zen: zortzi gradu zero azpitik.

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik argitaratuko ditugu.


Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ARETXABALETA
Axel Anduaga Cortes
Urtarrilaren 19an, 7 urte. Zorionak, prexioxo! Ene, ze handi ein zaren ja! Ondo-ondo pasatu eguna, *kaiño*. Patxo potolo-potolo bat etxeko danon eta, bereziki, Liaren partetik.



OÑATI
Egoi Ibahe Kerexeta
Urtarrilaren 19an, 6 urte. Zorionak, *pitxin!* Ondo-ondo pasatu eguna eta laztan potolo bat, etxeko danon partetik. Bereziki Unairena!



ARRASATE
Hegoa Bergaretxe
Arkaux
Urtarrilaren 18an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Gure etxeko sorgin txikiak jada bi urtetxo. Jarraitu zaren modukoa izaten eta irribarre polit hori mantentzen. Zorionak etxeko danon eta, bereziki, Jareren partetik. Patxo handi bat!



ARRASATE
Nile Hernandez Lopez
Urtarrilaren 18an, 2 urte. Zorionak, Nile! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna! Besarkada handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
Maialen Zenitagoia
Apraiz
Urtarrilaren 17an, 4 urte. Zorionak Kattalinen eta etxeko danon partetik. Patxo erraldoiak zuretat, politz hori!




BERGARA
Ainhoa Rivera Iñarra
Urtarrilaren 17an, 10 urte. Azkenian iritsi da urtarrilaren 17a! Ondo-ondo pasatu eguna, familia guztiaren partetik. Zorionak, Ainho!



ESKORRIATZA
Amalur Karpio
Azpitarre
Urtarrilaren 16an, 6 urte. Gure neskatila polittenari opa diogu, ondo ospatzeko bere urtebetetzea. Osaba Gorka, amama Resu eta aitaita Txomin.




ANTZUOLA
Iratzi Diosdado Lizarazu
Urtarrilaren 16an, 10 urte. Zorionak, Irati! Egun ederra pasa dezazula eta muxuak etxeko danon partetik!



BERGARA
Ane Beloki Iñarra
Urtarrilaren 15ean, 5 urte. Zorionak, maitxia! ondo pasatu eguna! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
Oier Galdos Navarro
Urtarrilaren 15ean, 4 urte. Zorionak eta patxo erraldoiak danon partetik! Ondo-ondo pasatu!



OÑATI
Jon Fernandez Cano
Urtarrilaren 15ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Jada zortzi urte! Muxu handi-handi bat, familia osoaren partetik. Izugarri maite zaitugu!



ARRASATE
Beñat Rubio
Bidaburu
Urtarrilaren 13an, 9 urte. Zorionak, potxolo! Bederatzi urte! Ondo-ondo ospatu! Muxu handi bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
Ekhi Letamendi
Bolinaga
Urtarrilaren 13an, urtebete. Zorionak, Ekhi! Akordatu orduko urtetxo bat egin dozu! Segi horrelako alai izaten! Patxo pila bat, asko maite zaitugun danon partetik!




BERGARA
Ibon Lete Cobo
Urtarrilaren 12an, 5 urte. Zorionak, mutil handi! Ondo ospatu zure eguna. Patxo potolo bat danon partetik!



BERGARA
Oier Mendizabal
Larrañaga
Urtarrilaren 11n, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Besarkada handi bat familiaren, eta bereziki, Maddiren partetik. Asko maite zaitugu!



ANTZUOLA
Ekain eta Gaizka Niño Fernandez
Urtarrilaren 10ean, 5 urte. Zorionak! Jada bost urte betetzen dituzue! Muxu potoloak, familiaren partetik! Asko maite zaituztegu, bikote!



OÑATI
Izar Irazabal Plazaola
Urtarrilaren 10ean, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu eguna! Patxo pila bat, etxeko danon partetik, eta bereziki, Marenen eta Garaziren partetik!



BERGARA
Xabat Ernabide Sebal
Urtarrilaren 9an, 4 urte. Zorionak, Xabatintxo! Ondo pasatu eta hobeto zelebratu! Familiaren, eta batez ere, anaia Adeiren partetik.



OÑATI
Naia Letamendi
Urtarrilaren 8an, 8 urte. Zorionak, Naia! Jada zortzi urte! Disfrutatu egun berezi honetaz. Jarraitu beti bezain alai izaten. Muxu handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
Danel Urrutia
Arribillaga
Urtarrilaren 8an, 6 urte. Zorionak, potxolo! Muxutxuak etxeko danon partetik! Segi hain goxua izaten, maittia!



ANTZUOLA
Bidatz Elizburu
Salegi
Urtarrilaren 7an, 12 urte. Zorionak, maitia! Ze handi eta politta zauden! Ondo pasatu zure egunian, gurasoen eta familia osoaren partetik.



OÑATI
Ibai Zumalde Olariaga
Urtarrilaren 5ean, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, polit hori! Patxo handi bat familia osoaren partetik, maittia.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 15

BERGARA 'Pobrezia eta askatasunik eza pandemia garaian' hitzaldia

Zubitxako Eskolako egitarauaren baitan. Hitzaldietan euskaratik gaztelaniarako itzulpena egingo da. *Zubitxako eskolan, 17:00etan.*

ESKORIATZA 'Hi, selfie!' argazki rallya

8-12 urte arteko gaztetxoendako. Edukiera mugatuarengatik, hiru egubakoitzetan egingo dute ekintza berbera. *Tortolisen, 17:00etan.*

ESKORIATZA Gaztelekuaren apainketa

Natura eta euskara gai hartuta, horma-irudia margotuko dute gaztetxoek. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

ARETXABAETA 'Bizipen gineko-obstertrikoa' ikastaroa

Metik proiektuko Irune Robles eta Raquel Garcia adituekin. *Arkupen, 17:30ean.*

BERGARA 'Bertakoa iratzartzen' dokumentala

Gonbidapenak leihatilan edo *seminarioa.eus* atarian jaso behar dira, aurretik. *Seminarioan, 18:00etan.*

ARRASATE Podemos Arrasateren batzarra

Irekia, edukiera mugatuarekin. *Kulturaten, 18:00etan.*

ARETXABAETA 'Trabajos de interior' antzezlana

Behibi's Teatro taldearen eskutik. Alferkeria existentzian bizi den emakume nihilista bat lanean hasiko da, plastikoekin instalazioak egiten. Sarrerak, lau euro. *Arkupen, 19:00etan.*

ZAPATUA 16

ARRASATE VIII. Zuhaitz Azoka Sei mintegitako barazkiak, fruta-arbolak eta koniferoak erosteko aukera, besteak beste. *Seber Altubean, 09:00etan.*



JULEN ALONSO

BERGARA 'Sutan dantzan' ikuskizuna

Julen Alonso trikitilariaren azken proiektua. Oholtzan egongo dira, baita ere, Oinkari dantza taldea eta Eneritz Aulestia, Iker Telleria, Ander Ederra eta Joanes Ederra musikariak. Sarrerak, zortzi euro. *Bihar, zapatua, Seminarioan, 19:00etan.*

ARRASATE Ipuin kontaketa tailerra Saroa Bikandirekin

0-7 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako, eta hezitzaileendako. *Bibliotekan, 10:00etan.*

BERGARA Laboratorium museoko pieza batzuen zahar-berritzeari buruzko hitzaldia

Artez enpresako Aida Payak eta Maite Fernandezek egingo dute berba, ele bitan. Debalde, baina izena eman behar da 943 76 90 03 telefonoan. Hogei pertsonarendako edukiera. *Laboratoriumen, 11:00etan.*

ARRASATE Zuhaitz landatzea

400 zuhaitz landatuko dituzte Etxezarreta inguruan, bi taldetan: 10:00etan bata eta 11:00etan bestea. Ostein, bisita gidatua Etxezarretan. *Musakolako San Isidro elizan.*

OÑATI 'Me pongo flamenca' tailerra

Umoretik, beste pertsona batzuekin harremanetan ipintzeko pautak emango ditu Monica Nuñezek, Jabetze Eskolaren baitan. Gaurkoa lehenengo saioa da. *Gaztelekuan, 10:30ean.*

ANTZUOLA Bertso saioa

Beñat Gaztelumendi, Unai Agirre, Uxue Alberdi eta Alaia Martin bertsoetan. Sarrerak aurrez erosi behar dira, Interneten edo liburutegian, hamar eurotan. *Torresoroan, 18:00etan.*

BERGARA 'Sutan dantzan' ikuskizuna

Julen Alonso trikitilariaren azken proiektua. Oholtzan egongo dira, baita ere, Oinkari dantza taldea eta beste hainbat musikari. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarioan, 19:00etan.*

OÑATI 'Konkistaren mugarriak' erakusketa

Euskaldunon historiako pasarte esanguratsuenak biltzen dituen bilduma ikusgai, hilaren 25era arte. *Kultura etxean, 18:00etan.*

DOMEKA 17

BERGARA 'Heriotzarako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean' erakusketa

Burdin Aroan hilarrietan egiten ziren inskripzioen bilduma, 24ra arte. *Laboratoriumen, 11:00etan.*

OÑATI San Anton anaidiaren urteko kuota

Parrokiako mezaren aurretik eta ostean urteko kuota kobratuko dute. *Parrokiari, 12:00etan.*

BERGARA Taila erakusketa: azken eguna

Gaur da azken eguna. *Aroztegin, 12:00etan.*

ARETXABAETA 'Mari eta gaileta fabrika' antzezlana

7-14 urte artekoendako lana, Eidabe taldearen eskutik. Gaur



EIDABE TALDEA

ARETXABAETA 'Mari eta gaileta fabrika' antzezlana

7-14 urte artekoendako lana, Eidabe taldearen eskutik. Gaur egungo emakumei bidea erraztu dieten andre langileei egindako omenaldia da. Sarrerak, hiru euro. *Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.*

egungo emakumei bidea erraztu dieten andre langileei egindako omenaldia da. Sarrerak, hiru euro. *Arkupen, 17:00etan.*

ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko haurrentako eta euren familiendako txokoa. Aisialdiaz eta jolasaz gozatzeko espazioa. *Okendoko ludotekan, 17:00etan.*

ARRASATE 'Porno vs Afrodita' antzezlana

Benetan Be konpainiaren lana. Ezintasunak, nahigabeak, atsekabeak eta ergelkeria sexualak elkarrekin partekatzeko lana. Patricia Urrutia, Ion Zumelaga eta Juanjo Otero oholtzan. Sarrerak, hamar euro. *Amaia antzokian, 19:00etan.*

ASTELEHENA 18

ARRASATE 'Bertsolaritza: bizitzeko modu bat' hitzaldia

Andoni Egañak egingo du berba, Goienagusiren ikasturtearen baitan. *Kulturaten, 11:00etan.*

ARETXABAETA 'Nire akuarelak' erakusketa

Herriko paisaiak protagonista dituen Raket Perez de Arenazaren lanak. *Arkupen, 11:00etan.*

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

OÑATI 'Gure burua ezagutzea eta ahalduntzea argazkilaritzaren bidez' ikastaroa

Gaur hasiko da Jabetze Eskolaren baitako ikastaroa, Adirane Azkuenagarekin. *Bidebarrietako egoitzan, 18:00etan.*

MARTITZENA 19

ANTZUOLA Odol-ematea

Urteko lehen deialdia. *Olaranen, 16:30ean.*

BERGARA Genero berdintasunean sentsibilizatze online saioa

Familiendako, Silvia Muriel Berdintasun Aholkulariarekin. Izena eta informazioa: *lhl@maltuna.eus* edo 943-89 92 73. *Interneten, 18:00etan.*

OÑATI Literatura solasaldia

Irene Solaren *Nik kantatu eta dantzan egiten du mendiak* liburuaren gaineko saioa, Yurre Ugartek gidatuta. *Liburutegian, 18:30ean.*

ARRASATE 'El artista anónimo' pelikula
Martitzenetako emanaldia.
Amaia antzokian, 19:00etan.

EGUAZTENA 20

ARRASATE 'Orquesta Sinfónica: grandes batutas II' hitzaldia
Zarauzko musika eskolako zuzendari Marina Lertxundik egingo du berba, Goienagusiren ikasturtearen baitan.
Kulturaten, 11:00etan.

OÑATI 'Nork bere burua zaintzen eta maitatzen ikastea. Zaintza-eredu berriak' tailerra
Kontxi Lopez Sorriak gidatuta, Jabetze Eskolaren baitan.
Biteri plazan, 15:00etan.

ARRASATE Sasoibide: ibilaldia, mendira
Irten aurretik erabakiko dute nora joango diren.
Biteri plazan, 15:00etan.

BERGARA Genero berdintasunean sentsibilizatzeko online saioa
Hezkuntzako langileendako, Iraitz Agirre Berdintasun aholkulariarekin. Izena eta informazioa: *ihl@maltuna.eus* edo 943-89 92 73.
Interneten, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserriaren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

BERGARA 'Beginning' pelikula
Zinekluba. Jatorrizko bertsoan, azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoa, 18:30ean.

OÑATI 'Konstituzio nafarra: Foruak-Zuzenbide piriniarra' hitzaldia
Roldan Jimenok egingo du berba, Oñatiko Nabarralde taldeak gonbidatuta.
Zinema aretoan, 19:00etan.

OÑATI 'Sugarren mende' liburuaren aurkezpena
Asisko Urmenetak idatzitakoa, sorgin-ehiza oinarri hartuta. Unibertsitate-tesietan eta liburuetan

egindako ikerketa zabal baten emaitza da.
Gaztetxean, 19:00etan.

EGUENA 21

ARRASATE Sasoibide
San Kristobalerainoko joan-etorria egingo dute.
Biteri plazan, 10:00etan.

ESKORIATZA Literatura solasaldia: 'Formas de volver a casa'
Alejandro Zambraren *Formas de volver a casa* liburuaren oinarri hartuta, Ane Zapaterok gidatuta.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE Ipuin kontaketa Ane Gebararekin
4 urtetik gorako umeendako.
Kulturate, Arrasate 18:00etan

ARETXABALETA Olatz Salvador
Aho uhal diskoa aurkezteko emanaldia. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI 'El arte de volver' filma, zineklubean
Pedro Collantesen pelikula. Sarrerak, bost euro
Zinema aretoan, 19:00etan.

BERGARA Ruper Ordorikaren kontzertua
Sarrerak, zortzi eurotan, *seminarixoa.eus* atarian.
Seminarixoa, 19:00etan.

OÑATI Zetak taldea
Pello Reparazen proiektu berria ezagutzeko emanaldia.
Gaztelekuan, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 22

ESKORIATZA 'Hi, selfie!' argazki rallya
8-12 urte arteko gaztetxoendako.
Tortolisen, 17:00etan.

ARRASATE 'Cuba: verdades y mentiras' hitzaldia
Izen bereko liburuaren gainean egingo dute berba Jose Manzanedak eta Milagros Aceak.
Kulturaten, 18:30ean.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Manual de buena esposa
Zapatua eta astelehena: 19:00.

Ipuin herriko herriak
Zapatua: 16:30.

BERGARA

SEMINARIXOA

Perfumes
Domeka eta astelehena: 18:30.

Los Croods, una nueva era
Domeka: 16:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El inconveniente
Egubakoitzetik astelehena: 19:00.

En guerra con mi abuelo
Zapatua eta domeka: 16:30.

EIBAR

COLISEO

Salvaje
Domeka: 16:00.

Perfumes
Domeka eta astelehena: 19:00.

Deseando amar
Domeka: 16:00, 19:00.
Astelehena: 19:00.

ANTZOKIA

Salvaje
Domeka eta astelehena: 19:00.

The Elfinks (euskaraz)
Domeka: 16:00.

GASTEIZ

BOULEVARD

Los Elfins
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 18:45.

Eguaztena eta
eguna: 17:00, 19:00.

Salvaje
Egubakoitzetik domekara eta eguaztena: 17:00, 19:00.
Eguena: 17:00.

Hasta el cielo
Egubakoitzetik zapatua: 16:00.
Egunero: 18:30.

Wonder woman
Egubakoitzetik zapatua: 16:00.

Egunero: 18:10.
Eguaztena eta eguna: 17:10.

Los Croods
Egunero: 17:00.
Egubakoitzetik zapatua: 19:00.
Egubakoitzetik domekara: 16:00, 18:00.

En guerra con mi abuelo
Egubakoitzetik zapatua eta domeka: 18:50.
Eguaztena eta eguna: 17:00.

Saint Maud
Egubakoitzetik zapatua eta eguna: 17:00.

El verano que vivimos
Zapatua eta domeka: 16:15.

El pequeño vampiro
Zapatua eta domeka: 16:15.

La última gran estafa
Egubakoitzetik zapatua: 19:00.

GORBEIA

Trolls 2
Egubakoitzetik zapatua: 17:10.

Domeka: 12:00, 17:10.

La bruja de Roald Dahl
Egubakoitzetik zapatua: 17:15.
Domeka: 12:00, 17:15.

En guerra con mi abuelo
Egubakoitzetik zapatua: 17:20, 19:20.
Domeka: 12:00, 17:20, 19:20.

El incoveniente
Egunero: 19:25.

La última gran estafa
Egunero: 17:15.

Salvaje
Egubakoitzetik zapatua: 17:05, 19:25.

Wonder woman
Astelehenetik eguenera: 18:00.

Hasta el cielo
Egubakoitzetik zapatua: 17:00, 18:55.

Los Croods
Egubakoitzetik zapatua: 17:20, 19:20.
Domeka: 12:00, 17:20, 19:20.

Las niñas
Egunero: 19:20.

Saint Maud
Egubakoitzetik domekara: 19:30.

Mi amigo pony
Egunero, domeka izan ezik: 17:20.
Domeka: 12:00, 17:20.

La última gran estafa
Egunero: 19:25.

El padre
Egunero: 17:15, 19:15.

Mi amigo pony
Zapatua eta domeka: 11:30.

La última gran estafa
Egubakoitzetik eguenera: 17:05.

Las mil y una
Egunero: 19:00.

El pequeño vampiro
Egubakoitzetik zapatua: 17:15.

Los Croods
Egunero: 19:15.

Manual de buena esposa
Egunero, martitzena izan ezik: 19:10.

FLORIDA

El jinete dragon
Zapatua eta domeka: 12:00.

En guerra con mi abuelo
Zapatua eta domeka: 12:00.

La cronica de Fabulandia
Zapatua eta domeka: 12:00.

Hasta el cielo
Egunero: 18:55.

El padre
Egunero: 17:15, 19:15.

Mi amigo pony
Zapatua eta domeka: 11:30.

La última gran estafa
Egubakoitzetik eguenera: 17:10.

Las mil y una
Egunero: 19:15.

El padre
Egunero: 19:15.

Manual de buena esposa
Egunero, martitzena izan ezik: 19:10.

KRITIKA

El padre (The father) ★★★★★

Zuz.: Florian Zeller. **Herr.:** Erresuma Batua (2020). **Aktoreak:** Anthony Hopkins, Olivia Colman.

Irtenbide bako labirintoa

ANTONIO ZABALA

El padre pelikularen jatorria antzerkia da. Florian Zellerrek antzerki obra arrakastatsua idatzi zuen, eta orain, testua, zinemara eraman du. Gidoia idazteko, Christopher Hamptonen laguntza izan du. Eta Zeller, gidoilaria izateaz gain, filmaren zuzendaria ere bada. Anthonyk zahartzaroko dementzia du, eta alaba, Anne, aita zaintzeaz arduratzen da. Istorioaren egitura nahasia da. Zuzendariak Anthonyren buruan sartu nahi gaitu, bere irtenbiderik gabeko labirintoan murgildu ahal izateko. Alabarekin, haren senarrarekin eta zaintzailearekin izango dituen harremanak nahasturik ikusiko ditugu: ez dakigu zehatz-mehatz oroimenak diren edo asmatutako gauzak. Egoerak eta pertsonaiak aldatuz joango dira, eta ikusleok



Anthonyren harridura noraino hel daitekeen sumatuko dugu. Bere momentu argiak, pertsonak nahasten dituen momentuak... Baina istorioa ez da hor geratzen. Alabaren kezka guregana heltzen da. Ez da gauza erraza maite duzun pertsona baten hondamendia ikustea. Ezin ulertzea horren

buruan pasatzen ari dena. Sentitzen den ezintasuna, eta, era berean, pertsona horri lotuta egotearen sentsazioa izatea. Sarritan, latzak diren erabakiak hartu behar dira. Bikote protagonistaren interpretazio ederrak oso gertuko egiten digu beraien egoera eta bizi duten zurrumbilo emozionala.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Zona gorria

Luzaro egon da Debagoiena pandemiaren alde gorrian; alegia, datu altuegiak ematen. Bestela ere gorri fama badu eskualdeak, hauteskondeen emaitzak eta beste hainbat adierazle kontuan hartuta. Oraingo gorria, ordea, lotsarena eta izuarena izan da bertakoentzat. Izan ere, kutsatuen eta hildakoen aldetik beste asko baino larriago egotea esan nahi zuen, eta, ondorioz, neurri zorrotzagoak jasan beharra. Halakoetan, natural sortzen da galdera: zer egin dugu guk besteek baino okerrago?

Akats puntualetatik harago, ez dut uste debagoiendarren portaerak eragin duenik egoera hau. Seguruenik, arrazoi txiki eta inguruabarreko askoren baturak gorriarazi du eskualdea; horien artean, ez da txikiena izango lan industrialeko gune oso aktibo izatea eta egunero milaka joan-etorri egotea. Ezin jakin, ez delako daturik eman; are gutxiago, analisirik: kutsatuen adina, jarduera, mugimenduak, harremanak... Jakin ez, eta ohiko errezeta aplikatu da: ostalaritza eta merkataritza ixtea, lanez kanpoko mugikortasuna mugatzea, eta lotsa edo izua eragitea.

Ikerketa bidez kontrakoa frogatu ezean, nik nireari eutsiko diot: Debagoienak ez du izan erru berezirik.


BUKATZEKO



Asier Urtzelai *Binbi* eskoriatzarra.



Julen Herran *Herrantxi* bergararra.



Maitane Uribe aramaioarra.



Ibai Alberdi aretxabaletarra. ARGAZKIAK: EITB

Debagoiendarrak, 'reality show'-etan abenturazale

ETB1en 'Baserrria' saioa estreinatu zuten domekan, eta astelehenean, berriz, aurkezpenik behar ez duen ETB2ko 'El conquistador del Caribe' 'reality show'-aren 17. edizioa hasi zen. Estreinaldi arrakastatsuak izan dira biak, duda barik

Imanol Beloki DEGAGOIENA

Baserrria programa berrian Maitane Uribe aramaioarra eta Ibai Alberdi aretxabaletarra izan dira parte hartzen, eta *El conquistador del Caribe*-n, Asier Urtzelai *Binbi* eskoriatzarra eta Julen Herran *Herrantxi* bergararra. Guztiek adierazi dute esperientzia aparta bizi izan dutela.

Klaudio Landak ETB1en aurkeztutako saio berrian hogeitahi lehiakide daude; hamar baserriar eta hamar kaletar, beraien laguntzaile direnak. Bost bikotez osatutako bi taldetan ari dira auzolanetan indarrak neurtzen, eta, bikotea osatzen ez duten arren, Maitane Uribe kaletar aritu da eta Ibai Alberdi, berriz, baserriar.

Uribe, lehenengo kanporatua

Estreinaldiko kapituluan, baina, Uribe kaleratua izan da, proba galtzarren. Hala ere, esperientzia zirraragarria izan dela adierazi du: "Esperientzia motza baina intentsua izan da, eta baserriko lanei aurre egiteko gai naizela erakusteko gogoz geratu naiz. Kanporaketa, berriz, bidegabea izan dela uste dut".

Ibai Alberdik jarraitzen du programan, eta gustura agertu da bizitakoaz: "Baserrriko bizi-modu gogorra islatzen saiatu dira, eta uste dut lortu dutela. Gainera, kaletarrei zerbait erakusten ere saiatu gara...".

'Conquis'-zale amorratuak

Asier Urtzelai eta Julen Herran bi urtez jarraian joan dira *Conquis*-eko casting-era, eta aurtan izan dira biak hautatuak. Hauxe dio Urtzelaiak: "Esperientzia gogorra izan dela esango dut; ezin da gehiago aurreratu. Horrekin batera, egunotan jasotzen ari naizen mezu zaparrada sekulakoa ari da izaten". Herranek, berriz, esperientziak gozatu arren gogorra izan dela adierazi du: "Fisikoki prestatua egon arren, psikologikoki gogorra da; izan ere, gauzak pentsatu barik egin behar dituzu".

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?
Zatoz batu-banatural!

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **pertsonalizatua**.
- **Kartelak** ipini.
- **Autoz auto** banatzea.

Batu Banatu:
zure publizitate-banaketa, neurririk!

b + b
batu-banatu

www.batubanatu.eus
943 08 10 50 / 688 69 00 07
banaketak@batubanatu.eus